



MARTXOAREN 8A
ORRIALDE BEREZIAK / 17



ALDARRIKAPEN MOREEK HARTUKO DITUZTE KALEAK

Asko dira Debagoieneko kolektibo feministek Martxoaren 8rako deitutako mobilizazioak; bihar kalera irteteko dei egin dute. / IKUS HERRIAK

Bihar Arrasaten egitekoa den Lilabide ibilbidea prestatzeko saioa, eguaztenean.

XABIER URTZELAI ATXA



Debagoieneko bost herrik eman dute izena lehenengoz egingo den Euskaraldia Hikan / 2

Mankomunitateak Energia Bulegoa zabaldu du, eta herriz herri emango du zerbitzua / 3

Potx eta Lotx pailazoek bosgarren lana aurkeztu dute; 'Lagunekin topa' du izena / 31

SINADURAK

	XABIER ARREGI MURGIONDO / 6		ALEX ARTEAGA / 27
	JOHANNA SANCHEZ / 9		AITOR UGALDE / 31
	MALENA GONZALEZ ALTUNA / 12		MIKEL BIAIN / 40

Gaurko boxeo jaialdian dute debuta Manex Bengoa eta Aitzol Ovejero arrasatearrek / 32

puntua

Epaitegietan genero-ikuspegia falta da

Elkarrizketa Mañole Ezenarro irakasle ohiari

2MÓ 239€

erreflexuen aurkako betaurreko progresiboak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

MULTIÓPTICAS

943 79 29 95
Otalora Lizentziaduna, 18
ARRASATE



eskatu hitzordua



943 76 15 75
Ibargarai, 16
BERGARA

www.multiópticas.com





Zirhika taldearen aurkezpena, otsailaren 28an. ZIRHIKA

Bailarako bost herri Euskaraldia Hikan

Arrasatek, Bergarak, Oñatik, Elgetak eta Eskoriatzak lehenengo aldiz egingo den Euskaraldia Hikan parte hartuko dute: ohiko txapa beharrean, 'H' bat marraztuta duen txapa berezi bat izango da herri horietan, parte hartu nahi duenarentzat

Jone Arruabarrena DEBAGOIENA

Hitanoa biziberritzea. Hori da duela aste batzuk sortu den Zirhika taldearen helburua. Eta lehenengo pauso bat eman dute jada, Zirhikarekin batera, Debagoieneko hainbat herrik. Izan ere, hitanoa Euskaraldian txertatzeko ekinaldia egin du Zirhikak, Euskaraldia Hika egitasmoaren bidez, eta Euskaraldi berezi horretara batu dira 83 herri, tartean Arrasate, Bergara, Oñati, Elgeta eta Eskoriatza.

Zirhikako kideetako bat da Juan Martin Elexpuru, eta adierazi du hitanoa "gainbehera" etorri den arren Euskal Herriko leku gehienetan euskararen "zati handi bat" dela, eta merezi duela hika berpizteko "ahalegina" egitea: "Hika erabiltzen da lagun artean, tabernan, anai-arreben artean... Zelanbait esateko, berbeta beroa da. Egun osoan bota astunekin ibili ostean etxera heldu eta zapatilak jartzea bezala".

Azaldu du Debagoieneko herri askotan egin dela ahalegina hitanoaren erabilera zabaltzeko. Oñati izan da azken urteetan bereziki nabarmendu dena, baina Bergaran, Elgetan zein An-

tzuolan ere "lan asko" egin dela dio Elexpuru: "Jendeak gogoia dauka hika egiteko. Eskoletara joatea, agian, gehiago kostatzen da, baina eremu informalean jendeak egiten du, eta saiatzen da. Kontua da gizonek gizonena dakitela eta emakumei hika nola egin ez dakitela. Hor ere jarri behar da indarra".

Euskaraldia Hika

Euskaraldian zukaz gain hika ere entzuteko eta hitz egiteko ekimena da Euskaraldia Hika, hitano hizkuntzak aktibatze, sortzeko eta hitanoa plazazartzeko. Deia herriei egiten zaie. Herri bakoitzak erabakitzen du egitasmo horrekin bat egin edo ez. Horrela egiten dutenetan, txapan *H*-a ipintzea izango da ezaugarria. *H*-aren esanahia hau da: "Nahi baduzu, nirekin hika egin dezakezu", izan *ahobizi* edo *belarriprest*. Hala, Euskaraldia Hikari dagokionez, herri horietako herritarrek galdera bat gehiago izango dute izena emateko formularioan. Euskaraldia Hika herrietako biztanleei txaparekin batera *H* gometzak banatuko dizkiete.

Neinor HOMES
SAN ANDRES HOMES
ARRASATE

BISITATU GURE PISU PILOTUA

2, 3 edo 4 logelako etxebizitzak
Bizikleta-aparkalekuak | Jolasguneak
Gourmet aretoa | Gimnasioa

Erreserbatu orain zure etxebizitza eta ez ordaindu eskritura-gasturik

Maiatzaren
30 era arte bakarrik!

Neinor Store:
Maalako Arrabala, 33 (Arrasate)

900 11 00 22 • neinorhomes.com

Debagoieneko Energia Bulegoa aurkeztu dute

Debagoieneko Mankomunitateak energia trantsiziorako bulegoa eta webgunea aurkeztu berri ditu, herritarrak informatu eta haiei aholkuak emateko helburuarekin. Izan ere, energiaren merkatuan "gardentasun falta handia" dagoela uste dute

Eneko Azurmendi Barrena

DEBAGOIENA

Debagoieneko Mankomunitateak energia trantsiziorako bulegoa aurkeztu du. Dorleta Elkorobarria Mankomunitateko presidentea azaldu duenez, helburuetako bat eskualdeko erreferentzialtasuna handituz joatea da: "Horretarako, ezinbestekoa da herritarrengandik gertu egotea eta zerbitzu mankomunatuak eskaintzea, eta horren adibide garbia da gaur aurkeztu dugun Energia Bulegoa".

Hala, bihartik aurrera, herri bakoitzean bulego bat zabalduko dute, eta Aintzane Iturbe izango da bulego horietako ar-



Ekimena aurkezteko prentsa-agerraldia, eguaztenean. ENEKO AZURMENDI BARRENA

duraduna. Aste osoan, herriz herri, dagokion bulegoan egongo da Iturbe, herritarrei informazioa eta aholkularitza ematen. Era berean, telefonoz eta posta elektronikoz informazioa eta aholkularitza eskaera egiteko aukera ere egongo da, 747 48 51 47 telefono-zenbakira deituta edota energiabulegoa@debagoiena.eus helbidera idatzita.

"Gardentasun falta"

Xabier Igartuak, Mankomunitateko batzordekideak, energiaren merkatuan dagoen "gardentasun falta" nabarmendu du, eta dio zerbitzu mankomunatu horrek "argibide eta gardentasuna" eman nahi diola sektoreari. "Multinazionalak agintzen duten energia sektorean gardentasun falta handia dago, eta horrek eragin zuzena du herritarrengan. Izan ere, energia bera ordutegi berean erabiltzeagatik ordaintzen dena guztiz ezberdina izan daiteke. Tarifa librean bilakaerak faktura batzuetan hiru eta lau aldiz garestiago kobratzea ere ekarri izan du kasuren batzuetan. Herritarrek informazio gardena izateko es-

kubidea dute, oinarrizko beharrak asetzeko modu informatuan erabakiak hartzeko".

Askotariko informazioa

Energia Bulegoaren bitartez, argindarraren edota gasaren fakturen inguruko informazioa emango diete herritarrei, baita merkatu arautuaren zein libreakin gainera. "Horrez gain, etxeko kontsumo handi bat eraikinaren egoeragatik ere izan daitekeenez, birgaitzeak izan ditzakeen onurak zeintzuk diren azalduko dugu, baita egon daitezkeen dirulaguntzak ere. Izan ere, bonu sozial baterako eskubidea ere badute herritarrek, eta informatzea dagokigu", azaldu du.

Webgunea ere eskuragarri

Webgune bat ere sortu dute: energiabulegoa.debagoiena.eus. Informazio guztia jasoko dute bertan. "Eskualdeko makrodatuak ere badaude, herri bakoitzaren errealitatea zein den azaltzeko. Trantsizio energetiko honetan, garrantzitsua da datu horiek herritarrek ere izatea", azaldu dute.

M8
Emakumeen Nazioarteko Eguna

ASKATASUNA
AUKERAK
ELKARTASUNA
sareak
ahalduntzea
BERDIA
TASUNA

ERRESPETUA
hezkuntza
DEMOKRAZIA
eskubideak
ANTZERTASUNA
ONGIZATEA

#Ni Feminista Naiz
Feminismoa zurekin bat

EMAKUNE
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

araba álava
herri aldeaketa. gipuzkoan bera.

Bizkaia
GIPUZKOA
Euzko Legebiltzarko Erakundeak

EUDEL

"Egiten dugun musika herri musika da"

ARITZ ALUSTIZA ETA MAIXA LIZARRIBAR TRIKITI IRAKASLEAK

Trikitiak garrantzi handia izan du Euskal Herriko musikan, baina ez zuen aitortza akademikorik. Dekretu batek tresna horren irakaskuntza arautzeko helburua du

Sara Lanz Azpiazu ARRASATE

Espainiako Gobernuak onartu berri du trikitia goi-mailako musika eskoletako espezialitateen artean txertatzea. Erabaki horrek aukera eman nahi du herrietako jaietan, erromerietan eta kalejiretan hain errotuta dagoen musika tresnaren irakaskuntza arautzeko, transmisioa bermatzeko eta zabalkundea sendotzeko. Debagoiengan, Leintz Gatzagan izan ezik, gainerako herri guztietan dago trikitia jotzen ikasteko aukera. Bergarako Musika Eskolako Aritz Alustizak eta Arrasateko Trikitixa Eskolako Maixa Lizarribarrek euren ikuspuntua partekatu dute.



Aritz Alustiza eta Maixa Lizarribar, Santa Barbarako jolasparkearen ondoan. S.L.

Nola hartu duzue albistea? Berri ona da?

Aritz Alustiza: Bai; egia esan, ezustean harrapatu gaitu. Bat-batean dator Espainiako Gobernutik, eta horrek erakusten du gauza serioa dela. Argia berde jarri da, baina oraindik ez dakigu zer ekarriko duen. Lan asko dago aurretik, eta galdera asko sortzen dira.

Maixa Lizarribar: Oker ez bango, aspaldiko eskakizuna zen. Duela urte batzuk, lantalde bat sortu zen ofizialtasuna lortzeko ahaleginean, baina ni ez naiz barnean egon eta ez dut bidearen berri. Horregatik hartu dut berria ustekabean.

Zer eskatzen dute musika eskolek?

A.A.: Ez dakit musika eskoletatik edo Gobernutik datorren, baina badirudi dekretu hori musika eskoletako behar bati erantzuteko egin dela. Titulazioak eskatzen dira, eta hori da gaur egun eztabaidagai nagusia.

Trikitia errekonozitzeko modu bat da Errege Dekretua?

A.A.: Nik uste dut trikitiak aitortza baduela. Askotan entzun dut hau errekonozimendu gisa aurkezten dela, baina, nire us-

tez, dekretua behar bati erantzuteko neurri bat da. Kalean badugu errekonozimendua, eta musika eskoletan ere gero eta handiagoa.

Ez da beste instrumentuak bezain akademikoa izan?

M.L.: Gu kalekoak izan gara beti. Egiten dugun musika herri musika da, eta herriak horrela maite du. Gainera, guk modu librean irakasten dugu. Orain, ofizialtasun horren barruan, agian, hainbat partitura modu jakin batean jo beharko dira.

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak ateratako oharrean kezka puntu bat sumatzen da; nola ikusten duzue?

M.L.: Bai; hausnarketa prozesu bat martxan jartzea ondo etorririko zaigu.

A.A.: Garrantzitsua da sortze-prozesu horretan guk ere parte hartzea. Ezin dugu beste norbaiten esku utzi, gurea beste zerbait da eta.



Bideoa ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

Nico, Donostia
24/12/4 Donostia Ospitalea

Gipuzkoa egunero sortzen da.

Pertsonen ongizate integral handieneko lurraldea izatea da gure asmoa.

GIPUZKOA
Ekin. Zaindu. Biz.

Martxan da Goienako podcast-gela, komunitateari ahotsa emateko

Goiena Komunikazio Taldeak eta komunitateko eragileek martxan dute podcast-gela. Egitasmo horren helburua komunitateari ahotsa ematea eta euskarazko eduki digitalak sustatzea da, eta dagoeneko landu dituzte podcastak batzuk

Sara Lanz Azpiazu ARRASATE

Goiena Komunikazio Taldeak podcast-gela bat jarri du martxan, komunitateari ahotsa emateko helburuarekin. Ekimen horren bidez, hainbat edukiren ekoizpena bultzatu nahi da, euskarazko eduki digitalak sortzeko eta zabaltzeko. Jada hainbat podcast entzun eta ikus-entzun daitezke Arrasate Irratiko uhinetan, *Goiena.eus* atarian eta Ivoox edo Spotify plataforma digitaletan.

Lehen urratsak Jose Mari Velez de Mendizabalek eta Eneko Barberenak egin zituzten, hurrenez hurren, *Hala dio argazkiak* eta *Fukuyama* podcastekin. Audio-podcastak dira.

Haien atzetik beste hainbat proiektu sortu dira, hala nola Arrasateko Gaztetxearen *AGAKO Podcast*, Ndank Ndank elkartearen *Beste ahotsak*, Juan Martin Elexpururen *Minpeko barik* eta Txatxilipurdi elkartearen *Txatxilipodkasta*. Manex Agirreren *Allenderenak* literatura podcastak ere tokia aurkitu du podcast-gelan, eta AED eta AEK euskalgintzari buruzko podcast bat prestatzen ari dira. AEDko dinamizatzaile Itxaro Artolak honako hau adierazi du: "Bozgorailuak behar ditugu, eta podcast bat euskarri paregabea da. Gainera, aukera asko ematen dituela uste dugu, irratiak egiten duen moduan".

Podcastgileek euren esperientziak partekatzen dituzte, bakoitzak bere ikuspegitik azaltzen du nola bizi izan duen podcast-gelan grabatzea eta zer helburu dituzten beren edukiekin. Juan Martin Elexpururen *Minpeko barik* podcastak historia, euskara eta memoria ditu ardatz, eta, haren hitzetan, "barruan daukagun hori kaleratzeko modu bat" be-

zala ikusi zuen proiektua. Podcast horretan, euskal historiari eta gizartearen bilakaerari buruzko gogoetak partekatzen ditu, ikuspegi pertsonal eta sakonarekin.

Ndank Ndank elkarteak *Beste ahotsak* podcastak Eli Dominguez eta Mamadou Sarr ditu gidari, eta egitasmoak Euskal Herriko pertsona arrazializatuak espazioa eskaintzea du helburu, euren esperientziak eta ikuspegiak plazara ditzaten. "Aukera bikaina izan da hainbat gai mahaia gainean jartzeko", esan du Dominguezek. "Orain arteko elkarrizketetan gonbidatuak ere oso eroso sentitu dira podcast-gelan".

Manex Agirreren *Allenderenak* podcast literarioan literaturaren inguruko hausnarretak eta gomendioak partekatzen dira. "Oso erakargarria den medio bat da, bai entzuteko, bai informazioa jasotzeko", eta, horregatik, podcast formatua baliagarritzat jotzen du literatura ezagutarazteko eta, era berean, "gogoetarako espazio berri bat sortzeko".

Azpiegitura berria

Goienako podcast-gelak teknologia berritzaileak integratu ditu, eta audio- zein bideo-podcastak egiteko aukera eskaintzen du. Goiena Komunikazio Taldeak 43.000 euroko inbertsioa egin du. Arrasate Irratiaren estudioa ere badenez, hobekuntzak hainbat esparrutan dira nabariak. Irratia ohiko moduan egiten

ZAZPI BAT PODCAST JARRI DIRA MARTXAN GOIENAREN PODCAST-GELAN, ETA ETORRIKO DIRA GEHIAGO

jarraitzen den arren, espazioa guztiz eraldatu da.

Goienako ikus-entzunezkoen zuzendari Oihane Agirrek azpimarratu du azpiegitura teknikoak zein eszenografikoa erabat berri direla, eta orain bideo-podcastak egiteko aukera ere badagoela. "Kamera robotizatuak eta errealizazio sistema automatizatuak ezarri ditugu, autokudeaketari bultzada emateko. Beste modu batean esanda, bideoaren aldea ere gehitu diogu espazioari".

Askotariko gaiak

Podcast-gelako dinamizatzaileek –Larraitx Zeberio, Aitziber Aranburuzabalak eta Peru Atxa, besteak beste– oso balorazio positiboa egin dute hasiera honetan jasotako erantzunen inguruan. "Guk jo ditugu hainbat ate. Irizpide batzuk jarri eta lehenetsi ditugu gai konkretu batzuen bueltan diharduten eragileetara jotzea: euskara, kultura, kultura-artekotasuna, feminismoa, gazteak, genero disidentzia...", esan du Zeberio. Aranburuzabalak azpimarratu du eragile bakoitzak bere neurria egindako podcastak egiteko aukera duela maiztasun, iraupen eta eduki aldetik.

Peru Atxa arudratzen da Goienako podcast-gelaren alor teknikoaz: "Hasiera honetan, espazioaren antolaketaren, argiztapenaren eta antzeko gaien inguruko aholkularitza eskaintzen dut nik. Grabaketekin ere laguntzen dut".

Hain zuzen ere, gaur bertan, podcastgintzan aditua den Ulua multimediako Oier Arantzabal izango da Goienan; podcastak egiten hasita daudenei zein has-teko daudenei formakuntza berezia emango die.



Ndank Ndank elkarteak, *Beste ahotsak* podcasta egiten. GOIENA



Manex Agirre, *Allenderenak* podcastaren lehen saioa grabatzen. GOIENA



Arrasateko Gazte Asanbladako kideak, podcast-gelan. GOIENA



Txatxilipodkasta-aren lehen atalaren grabaketa. GOIENA



ZABALIK

XABIER ARREGI MURGIONDO

Ateak irekiz

Duela gutxi, Joseba Azkarragak, Iñaki Lasagabasterrek eta Ramon Zalok iritzi-artikulu bat argitaratu dute hainbat hedabidetan, euskal presoek aplikatzen ari zaizkien salbuespeneko arau eta lege ugarien berrinterpretazioaren beharra aldarrikatzeko. Ikuspegi horrek ate asko ireki diezazkioke, arlo judizialean, euskal gizarteak eskatzen duen bake- eta bizikidetzaprozesuari, Sare plataformatik irmoki bultzatzen dugunari.

Egileek diotenez, prozesu horretan "biderik azkarrena eta eraginkorrena legeak interpretatzea da, askatasuna babesteko printzipio konstituzionalaren eta zuzenbidea aplikazio-denboraren errealitate sozialera doitzeko printzipio juridiko orokorraren arabera". Izan ere, 1978-2014ko aldian, abusuzko zuzenketa ugari egin dira hainbat legetan, baita salbuespeneko organoak sortu ere, segurtasunaren, antiterrorismoaren edo zigor-

GIZARTE ZIBILETIK IKUSPEGI JUDIZIAL HUMANISTAGOA ALDARRIKATU BEHAR DUGU

ikuspegi nagusiaren argudio gisa. Hala, Auzitegi Nazionala edo Espetxe Zaintzarako Epaitegi Zentrala salbuespeneko organo gisa sortu dira; euskal presoak sakabanatzea eta urruntzea

ahalbidetu duten arauak eta legeak aldatu eta garatu dira; ezarritako kondenak espetxean eta osorik betetzea ahalbidetu dutenak; baita atzerrian ezarritako kondenak zenbatzea saihestera bideratu direnak ere. Oraindik indarrean dagoen 07/2003 Legea azpimarra daiteke, bizi guztirako kartzela-zigor estalia dakarrena eta oraindik indarrean dagoena.

Gizarte zibiletik ere ikuspegi judizial humanistagoa, aurrerakoiagoa, aldarrikatu eta bultzatu behar dugu, giza eskubideen defentsan, zuzenbidearen erreparaziorako zereginen oinarritua eta egungo gizarte-errealitatera egokitutako ikuspegia. Pertsona guztien giza eskubideak bermatzea eta salbuespenaren amaiera eskatzen duen errealitatea dugulako, gatazkari irtenbidea eman eta bizikidetzari ateak ireki nahi diolako.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



GUTUNAK

Zaintza ederra da, eder egiten dugunean

GARI ITURBE
ARETXABALETA

Bizitzak momentu ezberdinak eskaintzen dizkigu eta ni momentu horietako batetik pasatu berri naiz: aitaren heriotza. Sinbolikoki, aitaren heriotzak ere nire aurreko generazioaren desagertzea ekarri du, eta horrek barnean mugimendua sortu dit.

Hilabete gogorra izan da. Gogortasunean ederra. Azkar joan da dena, baina aita zaindu eta ni zaindua sentitzea polita izan da. Alde batetik, medikuen arreta eta inguruko babesa, denbora eta laguntza izatea pasada bat

izan da, eta, bestetik, denbora tarte horretan izandako elkarrizketak, konplizitatea, maitasuna eta agurtzeko hartutako tarte luxu hutsa izan dira. Pribilegiatua sentitu naiz, pribilegioa delako babes ingurune bat izatea. Horrek utzi nau aitaren zaintzan zentratu eta kalitatezko denbora eskaintzen. Denon artean egin dugu prozesua, eta hori oso eraikitzailea izan da. Errespetutik eta elkarlanean.

Oraín, lasai sentitzen naiz, barrenak hustu eta bueltan beteta gelditzearen sentazioarekin. Aitak, azken egunetan, opari ederra egin zigun sentazioarekin. Kalitatezko agur bat izan

genuen sentazioarekin. Eskerrik asko, komandante. Bide honetan modu batera edo bestera ondoan izan zaituztedan guztiei milaka muxu.

Kaleak garbi-garbi

MIKEL ARANTZABAL
EIBAR

Festen ostean, kaleak zikin geratzen dira. Zer esanik ez, Aratusteen ondoren: karroak, arropak, jatekoen eta edatekoen ontziak... Bada, Arrasaten, behintzat, domeka goizean jo eta su ibili ziren Udaleko langileak kaleak garbitzen. Gauzak ondo egiten direnean, zoriondu egin behar dira. Hortaz, eskerrik asko!

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.
Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube,
Larrazat Zeberio.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publikitate
Mireia Larrañaga, Narroa Inza,
Olatz Alberdi, Amaia Mundifiano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIKITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

HANDIK HONA

Jone Arruabarrena BERGARA
25 urte ditu Ann-Ketira Louissaintek (1999, Carrefour, Haiti), baina jada lurrikara bat, krisialdi politiko bat eta bi migrazio-prozesu bizi izan ditu. Bergaran bizi da gaur egun, Euskal Herrira iritsi zenetik lehenengo bi urteak Aretxabaletan igaro ondoren. **Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?**

Carrefour eta Port-au-Prince artean hazi nintzen. Lau anai-arreba nituen, baina bat hil egin zen; hiru geratzen zaizkit. Bi aitaren aldekoak dira; ama ezberdina daukagu. Beste ahizpak eta nik, berriz, guraso berak daukagu. 6 urte nituela, nire ama gaixotu egin zen; buruko arazoak zituen. Gu oso txikiak ginen, eta ez genuen askorik ulertzen. Nire aita joan-etorrian ibiltzen zen, eta, azkenean, etxetik joan zen. Amarekin geratu ginen. Gogorak izan ziren urte haiek. Hala ere, nire ahizpa nirekin neukan. Ni baino hiru urte nagusiagoa da, eta oso lotura estua daukagu. Beti zaintzen ninduen, eta, triste geundenean, barre eragiten ziguten gauzak egiten genituen. Gainontzekoan, nahiko haurtzaro normala zen: ikasi, jolastu...

Dominikar Errepublikara migratu zenuen gero, ezta?

Bai. 2019an, Haiti geroz eta arriskutsuagoa zen, eta ezin nuen han jarraitu. Aitak Dominikar Errepublikara bidali gintuen ahizpa eta biok, seguruago egon ginatezen. Garbiketari eta bestelako lan batzuetan aritzen nintzen.

Nola erabaki zenuen Euskal Herrira etortzea?

Egun batean, Dominikar Errepublikako plaza bateko banku batean eserita nengoela, Euskal Herriko mutil bat etorri zitzaidan, eta hitz egiten hasi ginen. Azkenean, maiteminduta bukatu genuen. Hura oporretan zegoen han, baina Euskal Herrira bueltatu zenean ere kontaktuan jarraitu genuen. Jaiegunak zituen aldiro etortzen zitzaidan bisitan, eta horrela egon ginen, distantzia-harreman batean, bi urte eta erdiz. Azkenean, esan zidan ni

"Haiti geroz eta arriskutsuagoa zen; ezin nuen han jarraitu"

ANN-KETIRA LOUISSAINT HAITIAR JATORRIKO BERGARARRA



Ann-Ketira Louissaint, Bergaran. JONE ARRUABARRENA

hona etortzea nahi zuela. Nik ere hala nahi nuen; Haitira joan ginen eta han ezkondu ginen. Handik hilabetera, haurdun gelditu nintzen.

Nolako izan zen honaino etortzeko prozesua?

Etorri ahal izateko paperak egiten hasi nintzen, eta, azkenean, haurdun nengoela, zazpi hilabeteko, lortu nuen. Izan ere, zortzi hilabeteko haurdunaldiarekin ezin nuen bidaiatu, eta hango Espainiako enbaxadak tramiteak arindu zituen,

lehenago etorri ahal izateko; nire gizonak umea hemen jaiotzea nahi zuen, eta hala izan zen, azkenean:

Arrasateko ospitalean jaio zen. Orain, beste alaba bat izango dut.

Nolakoak izan ziren lehenengo egunak hemen?

Gogorra izan zen nire herrialdea uztea; familia han neukan, eta hemen bizitza berri bat hasi behar nuen. Dena oso ezberdina zen. Hemen gaztelania hitz egiten zen arren, ez zeukan zerikusirik Dominikar Errepublikan ikasi nuen gaztelaniarekin. Berritro hitz egiten ikasi behar izan nuen. Bi urte egin nituen Aretxabaletan, eta duela urtebete baino gutxiago etorri nintzen Bergarara.

Arazo asko eduki dituzu paperak erregularizatzeko orduan?

Ez. Gauza simpleak dira. Orain, ikasi egin behar dut nazionalitatea lortzeko azterketa ateratzeko. Ez da oso zaila.

Nolako izan da Euskal Herrian eduki duzun harrera?

Oso garrantzitsua izan da nire senarraren familiak izan duen jarrera. Beso-zabalik hartu naute, familiako beste bat gehiago izango banintz bezala. Nik ere hala sentitzen dut. Munduko amaginarrebarik onena daukat, baita aitaginarreba ere. Beti daude hor niri laguntzeko.

Eraz egokitu zara?

Euskal Herria asko gustatzen zait, ondo dakite-eta nortzuk diren. Argi dute ez direla espainolak, euskaldunak direla. Gustuko dut hori. Nik ere azkenaldian esaten dut euskalduna naizela. Gustatzen zait nola pentsatzen duten, hemengo jendea oso atsegina

da, eta bertako kultura ere asko gustatzen zait. Esaterako, asko gustatzen zait Huntza musika taldea, kantu guztiak dakizkit. Mikel Laboa ere gustuko dut. Euskara ikasten ari naiz. Umearekin euskaraz hitz egiten saiatzen naiz, eta, zerbait esaten ez badakit, gaztelaniaz esaten diot. Frantsesa ere hitz egiten dut harekin. Frantsesa jakiteak aukera ematen dio nire Haitiko familiarekin hitz egiteko ere, telefonoz deitzen diotenean.

Zer igartzen duzu faltan zure herrialdetik?

Familia, batez ere. Seguritasun aldetik Haitiko egoera hobetzen denean bisitan joan nahiko nuke.

Euskaldunak, gogorak eta ausartak: "Edozein gauza egin dezakete"

Hark izan duen esperientzia kontuan hartuta, Louissaintek dio euskaldunak "oso pertsona irekiak" direla: "Ez dakit nolako sentipena izango duten hona datozen beste pertsona batzuek; baina niretzako horrela izan da". Esan duenez, ez du arrazakeriarik bizi izan Euskal Herrira iritsi denetik: "Jendeari ez zaio ardura nortzuk garen, garen bezala onartzen gaituzte. Ez didate ezberdin begiratzen, eta hori gustuko dut. Dominikar Errepublikan, adibidez, arrazismo handiagoa igarri dut". Euskaldunak, "gogorak eta ausartak" direla dio, eta "edozein gauza" egin dezaketela: "Senarrak esan zidanean euskalduna zela, ez nuen ulertzen. Baina denborarekin ulertu dut. Hemen gertatu zena, diktadura eta... oso gogorra iruditzen zait. Eta miresgarria da hemen euskaraz hitz egitea, debekatu zuten arren".

"GOGORRA IZAN ZEN HAITI UZTEA; FAMILIA HAN NEUKAN. HEMEN BIZITZA BERRI BAT HASI BEHAR NUEN"

"BESO-ZABALIK HARTU NAUTE, FAMILIAKO BESTE BAT GEHIAGO IZANGO BANINTZ BEZALA"

M8



Amets Beltran de Gebara, Lexuri Doyague eta Maider Morras, Emakume Txokoan, kartelarekin. ARRASATEKO UDALA

Milaka hazi, azal beraren abaroan

Lexuri Doyague Loiti artista arrasatearrak egin du Emakumeen Nazioarteko Egunari begirako kartela. Egitarauaren osaketan parte hartu dute herriko eta eskualdeko kolektibo feministak, Arrasateko Udal Bibliotekak, Sasoibidek eta Emakume Txokoak

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Emakume Txokoak eta Arrasateko Udalak Martxoaren 8ko kartela eta egitaraua aurkeztu dituzte asteon. Kartelari dago-kionez, aurten ere ez dute lehia-ketarik egin, eta Lexuri Doyague sortzaileak egin du. "Azken urteetan emaitza ez zen nahi bezalakoa izaten ari, eta Arrasateko emakume artistei enkargatzea erabaki genuen iaz. Ondorioz, herriko emakume artistekin lanean jarraitzen dugu", dio Maider Morras alkateak.

Doyaguek, bestalde, honela azaldu du kartelarekin transmititu gura izan duena: "Azal beraren azpiko milaka hazi gara, elkarren ondoan estu bilduak, ezberdinak baina kideak. Taupadak taupada, elkarren ondoan ari gara esnatzen, ernaltzen, elkarri entzuten eta elkarri irakasten... Intimitatean kozinatuta

takoa mundura ateratzera, munduari erakutsi eta irakastera".

Hori guztia islatzeko granada bat erabili duela gehitu du: "Granadak pasioa iradokitzen digu, sentsualitatea, baina baita indarra eta bortizkeria ere. Irudi horren bidez transmititu nahi izan dugu aurtengo Martxoaren 8ko mezua ere".

Biharko eguna, ekintzaz beteta Amets Beltran de Gebara Berdintasun teknikariak azaldu duenez, elkarlanaren emaitza da egitaraua, eta egun nagusia biharko izango da. Batetik, emakume

**LEXURI DOYAGUE:
"AZAL BERAREN
AZPIKO MILAKA HAZI
GARA, EZBERDINAK
BAINA KIDEAK"**

artisaunen eta bertako ekoizleen azoka egingo dute, Seber Altuben, 10:00etatik 14:00etara, eta emakumeek sortutako artisaun lanei eta emakumeek ekoiztutako bertako produktuei plaza eskaintzea da helburu nagusia.

Hala, 24 postu egongo dira azokan, eta, besteak beste, ogia, eztia, gazta eta askotariko gozoak egongo dira. Artisauei dagokienez, mota eta material ezberdinez egindako bitxiak, kakorratzez egindako arropak, poltsak, xaboiak, ukenduak eta abar izango dira. Era berean, haurrendako tailerrak eskainiko ditu Txatxilipurdik: "Aurpegiak margotzeko aukera eskainiko zaie haurrei eta gazteei, baita txapak egiteko ere".

Halaber, 11:30ean, Lilabide ibilaldia egingo dute, Sasoibideren eskutik. Bost kilometroko ibilaldia izango da, emakumei

zuzenduta egongo dena eta Biteri plazatik abiatuko dena.

Arratsaldean, manifestazioa egingo dute, Arrasateko Mugimendu Feministak deituta, eta 18:00etan Seber Altubetik irten-go dira, *Faxismoaren kontra, ausardia eta aliantza feministak!* lelopean. Plazan bukatu ostean, triki-poteoa egongo da.

Ondoren, 21:00etan, *Zuk ekarri, zuk jan* herri-afaria egingo dute Uarkape frontoian, eta, gualdia dantzaz amaitzeko, 00:30ean hasita, jaialdi feminista egingo dute Irati Topalekuan, DJ Putzuren eskutik.

**MANIFESTAZIO
NAGUSIA BIHAR
EGINGO DUTE, SEBER
ALTUBE PLAZATIK
IRTENDA, 18:00ETAN**



Asun Agiriano, bibliotekako zuzendaria, erakusketan. JULEN MURUA MESONERO

'24 emakume' erakusketa iritsi da

Udal Bibliotekak eta Jakiundek elkarlanean antolatuta, zientzia, arte eta letra munduko 24 emakume akademiko ardatz dituen erakusketa izango da ikusgai Seber Altuben, martxoaren 27ra arte. Helburua da gizarteari erakustea arlo horietan diharduten emakume horien errealitatea, modu horretan etorkizuneko belaunaldiak inspiratzeko.

Erakusketak hamabost panel hirukoitz ditu eta horietako bakoitzak 150 kilo dituela nabarmendu du Asun Agirianok, bibliotekako zuzendaria. "Jakiunderen erakusketa izanik, zientzia, arte eta letra munduko 24 emakume akademikori buruzkoa da, eta haiei buruzko informazioa hiru hizkuntzatan dago: euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez. Kalitatezko argazki batekin, emakume horien biografia jasotzen dute panelek".

Erakusketa osatzeko, hitzaldi bat egingo dute, martxoaren 13an, 18:00etan, Kulturaten, Nora Alonso zientzialariaren eskutik – gaztelaniaz–. Zientzietan doktorea da Alonso, baita nekazaritzako elikagaien sektoreko ekintzailea, enpresaria eta inbertitzailea ere. "Janariaz, nekazaritzako elikagaien sektoreaz, aurrean duen erronkaz, sektoreak bizi duen eraldaketaz eta ingurumenean, gizartearen eta ekonomian duen inaktuaz hitz egingo dugu". Horrekin batera, elikadura eta nutrizioa ardatz dituen interesgunea jarri dute bibliotekan, gai horri buruzko hainbat libururekin.

Udalak, adierazpen bateratua

Udalak adierazpen instituzionala egin du Martxoaren 8aren harira, eta hainbat konpromiso hartu, hala nola Berdintasuneko koordinazio mahaiaren baitan lan egiten jarraitzea, gobernantza eredu parte-hartzaile eta demokratikoa garatzeko asmoz; Mugimendu Feministarekin batera zaintzen aldeko herri akordioarekin bat egin eta landutako puntuak espazio partekatuetan gauzatzeko; Berdintasun zein Barne planen bidez gobernantza ereduaren inguruan lan egitea eta emakumeen boteretzeko bideak ezartzen jarraitzea; Jabetze Eskolei eta Emakumeen Etxeei behar adina baliabide bermatzea; eta Euskal Herriko Mugimendu Feministak herrian bultzatuko duen dinamikarekin bat egitea, herritarrei parte hartzeko dei eginda.



Martitzenean, martxoak 4, egin zuten ohiko osoko bilkura. E.A.B.

Parte-hartze ordenantza bat iragarri du Gobernuak

Udalbatzak martitzenean egin zuen martxoko ohiko osoko bilkura, eta, hori baliatuta, Udal Gobernuak iragarri zuen parte-hartze ordenantza bat landuko duela 2026rako. Ordenantza hori, hain zuzen, herritarrekin batera egin gura duela aurreratu zuen

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Martxoko osoko bilkura baliatuta, parte-hartze ordenantza bat iragarri zuen Garazi Etxeberria Hirigintza, Trantsizio Ekologikoa eta Mugikortasuna Saileko zinegotziak. "Urte eta erdian hainbat parte hartze prozesu jarri ditugu martxan, formatu ezberdinetan. Auzoz auzoko batzarrak egin ditugu, idatzizko alegazioak jaso ditugu, online galdeketa gauzatu ditugu eta, noski herri galdeketa bat ere bai, autobus geltokiaren kokalekuari buruzkoa. Edozelan ere, ohartu gara parte hartzeko bitartekoak arautzea garrantzitsua dela. Horregatik, ezinbestekoa dugu parte-hartze bitarteko guztiak jaso eta arautuko dituen ordenantza bat egitea. Udalaren zein herritarren eskura egongo den baliabide bat izatea nahi dugu", adierazi zuen Etxeberriak.

Ordenantza bera, gainera, herritarrekin batera idatziko dutela nabarmendu zuen: "Irailetik aurrera iragarriko dugu prozesua, baina dagoeneko prozesu hori diseinatu eta gauzatzeko antolaketa lanetan hasita gaude".

EAJren "desinformazioa"

Ordenantzaren iragarpena, hein batean, EAJren "desinformazioaren" ondorioa dela esan zuen.

"Lehen desinformazio kasua Mugikortasun Planari lotutakoa izan da. EAJk inposizioaren kontakizuna zabaldu nahi izan duen bitartean, datuek kontrako adierazten dute", azaldu zuen Etxeberriak. Horretarako, Mugikortasun Jasangarrirako Planean erabilitako parte-hartzearen hainbat datu orokor eman zituen.

Bigarrena jatorriz Udal Gobernuarena den plan bat "EAJren izango balitz bezala saldu nahi izatea" izan da, Etxeberriaren esanetan. "Azpiegitura berdea, klima eta energia plana gauzatzeko, parte-hartze prozesu bat landu genuen, eta Hiri-

gintza Batzordean aurkeztu. Hurrengo egunean, Gobernuak prozesu parte-hartzailea iragarri aurreikusita zuen egunean, EAJk azken orduko prentsaurreko batean plana berea izango balitz bezala aurkeztu zuen", azpimarratu zuen osoko bilkuran.

Errespetuz jokatzeko deia

Azkenik, errespetuz jokatzeko eskatu zuen: "Politikan gutxieneko joko-arau batzuk errespetatzea ezinbestekoa da; tartean, ondokoaren lana errespetatzea. Gure gonbidapena, berriz ere, herriko erronkei elkarlanean erantzuteko". EAJk, azkenik, ez du ezer erantzun gura izan.

Mugikortasun Plana, osatzear

EAJren "desinformazio" horri erantzuteko, hainbat ditu eman ditu Udal Gobernuak, Mugikortasun Plana gauzatzeko egin dituen saioei buruz. "235 pertsonak parte hartu dute auzoz auzoko parte-hartze saioetan, eta dozenaka ekarpen egin dituzte; 4.268 herritarrek parte hartu zuten azaroan egindako autobus geltokiaren herri galdeketa; plana jendaurrean egon den 45 egunetan, 25 herritarrek idatzizko hainbat proposamen egin dituzte; azkenik, Hirigintzako Aholku Kontseilua hiru aldiz bilduko da, eta azken saioa martxoaren 13an izango da, eta zazpi Hirigintza Batzordetan tratatu da gaia. Nabarmenezkoa da EAJk ez duela ekarpenik egin". Herritarrendako azken bilera irekia egin zuten atzo, eta, ondo bidean, apirileko osoko bilkuran onartuko dute plana.



NIRE USTEZ

JOHANNA SANCHEZ

Hitz egin dezagun politikaz...

Legegintzaldiaren bigarren urtea da, eta ez da ezer gertatzen. Edukiontzia erretzea: denok dakigu azken asteburuan eta beste hainbatetan pertsona batzuek -beste hitz batzuk erabili barik- edukiontzia erretzen dituztela, eta ez dela ezer gertatzen.

Pintaketak: denok dakigu egun batzuetan bai eta beste batzuetan ere bai gizabanako batzuk herrian zehar pintaketak egiten aritzen direla, eta ez da ezer gertatzen.

Booma izan zen gure azken legegintzaldian zebra-bide adimendunak jarri genituenan. Gaur egun, egiten ez den mantentze-lana behar dute, baina ez da ezer gertatzen.

Gure azken legegintzaldian TAO abian jarri zen, eta gaur egun gobernatzen duten guztiak kritikatzeko zuten, baina berdin jarraitzen dugu, eta ez da ezer gertatzen.

Udalatxeko gurutzak: magia, tontorretik desagertu zen, inork ez du ezer ikusten edo entzuten, eta ez da ezer gertatzen.

Ondorioa: batzuek oposizioan daudenean asko kritikatzeko dute, baina, boterera iristean, ezer gutxi egiten dute. *Mucho lirili y poco lerele.*

Whatsapp eta Telegram kanalak ireki ditu Udalak

Horien bidez, albiste eta jakinarazpen guztiak jasotzeko aukera izango dute arrasatearrek. "Herritarrengandik gertuago egon nahi dugu, baita haiek Udalaren berri errazago izatea ere", diote udal ordezkariak. Bestalde, jasotako kexa eta iradokizunak kudeatzeko sistema berria jarri dute martxan, bi sare horietan, 688 73 24 63 zenbakian. "Udalean jasotzen genituen kexa eta iradokizunak ez ziren behar bezala kudeatzen, eta horietako asko erantzun gabe geratzen ziren. Hala, 2024ko uztailean langile berri bat jarri genuen eskaera guztiak kudeatu eta erantzuten, eta orain eraginkortasunez kudeatzen ari dira eskaera guztiak".

Polmetasako lursaila trukatzeko proposatu du PSE-EEK

Udal Talde Sozialistak, Denis Itxaso Etxebizitza sailburuarekin bildu ostean, Polmetasako lursaila trukatzeko proposatu du, "Eusko Jaurlearitzarekin duen zorra kentzeko" eta udalerrian babestutako etxebizitza gehiago eraikitzeko. "Udalak aurreko legealdian Eusko Jaurlearitzarekin izandako 1,3 milioi euroko zorra kenduko luke, Jaurlearitzak ospitale ondoko lursail bat des-kutsatu eta babes ofizialeko etxebizitza eraiki dituelako". Itxasok azaldu du trukea egin ahal izateko "funtsezkoa" dela Arrasate tentsio handiko bizi-tegi-eremu izendatzea. "Zorionez, Arrasateko Udalak laster hasiko du horretarako prozesua".

OHARRAK

Isaias Carrascori omenaldia bihar, 12:00etan

Urtero moduan, lore-eskaintza eginda gogoratuko dute, Navas de Tolosa kalean. Senide, lagun eta lankideez gain, han izango dira Eneko Andueza PSE-EEko idazkari nagusia eta Gipuzkoako Sozialisten idazkari nagusi Jose Ignacio Asensio ere. Isaias Carrasco ETAK hil zuen, 2008ko martxoaren 7an.

San Isidro elkartearen batzar orokorra

Etzi, domeka, egingo dute, elkartearen bertan. Lehen deialdia 11:30ean izango da eta bigarrena, 12:00etan.

Errezoarekin lotutako topaketa abade-etxean

Martitzenean izango da, 19:00etan, Pako Etxebeste apaizarekin.



Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeko hainbat kide, erakusketa prestatzen, eguaztenean, Kulturateko klaustroan. E.A.B.

Sendo egindako urratsak, erakusketa batean jasota

'55 urte dantzan' erakusketa inauguratuko du gaur, egubakoitza, Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeak, Kulturateko klaustroan; 18:30ean hasiko dute ekitaldia eta, besteak beste, taldearen sortzaile Marga Mercader eta Eugenio Garcia omenduko dituzte

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE *Urratsak sendo, oinak arin* lelopean urteurren berezia ospatzen ari da Txikitxu-Arrostaitz dantza taldea, eta, horren baitan, *55 urte dantzan* erakusketa jarririko dute Kulturateko klaustroan, gaurtik martxoaren 27ra arte. "Gure dantza taldeak urte luzez egindako lan guztia egongo da ikusgai erakusketan, so-

rreratik gaur egunera arte. Kasu honetan, Txikitxuk 55 urte betetzen ditu eta Arrostaitzek 35 urte", azaldu du Ane Sanchezek, taldeko kideak.

Erakusketako espazioetako batek taldearen historia kontatzen du eta gainontzeko espazioetako bakoitzak, aldiz, taldearen ekintza bat, argazkiz josita. Horrez gain, tresnak ere

egongo dira. "Dantzarako erabiltzen ditugun tresnak ikusi ahal izango dira: arkuak eta ezpatak; baita instrumentuak ere: txistuak, danborrak eta atabalak, esaterako. Izan ere, gure kasuan, txistulariak taldearen parte dira. Halaber, taldearen kartela, zintak, ikurrina eta bestelako materialak ere egongo dira", dio Sanchezek.

Hainbat jantzi ere erakutsiko dituzte: "Hainbat dantzatan erabiltzen ditugun jantziak egongo dira, zaharrak eta berriagoak; baita prakadunak eta gonadunak ere". Argazkiei dagokienez, honako hau azaldu du Sanchezek: "Historia kontatzen dugun espazioan antzinako argazkiak ikus daitezke, sorrerakoak. Bestalde, badaude urtero errepikatzen ditugun ekintzak, eta horiek ere sailkatu ditugu: Haurren Eguna, Dantzari Eguna, sanjuanak, santamasa eta abar".

Gaur egingo dute inaugurazio ekitaldia, 18:30ean, eta, besteak beste, taldearen sortzaile Marga Mercader eta Eugenio Garcia omenduko dituzte.

1970ean sortu zuten taldea

Hain zuzen, senar-emazteak izan ziren Txikitxu taldearen sortzaileak, 1970ean: "Euskal kulturarekiko maitasunetik, herriko haurrei dantzaren tradizioa erakusteko talde bat sortu zuten. Nahiz eta dantzari-familia batetik ez etorri, Margak betidanik sentitu zuen euskal dantzekiko zaletasuna, eta Eugenioren txistulari dohainak proiektuari bultzada paregabea eman zion".

Taldeari Txikitxu izena jarri zioten, kide guztiak hiruzpalau urtekoak baitziren: "Lehen partaideak gertuko familien seme-alabak izan ziren. Hogei bat haurrek osatu zuten lehen taldea, eta entseguak Bestetxeko lantegi zahar batean egiten zituzten. Hasierako urteetan, Eugeniok txistua jotzen zuen eta Margak, dantzak erakutsi. Aurrerago, Iñaki Lizarralde eta Kepa Uranga batu zitzaizkien".

Gerora iritsi zen Arrostaitz

1990. urtea mugarri garrantzitsua izan zen taldearen historian;

izan ere, aurretik taldekide izandako gazteek berriro elkartzea erabaki eta helduentzako taldea sortu zuten: Arrostaitz. "Izenak esangura berezia du: *Arrosa* Margarita Rosa Mercaderren omenez da eta *aitz*, berriz, Udaitz mendia gogorarazteko". Orduetik aurrera, bi taldeak izen bakarrean batu zituzten: Txikitxu-Arrostaitz.

190 dantzari baino gehiago

Gaur egun, 190 dantzari baino gehiago dira taldean. "Txikitxu-Arrostaitzen historia ez da urteetan egindako lanaren kontakizuna soilik; pasioaren, ilusioaren eta elkarlanaren istorioa da. 1970ean hasitako proiektu xume hura familia txiki baten ametsa izatetik herri oso baten ondare izatera pasa da, urratsak sendo eta oinak arin mantenduz".

Urriaren 18an, ekitaldi nagusia

2024an hasi zituzten urteurrena ospatzeko ekintzak: "Baserritar jantzien gaineko ikastaroa egin genuen, baita dantza ikastaroa ere. Erakusketaren ostean, Udalarekin elkarlanean, kanpoko dantza talderen bat Arrasatera ekartzea da asmoa, gure kolaborazioarekin, eta beste hainbat ekintza ere ari gara prestatzen".

Ekitaldi nagusia urriaren 18an egingo dute, Uarkapen. "Dantza ekitaldi handi bat izango da, eta taldean ibilitako hainbat dantzari eta gaur egun aktibo daudenek parte hartuko dute", nabarmendu du Sanchezek.

OMENALDI BATEKIN IREKIKO DUTE ERAKUSKETA, GAUR, ETA 27RA ARTE EGONGO DA IKUSGAI

Abiatu dute Ahoz Aho jaialdia, Celeste Abba argentinarrekin

Gaur, egubakoitza, Tarana Karim azerbaijandarraren eta Nerea Ariznabarreta eibartarraren txanda izango da

E.A.B. ARRASATE

Hamazortzigarren Ahoz Aho Ahozkotan Nazioarteko Jaialdia martxan dago, apirilaren 5era bitartean, eta Deba-goienean bederatzi saio egingo dituzte orotara. Horieta lau

Arrasaten izango dira, eta lehen eguaztenean izan zen, Celeste Abbaren eskutik, erantzun ederrarekin.

Gaur, egubakoitza, izango da bigarrena saioa, 18:00etan, Kulturaten, eta Tarana Karim azer-

baijandarra eta Nerea Ariznabarreta eibartarra ariko dira kontalari, haurrei zuzendutako emanaldian –euskaraz–.

Horrez gain, beste bi emanaldi geratuko dira martxoaren bukatu aurretik: batetik, Nicolas Lubo eta Amaia Elizagoien saioa izango da martxoaren 12an, 18:00etan, Santa Marina-ko bibliotekan; bestetik, martxoaren 20an, Pello Añorga eta Intujai Teatrorren emanaldia egongo da, 18:00etan hasita, Kulturaten eta kaleetan zehar.



Celeste Abba, eguaztenean. J.A.

Oñatiko Sukena taldea ariko da eguenean gaztetxeko oholtzan

Gaur, egubakoitza, Donostian ariko dira, eta hurrengo geltokia Arrasateko gaztetxea izango da, Kooltur Ostegunen baitan. Martxoaren 13an izango da emanaldia, 22:00etan hasita, eta sarre-za zazpi euro da. Eider eta Naia Herraiez ahizpak buru dituen taldeak pop eta rock doinuak uztartzen ditu, eta *Ahots hura* da atera berri duten singlea.

2,3 milioi euroko aurrekontua onartu dute

Udal Gobernuaren aldeko sei botorekin eta EAJren ezezko bi botorekin onartu zuten 2025erako udal aurrekontua, joan zen eguenean egindako otsaileko ohiko osoko bilkuran. 2.358.894 euroko aurrekontua da; iaz baino 105.000 euro handiagoa

Amaia Txintxurreta Guridi ARAMAIO Aramaioko Udalak 2.358.894 euroko aurrekontua onartu zuten 2025erako. Asier Agirre alkateak adierazi zuen nahi baino beranduago onartu dituztela, baina gustura daudela: "Guk nahi baino beranduago onartu ditugu 2025erako aurrekontuak. Urte bukaeran nahi genituen onartu, baina, hainbat arazorengatik –kurtso, formakuntza, langile eta beste kontu batzuegatik–, hona heldu gara. Gustura gaude; pixka bat igo da iaztik hona: %4,85. Aurten inbertsio batzuk egitea proposatzen da, eta beste batzuk, aurrekontuetan islatuta ez badaude ere, landuta daude, eta 2025a urte gogorra izango da Udalarendako".

Inbertsio nagusiak

Inbertsioetan azpimarratzekoak diren hainbat proiektu dituzte: gazteendako aisialdirako partida bat zabaldu dute, 20.000 euro ingurukoa; konpost-guneetan 50.000 euro inguruko inbertsioa egitea aurreikusten dute, bai auzoetan, baita Ibarren ere zaborren kudeaketarako konpost-guneak sortu behar dituztelako, formakuntzak egin behar direlako eta materiala erosi behar dutelako; mendi

eta ingurumen esparruan, 20 bat hektareako lurak erosiko ditu Udalak, erabilpen publikorako; eta Arrasatera bidean dagoen Añabarri baserria erosteko asmoa ere badute, bidegorria handik joango delako, bertan inbertsioak egiten hasuko. Herrian "obra txiki batzuk" ere egin behar dituzte.

Dirulaguntza batzuk, lotuta

Agirrek azaldu zuen ogasunaren eta zerbitzuen atalek aurrekontuen %90 hartzen dutela. "Egunerokotasunak jan egiten gaitu", dio. Horregatik, inbertsioetarako diru "gutxiago" egoten da. Dena den, hainbat proiektutarako dirulaguntzak izango dituzte: "Lotuta dauden dirulagun-



Aurrekontuak onartu dituzten osoko bilkuraren une bat. A.T.G.

2025eko Udal aurrekontua

Batzordeak	Gastuak €
Ogasuna-antolakuntza	853.200,00
Zerbitzuak	660.232,20
Euskara eta Hezkuntza	113.409,32
Kultura eta Kirolak	194.500,00
Mendiak-Ingurumena	274.485,29
Hirigintza-auzoak	150.250,00
Gizarte Ongizatea	102.817,41
Berdintasuna	10.000,00
GUZTIRA	2.358.894,22

ITURRIA: ARAMAIOKO UDALA

tza batzuk hauek dira: eskola inguruan biomasa-galdara egitea; Barajueneren eta Suñan obra handiak izango dira, eta horietarako ere lotuta daude dirulaguntzak; Ibaratik Arrasatera bidean dagoen Añabarri baserria, lehenengo, erosi egin behar da, bidegorria handik doalako, eta eraikin hartarako proiektu bat lantzen gabiltza, mendi-inguru-nearekin, naturgunearekin eta bertako faunarekin eta abarrekin lotutako proiektua izango dena; Torralden bertako ondarea berreskuratzeko proiektua martxan dago. Iaz azterketa egin zen, eta hori jarraitzeko beste dirulaguntza batzuen bila gabiltza".

EAJK kontra bozkatu zuten

2025eko aurrekontuen kontra bozkatu zuten EAJK, eta Alberto Amenabar bozeramaileak bi arrazoi nagusi eman zituen: "Iazko aurrekontuetan alde bozkatu genuen; izan ere, ekarpen batzuk egin genituen, baina ekarpen horiek ez dira bete. Akordio bat zegoen EH Bilduren

eta gure artean, eta, ez denez bete, ezin dugu jarraitu konfiantza hori ematen. Hori, alde batetik. Bestetik, bi egun bakarrik izan ditugu aurrekontuak ikusteko eta ekarpenak egiteko; orduan, uste dugu ez dela bidezkoa".

Beste kontu batzuk

EAJK hitza hartu zuen osoko bilkuran, eta kultura etxeko zerbitzua eskaintzen duen Ostadar enpresari eta Aitor Larrañaga teknikariari buruz jardun zuten: "Ostadar enpresako langile biek Udala salatu zuten, eta ikusi dugu nola aurkeztu den eurak agertzen diren eragozpen-txosten bat. Ostadar dago hemen kontratatuta 2010etik, baina 2014tik daude kontratu gabe zerbitzua ematen, eta ez dauka inongo euskarririk. Ez euren, ez Aitor Larrañaga teknikariak ere, 2018tik kontratu gabe dagoelako. Eta hainbat eta hainbat daude. Hori ez da kudeatzeko bidea". Alkateak esan zuen "horiek Udalean hobetu beharreko gauzak" direla.

M8

Etxebizitzarako eskubidea eta zaintza partekatua aldarri

Talde feministak eta Iturzurik herritarrekin batera osatu dute egitaraua; 12:30ean, iturri-poteoa egingo dute

A.T.G. ARAMAIO

Elkarrekin Aramaixo bizi eta ekofeminista eraikitzen lelopean dei egin dute talde feministak eta Iturzurik biharko, Martxoak

8, prestatu dituzten ekintzetan parte hartzera. 10:30ean, sormen tailerra izango da kultura etxean, aldarrikapenekin herria apaintzeko, eta, ordu berean,

jubilatuaren elkartean *Zaintza eta harreman sareak* eta *Etxebizitza aukerarik gabe, harremanik ez* gaiei buruzko gosari-tertzulia egingo dute. 12:30ean, iturri-poteoa egingo dute, herriko hainbat iturri bisitatzeko, eta, ondoren, ekitaldi nagusia plazan egingo dute. Bazkalostean, 17:00etatik aurrera, Sastiñan karaokea, musika eta dantza izango dituzte, eguna borobiltzeko.

Kuadrilla Artekoaren bigarren finalerdia jokatu da domekan

Arabako Bertso Kuadrilla Arteko Txapelketaren bigarren finalerdia hartuko du Aramaioko herri eskolak, etzi, domeka. 12:00etan, Arabako Errioxako Txandrio taldea eta Aramaioko Izena Pentsau Bida 2 taldea lehiatuko dira. 14:00etan, bazkaldu egingo dute; eta 16:30ean ekingo diote bigarren saioari, Gasteizko bi talde hauek: Pint-

to Pintto eta Inkostantinkoplan Potoz Poto. Ondoren, bi saio horietako irabazleak lehiatuko dira eta bertako talde irabazlea apirilaren 5ean Gasteizko finalerako sailkatuko da.

Bestetik, aurreko egubakiotzean lehiatu zen Aramaioko Bañera FT taldea, Narbaxan jokatu zen lehen finalerdian, eta aramaioarrak ez dira sailkatu finalerako, saio hura Lautadako 4 Gara taldeak irabazi baitzuen. Aramaioko Taluek taldearen txanda hilaren 23an izango da.

M8

Aldarrikapenak kalera ateratzeko deia biharko

Mobilizazioa izango da bihar, Aretxabaleako Mugimendu Feministak deituta, eta Gazte Feministek egun osoko egitaraua iragarri dute; horiez gain, liburu aurkezpenak eta hitzaldiak izango dira datozen egunetan, eta liburutegian hainbat txoko egokitu dituzte

Mirari Altube ARETXABALETA

Martxoaren 8aren bueltako aldarrikapenak kalera aterako dituzte bihar, zapatua, herriko feministek. Manifestazioa 18:30ean abiatuko da, Herriko Plazatik, eta harekin bat egitera deitu dituzte herritarrek. Gazte Feministek ere bat egingo dute horrekin, baina ekitaldiei eguerdi partean ekingo diete: 13:00etan topa egin, eta argazkia aterako dute; 14:30ean, *Zuk in, zuk jan!* bazkaria eta tertulia izango dituzte; eta 18:00etan, batukadarekin kalejira. Gauetan borobilduko dute eguna, jai giroan, pintxada kolektiboari ekinga 22:00etan.

Horiez gain, domekan, Aretxabaleako Mugimendu Feministako kideek bat egingo dute Bergaran egingo den Emakumeen Mundu Martxaren nazioarteko ekintzarekin (Ikus 20. orria).

Bi txoko liburutegian

Bestetik, Udal liburutegian bi txoko egokitu dituzte Martxoaren 8a gai hartuta: bata umeen gunean eta bestea helduenean. Azken horren izenburua *Emakumea eta bidaia* izango da, eta, hain zuzen, horri lotuta, Josune Murgoitio idazleak (Arrasate, 1985) *Leer*



Ume bat liburutegian, Martxoaren 8ari eskainitako txokoa. MIRARI ALTUBE

para viajar sin moverse de casa hitzaldia egingo du martxoaren 19an, 18:00etan, Arkupeko bigarren solairuan. Emakumeek egindako bidaien eta idatzitako liburuen berri emango du *Destino Estambul* eta *Lo que sucedió en Turquía* eleberrien egileak.

Jabekuntza Eskolako ekitaldiak

Udaleko Berdintasun Sailak antolatutako II. Jabekuntza Eskolaren egitarauak jarraipena izango du martxoan. Uxue Al-

berdi Estibaritz (Elgoibar, 1984) idazlea gonbidatu dute azken liburua aurkeztera: *Hetero*. Martxoaren 12an, eguaztena, 18:00etan izango da, Arkupeko Zeraia aretoan. Oihana Arana Cardenal bertsolari eta idazle eskoriatzarra izango du tertuliakide.

Eta martxoaren 26an, 17:00etan, *Hileroko zikloa berrezagutzen* tailerra egingo dute, Idoia Sanchez Garcia hilekoan espezializatutako erizainak (Xarma) gidatuta.



Ahalduntze kolektiboa

MALENA GONZALEZ ALTUNA BERDINTASUN TEKNIKARIA

Jendarte indibidualista eta atomizatu honetan indibidualismotik kolektibora salto egiteko beharra dago. Argi dago norberaren ahalduntzea oso garrantzitsua dela, baina ezin gara hor gelditu; emakumeok eta *kuir*-ok, besteak beste, ahalduntze kolektiboa behar dugu. Zapalkuntza partekatua den heinean, horren inguruko lanketak eta erantzunak kolektiboa izan behar du.

Badakit, agian, honek oso abstraktua dirudiela; beraz, hemen adibide batzuk: espazioak berreskuratzea, saretzea, espazio seguruak sortzea, ahizpatasuna lantzea eta indartzea, intersektionalitatea lantzea... Horrekin ez dut esan nahi guztia guk egin behar dugunik —ezta pentsatu ere—; nire helburua ez da lan gehiago ematea, ahalduntzearen garrantziaz ohartaraztea baizik.

Martxoaren 8a bezalako egunek saretzeko eta ahalduntze kolektibo horri ekiteko aukera paregabea ematen digute. Baina, gogoratu, lanketa ezin dugu egun esanguratsuetara soilik mugatu, egunerokotasunean aldaketak eta iraultza txikiak egin behar baititugu.

Oihana Mata Oianguren aitortza

Bederatzigarrenez egingo dute Aresko martxa, domekan. Oraingoan, Eskoriatzako plazatik abiatuko dira, 12:00etan, eta Aretxabaleako Herriko Plazan bukatuko dute *Emakumeok bidea eraikiz* leloa duen ibilaldia. Aurten ere izango dira omenduak: Eskoriatzan Arguiz ahizpak eta Aretxabaletan Oihana Mata Oianguren.

Pilotan diharduten emakumeentzat erreferente izan da Mata Aretxabaletan. Eskoriatzako baserriko paretetan hasi zen pilotarekin jolasean, eta, ondoren, Iturrigorri pilotalekura egin zuen jauzi. 10 urterekin hasi zen jokatzeko; ez zebilen neskarik horretan. Pilotaren bueltan jardun du ordutik hona, eta Aretxabaleako emakumeen frontenis txapelketaren antolatzailea da.



Oihana Mata Oianguren. ARESKO

Ixadebalde egingo dute gaur, negu sasoiko produktuekin

Durana kale barrenean elkartuko dira Aretxarte elkarteko zazpi dendari merkealdien azoka egiteko

M.A. ARETXABALETA

Egun bakarrean egingo dute Ixadebalde merkealdien azoka Aretxarte merkatarien elkarteko kideek. Gaur, egubakoitza, Herriko Plazaren beheko partean, Durana kalean jarriko dituzte

postuak, 10:00etatik 19:00etara bitartean. Zazpi dendak egin dute bat aurtengo lehenengo azokarekin; honako hauek: Tinta Beltza, Asensio, Kilima, Hankabeltz, Belar Meta, Tak eta Almila Shop.

Arropak eta gehiago

Udazken eta neguko produktuak aterako dituzte kalera gehienek, eta prezio merkeagoan jarri herritarren eskura, besteak beste, oinetakoak, arropak eta osagarriak. Horiez gain, eskolarako materiala ere egongo da, baita jatekoa eta edatekoa ere produktu iberikoak dituen urdaitegiak.

Gainera, gaur, erosketak egiten dituzten herritarren artean 50 euroko sei bonu zozketatuko dituzte Aretxarteko kideek, zeroak eskertze aldera.



Arropak Ixadebalderako prest. M.A.

Corrado Massatiren txotxongiloak ikusgai, astelehenean hasita

Irudimenarekin jolasten izena duen txotxongilo erakusketa izango da Arkupen, astelehenean hasi eta martxoa bukatu bitartean. Italian jaiotako Corrado Massati artista ezagunak egindako azken lanak daude ikusgai, irudimenari jolas egiten utzita sortutakoak; besteak beste, robotak, estralurtarrak eta pertsonaia bitxiak.



Kale animazioaren saria irabazi zuen kuadrilla, gurutzearekin, Herriko Plazara bidean. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO ETA MIRARI ALTUBE



Saria jaso zuen Aresurf kuadrilla.



Saritutako Mercury eta Caballe.



Kintoak Txinen zerraldoarekin.

Sekulako giroa, "lekurik ez duten gertakariekin"

Aurtengo Aratusteeke ere erakutsi dute irudimena dantzan jarri dutela herritarrek, kaleak kolorez beteta. Hala ere, jai ilundu duen gertaerarik ere izan da; esaterako, musika "bolumen altuan" egon zen ordu txikiak arte eta bost edukiontzi erre zituzten

Mirari Altube ARETXABALETA

Herria gurutzatu zuten karrozkek girotu zituzten kaleak domekan, eta jatorri askotariko moztarroak ikusi ziren: australiarrak, amerikarrak Trump presidentearekin, brasildarrak mordoa, arrasatearrak... Mendietatik eraitsitako gurutzeak -hainbat, gainera- pilatu ziren herrian, Frantziako Tourraren etapa pasatu zen bertatik eta historiaurreko gizakiek ere parte hartu gura izan zuten festan.

Jai giroari balioa eman dio Udal Gobernuak, baina "lekurik ez duten gertaerak" ere izan dira; horien artean dago bost edukiontzi erre izana Ilargi plazan: "Onartezina da, eta guztiz arbuigarria". Eta 10.000 euroko kostua dakarrela jakinarazi du.

Bestalde, argitu gura izan du kalean egiturak jartzeko baimena eskatu beharra dagoela, eta kuadrilla batzuek ez zutelako egin: "Baimenik eskatu ez eta ordu txikiak arte musika bolumen oso

altuan izan zuten". Elkarbizitzaren aldeko dei egin du, eta neurriak hartuko dituela adierazi. Era berean, jakinarazi du udaltzain zerbitzurik ez dagoenean, gauean, esaterako, Ertzaintzarekin hitzartuta duela zerbitzua: "Hortaz, 112 zerbakira deitu behar da".

"Garbitasuna zaintzeko ahalegina" egiten ere badihardu Udalak: "Lehenengoz, garbitzaileen txanda bat sartu zen lanera bazkalostean, eta igarri egin zen. Jaietan komunak jartzea ere badugu buruan".



Sandra Remon eta Ibai Zangitu antolatzaileak, aurkezpenaren une batean. J. MURUA

Badator 'Argazkia.eus' lehiaketaren bigarren aldia

Euskal Herriko II. Argazki Topaketa maiatzean izango da; lanak aurkezteko epea zabalik dago, martxoaren 30a arte

M.A. ARETXABALETA

Iazko urrian egindako lehenengo argazki topaketak izan zuen "arrakasta" aintzat hartuta, *Argazkia.eus* lehiaketaren bigarren aldia iragarri dute. Gasteizko Jardin Remoto ekimenak eta Udalak antolatu dute oraingoan ere, eta kutur zinegotzi Ibai Zangituk horren arrazoia adierazi du: "Euskal Herriko sortzaileei tokia egitea eta espazio berriak sortzea oso garrantzitsua da, eta lehenengoak izan zuen harrera ona ikusita dator bigarrena". Jardin Remotoko kide Sandra Remonek nabarmendu du argazkilaritza "gorakadan" dagoela eta, argazki soilak ez ezik, askok "argazki proiektu handiak" egiten dituztela.

4.000 euro saritan

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek martxoaren 30a baino lehen bidali beharko dituzte

lanak, karpeta batean, honako hauek jasota: proiektuaren hogeigarren argazki solte; proiektuari buruzko argibideekin dokumentu bat; curriculum artistikoaren dokumentua; eta Euskal Herrian jaio edo bizi dela ziurtatzen duen agiria. Karpeta hori bidali beharko da *argazkia.eus@gmail.com* helbidera.

Antolatzaileek apirilaren 7an emango dute irabazleen berri, eta haiek maiatzaren 10ean aurkeztuko dituzte proiektuak, Arkupeko Zeraia aretoan; erakusketa ere jarriko dute orduan.

Iaz legez, zortzi lan sarituko dituzte: Aretxabaleako proiektu onena, Gipuzkoakoa, Arabakoa, Bizkaikoa, Nafarroakoa, Lapurdikoa, Nafarroa Beherekoa eta Zuberoakoa. Aurten, berrikuntza gisa, irabazle bakoitzak jasoko duen zenbatekoa 500 eurora igo da; beraz, 4.000 euro banatuko dituzte, guztira.

Bola-txapelketa egingo dute bihar, Uratz Alde antolatuta

Uratz Alde elkarteak antolatutako bola-txapelketa irekia jokatuko dute bihar, zapatua, 22:30ean hasita. Lehenengo bostek jasoko dituzte sariak: 100 euro, 75 euro, 50 euro, 30 euro, eta 20 euro, hurrenez hurren. Elkarteko lehenengo bazkideak txerriaren besoa jasoko du. Aretxabaleako txapelketen sailkapenerako puntuagarria izango da.

Euskaraldiaren batzordeak bilera egingo du eguenean

Euskaraldiaren bueltako batzordea osatu eta lanean hasteko lehenengo bilera deitu dute datorren eguenerako, hilaren 13rako; 18:00etan izango da, udaletxe zaharrean. Ateak zabalik dituzte interesa duen edonorendako. *Elkar mugituz egingo dugu* da euskararen erabilera aktibatze mugimenduaren aurtengo leloa.

M8



laz Martxoaren 8an egindako manifestazioa, Fernando Eskoriatza plazatik atera berri. IMANOL BELOKI UNAMUNO

Aldarrikapenerako eta festarako eguna bihar

Egun osoan izango dira ekintzak zapatuan herrian, eta azpimarratzekoa da 'Faxismoaren kontra, ausardia eta aliantza feministak!' lelopean egingo duten manifestazioa; hain zuzen ere, 18:30ean hasiko da, Fernando Eskoriatza plazan

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Eskoriatzako talde feministek elkarlanean egun osoko egitaraua antolatu dute biharko, Martxoaren 8a.

Adinekoak eta immigranteak

Hori horrela, 10:00etan izango dute lehenengo hitzordua, kultura etxean. Gosari-tertulia bat egin nahi dute, eta, herritar guztiei zuzendutako ekintza den arren, adineko jendea animatu nahi dute, bereziki, hitzordu horretara. "Adineko emakumeekin kontu-kontari aritzeko hitzordua izatea nahi dugu, bereziki. Hori da helburua", adierazi du Lore Diaz de Gereñuk, Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeko kideak. Gero, haurrentako tailerrak egongo dira, kontzejupean, 11:00etatik aurrera; 6 eta 12 urte bitarteko haurrentzat. Kasu horretan, emakume immigranteengan eragin nahi dute. "Txirikila Aisialdi Elkartekoak izango dira tailerrak bideratzen, eta, denentzat izan arren, gure buruan dago

emakume immigranteak erakaritzea haurren bitartez. Haurrak eskolan daudenean elkartzen dira, baina lagundu egin behar diegu parte har dezaten".

Azoka, bazkaria eta aldarria

Azoka ere egongo da Fernando Eskoriatza plazan, eta, guztira, hamabi postu jarriko dituzte. Gehienak eskoriatzarrak izango dira, baina bailarako beste hainbat emakume sortzaile ere batuko dira azokara. Artisautzalanak eta janaria ere egongo dira. Ondoren, mahaiak eta aulkiak jarriko dituzte Fernando Eskoriatza plazan bazkaldu nahi dutenentzat. *Zuk in, zuk jan* bazkariaren ostean, Arantzazu Idigoras eta Miren Gereñu gi-

GOSARI-TERTULIAN ADINEKO EMAKUMEAK NAHI DITUZTE KONTU KONTARI ARITZEKO

tarrarekin arituko dira. Bazkalostean arituko dira, kantuan ari gaitezen denok, oholtzara igo barik". 18:30ean, berriz, manifestazioa egingo dute, herriko kaleetan zehar. "Horiek izango dira egunerako prestatu ditugun ekintzak, baina domekan, Bergaran Emakumeen Mundu Martxaren seigarren nazioarteko ekintzari hasiera emateko, bailara mailako ekintza izango da: *Gerra eta kapitalismoaren aurka martxan*. Bertan parte hartzeko eskaera ere egin nahi diegu herritarrei", adierazi du Diaz de Gereñuk.

Osoko bilkuran hizpide

Otsaileko osoko bilkuran ere izan zuten hizpide Martxoaren 8a; EH Bilduk aurkeztutako mozioa onartu zuten. "Martxoaren 8a, ospakizun eguna izateaz gain, orain arte egindako lana aitortzeko eguna ere bada. Gure aldetik, 2024an Berdintasun Diagnostikoa egin da, eta 2025erako hartzen dugun konpromisoa da

Berdintasun Plana egitea. Horrekin batera, talde feministek antolatutako ekitaldietan parte hartzea gonbidatu nahi ditugu herritarrek", adierazi zuen Irati Iglesiasek, EH Bilduko Berdintasun Saileko zinegotziak. Oposizioak, bestalde, ez zuen bat egin EH Bilduk aurkeztutako proposamenarekin. "Ez dugu EH Bilduren idazkia babestuko. Urtero egin den bezala, Eudeletik etorritako mozio bateratua- ren alde egiten dugu; alderdi guztiek han onartu dute, eta hemen Eskoriatzan EH Bilduk ez du proposatu, gure harridurararako. Uste dugu berdintasunarekin politika partidista egin nahi dutela", adierazi zuen Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako Alderdi Jeltzaleko bozeramaileak.

Aresko martxa domekan

Martxoaren 8az gain, emakumea eta kirola indartzeko eta ezagutarazteko Aresko martxaren zarpigarren edizioa izango da domekan. 11:00etan, aurtengo ediziorako egin dituzten kamiseta berriak banatuko dituzte. 11:55ean, omenaldia jasoko dute Haizeder eta Nahia Arguiz Vita eskoriatzarrek, gimnasia erritmikoan egindako lorpenengatik. 12:00etan, berriz, oinezko martxa hasiko da, Eskoriatzatik Aretxabaletara, eta plazan Oihana Mata aretxabaletarrak jasoko du omenaldia, emakumeen pilotan erreferentia izateagatik.

Haurtxotekaren aurkezpena eta Altzo jolasean saioa gaur

Gaur, egubakoitza, 17:30ean, Eskoriatzako bibliotekako 0 eta 6 urte bitarteko haurrei zuzenduta dagoen haurtxotekako gune berria aurkeztuko dute. Eremua atonduta, *Zer da haurtxoteka?*, *Norentzako da?*, *Nola erabili?* eta halako galderei erantzuna emango diete. Ondoren, altzo jolasak egingo dituzte, Maier Etxebarriaren eskutik.

Gerrigardo-k Xabatu artisau-garagardoa aurkeztuko du

Xabatu izeneko glutenik gabeko artisau-garagardoa aurkeztuko dute gaur Eskoriatzako Gerrigardo egitasmo kideek, 19:00etan, Inkernun. Elkarlanean egindako produktua da, eta, hala, Irungo Higer garagardotegikoekin batera egingo dute aurkezpena. Ekitaldia musikarekin girotzen izango dira, gainera, Leire eta Dorleta eskoriatzarrak.

Berbalagunek Gurasolagun txangoa egingo dute domekan

Eskoriatzako Berbalagun taldeak antolatuta, Torreasoko parkera irteera egingo dute domekan. 11:00etan irtengo dira, Fernando Eskoriatza plazatik, eta asmoa goiz-pasa egitea da, hamaitakoa jan eta herrira bueltatzea. Oinez edo bizikletaz joateko proposamena egin dute, eta euskaraz komunikatzeko gai izatea beharrezkoa dela adierazi dute.

ION ANDER CASTRO ZABALA

Era guztietako aulkien konponketa
Zumezko artikuluen salmenta

TAPIZERIA OROKORREAN

943 78 71 65
639 01 69 69

Geotermia sistema ezartzeko lanak, hasita

Ibarraundi museo alboan hasi dituzte lehen faseko lanak. Eredu horretan zundaketa lanak egingo dituzte, gero hodiak Luis Ezeiza Herri Eskolara eta Manuel Muñoz kiroldegira bideratzeko. Lehen faseko lanak egiteko hiru hilabete beharko dituzte

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Manuel Muñoz kiroldegia eta Luis Ezeiza Herri eskola geotermia sistemaz hornitzeko lanak hasi dituzte. Lan horiek Ibarraundi museoaren eta kiroldegiaren artean egingo dituzte, eta luze joko dutela aurreratu du Eskoriatzako Udalak. Hain zuzen ere, zortzi hilabete behar izango dituzte la aurreikusitako dute, eta lehenengo faseko zundaketa lanak –hiru hilabeteko lanak– dagoneko hasi dituzte.

Kontsumoa murrizteko asmoz

Energia geotermikoak lurraren barruko beroa erabiltzen du elektrizitatea, ur beroa eta berokuntza lortzeko. Hala, Eskoriatzan instalatzen ari diren sistema horrek 36 zundaketa-zulo izango ditu, kiroldegia eta Ibarraundi inguruan egingo direnak, eta klimatizazio-sistema urbano baten bitartez bi eraikinetako galdara-gelan egongo diren ur beroa ponpetara konektatuko da. Obra horrekin, ekoizpen termikoari lotutako energia primario ez-berritzagarriaren kontsumoa %52 murriztuko da berokuntzan, eta energia berriztagarrien %58ko ekarpena egingo da berokuntzan eta ur-beroan.



Ibarraundi museoaren eta kiroldegiaren arteko lanak hasi berri. IMANOL BELOKI

Molestiak eta zaratak

Lortutako onurak asko izango diren arren, obrak irauten duen bitartean molestia batzuk ere eragingo ditu; batez ere, lehenengo fasean, zundaketa lanak egingo baitira. Zundaketak egiteko 150 metroko perforazioak egin beharko dira, eta horrek, zarata handia eragiteaz gain, lur azpiko hautsa eta zikina aterako ditu. Zundaketa lanak hiru bat hilabetean arituko dira egiten; 08:00etan hasi eta 19:00ak arte. 19:00etatik aurrera obran lanak egiten

jarraitu ahal izango dute, baina ez zundaketa lanak egiten.

"Hamar egun lan eta lau egun jai izango dituzte bertako langileek, asteburua barne. Hiru hilabetean amaitu nahiko ginituzke lehenengo faseko lanak, eta, posible bada, lehenago. Hala ere, lurraren egoera ikusi behar da. Estimazio bat izan arren, ikusteko dago. Hala, lanek eragingo dituzten zaratengatik pazientzia eskatu nahi diet bertako bizilagunei", adierazi du Edorta Zubizarretak, Eskoriatzako alkateak.

Hartza ere, festaren parte

Mozorroek eta askotariko pertsonaiek hartu zituzten Eskoriatzako kaleak Aratusteetako martitzenean. Inauterietako ohiko dantzez gain, *Nasteborraste* dantza egin dute bigarrenegoz; Eduardo Gorosarri konpositore eskoriatzarraren piezarekin sortutako dantza. Aurten, gainera, Hartza pertsonaia lehengo aldiz irten da festara.



JOSU BILBAO

M8



Iaz, Gure Ametsa jatetxean bazkaltzeko batutakoak. SORGINAK EMAKUME ELKARTEA

Urtero bezala, elkarrekin bazkalduko dute Sorginek

25 lagun batuko dira bazkaltzeko; bazkalostea musikaz girotzen, berriz, Leire eta Dorleta arituko dira

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA Martxoaren 8rako ekintzak antolatu dituzte Leintz Gatzagako Sorginak Emakume Taldeko kideek. 12:30ean batuko dira, plazan, poteoa egiteko, eta, ondoren, Gure Ametsa jatetxean bazkaria egingo dute, 13:30ean. 16:30etik 18:30era, berriz, Leire eta Dorleta trikitilariak izango dira bazkalostea girotzen, erromeria kantuekin.

Adin askotarikoak batzeko

Rosa Urreta Leintz Gatzagako Sorginak Emakume Elkarteak kideak azaldu duenez, urteroko

hitzordua da Martxoaren 8aren bueltan Gure Ametsa jatetxean bazkaria egitea. "Adin guztietakoak mahai-inguruan batzeko denok gaude osasunez ondo; beraz, primerako hitzordua izaten da gazte eta adinekoak zein tartekoak batzeko eta egun ederra pasatzeko. 25 lagun inguru batuko gara, beste urte batzuen antzera, eta gero, musika izango dugu bazkalostea girotzeko. Gainera, martxoaren 29an, zapatua, Baionara egin nahi dugun irteerara jendea anima dadin ere aprobetxatuko dugu hitzordua".

Itzal Zubillagaren 'Sustraiak' argazki erakusketa Huhezin

Itzal Zubillaga gatzagarraren *Sustraiak* izeneko argazki erakusketa martitzenetik dago ikusgai Huhezin fakultatean, eta gaur arte egongo da zabalik, 08:00etatik 18:00ak arte. Lanak haren ikuspuntutik "nondik gatozen" azaltzen duela dio argazkilariak. "Erakusketa bisuala da, argazkiak daude, baita ukitzeko elementuak ere. Huhezikoekin elkarlanean egindako lana da, eta QR bat jarri dugu, bideo batera bideratzen duena, baserrietako pertsonekin egindako elkarriketekin, nik egindako abesti bat dago... Hala, erakusketa osatzeko asmoz", adierazi du argazkilari gatzagarrak.

OHARRAK

Lore Eguna domekan

Zuhaitz Egunean, loreontzietako loreak Museoko Dorlapera transplantatuko dituzte, eta berriak jarri loreontzi horietan, 10:30ean, plazan.

Herri batzarra

Herri txikien mugikortasuna aztertzeko batzarra egingo dute, martxoaren 14an, 17:30ean, liburutegian.

Auzolana kanposantua

Martxoaren 15ean batuko dira gatzagarrak, kanposantuko bideko lanak auzolanean konpontzeko, 09:00etan hasita.

M8

"Justu-justuan kokatzen dugu zoru pelbikoa"

MARIÑE ETXANIZ CUESTA ETA OLATZ ABASOLO ITURBE FISIOTERAPEUTAK
Zoru pelbikoaren kontzientziazioan eragin beharra dagoela uste dute, "gizartean, oro har, ezezaguna" dela iritzita. Horretarako, jarraibide batzuk emango dituzte bihar

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarría ANTZUOLA

Fisioterapeutak dira Mariñe Etxaniz (Antzuola, 1996) eta Olatz Abasolo (Antzuola, 1997), eta *Gure gorputza ezagutzen: zoru pelbikoa eta diafragma* tailerra egingo dute bihar. Izena eman dutenei esterilla eta arropa eroso eramateko eskatu diete.

Zer behar identifikatu duzue tailer hori egiteko?

Mariñe Etxaniz: Batik bat zoru pelbikoa lantzen duen zentro batean dihardut lanean, eta ohartu naiz jendeak ez duela horren berri; agian, asko hitz egiten dela haurdunaldiaren bueltan, baina hortik kanpo ez dagoela. Kontzientzia hartu beharko genuke: denok dugu, eta landu beharreko gorputzeko atal garrantzitsu bat da.

Olatz Abasolo: Gizartean, oro har, ez dugu ezagutzen, justu-justuan kokatzen dugu. Erreminta sinple batzuk planteatuko ditugu horretan laguntzeko.

Zer jakin behar da zoru pelbikoaren inguruan?

M.E.: Zona genitalean kokatzen den gihar multzo bat da, eta emakumeen artean tabu izaten jarraitzen du. Funtzio inportante batzuk ditu: esaterako, gernu inkontinentzietan-eta garrantzi handia du; horrez gain, prolapsok gerta daitezke, bertan biltzen diren organoen jaitsiera bat gertatu delako, eta horrek mina eta ezinegona eragin lezake; sexu-harremanetan ere badu eragina, mina eragin lezakeelako zoru pelbikoko ahulezia bateg. Egunerokotasunean eragina du zoru pelbikoak.

O.A.: Gainera, disfuntzioren bat izanez gero, beldur handia ematen digu, ezjakintasun horrek sustoa handia ematen duelako. Zuntz-haustura bat gertatuz gero fisioterapeutarengana jo behar dugula badakigu, baina, askotan,



Mariñe Etxaniz eta Olatz Abasolo fisioterapeutak, asteon, Antzuolan. A.R.K.

zoru pelbikoko arazo baten aurrean ez dakigu zer ari den gertatzen, nahiz eta kasuak ez izan horren ezohikoak.

M.E.: Funtsean, kontzientzia hartzea da, jakitea badagoela bidea hori begiratzeko, tratatzeko edo informazioa eskuratzeko.

Batez ere, emakumeengan?

M.E.: Bai. Gizonek ere badute zoru pelbikoa, eta inportantzia du gernu-inkontinentzietan, batik bat, baina disfuntzio aldetik emakumeengan arazo gehiago gerta daitezke, dugun anatomia kontuan hartuta.

Nola landu daiteke?

O.A.: Gidaritzapean egitea garrantzitsua da, arazoren bat izanez gero profesionalekin identifikatzeko eta horretarako bidea indibidualizatua izateko. Halere, tailerrean gehiago zentratuko gara kontzientziazio kolektiboan: denok dugu, denoi funtzionatzen digu modu batera edo bestera. Normalitate hori kokatu nahi dugu gerta daitezkeen disfuntzioak bideratzeko.

M.E.: Jarraibide batzuk emango ditugu disfuntziorik edo alteraziorik ez duen jendeak landu ahal izateko.

Zeintzuk dira jarraibide horiek?

M.E.: Lehenbizi, jakitea zoru pelbikoa non dagoen eta nola uzkuartzen den, eta gero, arnas-ketarekin lantzea; horregatik landuko dugu diafragma, eragin handia duelako. Arnasketa eta uzkuartzea mugimenduan integratuko ditugu, egunerokotasunean aktibazioa lortzeko.

Bada lotura diafragmaren eta zoru pelbikoaren artean, beraz.

O.A.: Zoru pelbikoa ezin daiteke ulertu diafragmarik gabe, lan asko egiten baitute batera. Funtzio baten barruan integratuz gero, batera doaz.

Bihar eta etzi, ekintzak

Andramanuelak talde feministak eta Udalak antolatuta dute tailerra, baina ez da ekintza bakarra: bihar, mobilizazioa egingo dute, 19:00etan, Herriko Plazan; etzi, *Tera Pia* antzezlan izango da, 18:30ean, Torresoroan, Lorena Arangoarekin.



Antiguako ermita, asteon. A.R.K.

Antiguako ermitaren lanetarako, herritarren laguntza eske

Erreteila konponduko dute, eta barrua pintatu; 73.286 euroko aurrekontua zehaztu dute lan horiek egiteko

A.R.K. ANTZUOLA

Antiguako ermitak "konponketa sakona" behar duela ohartarazi du Antiguako ermitako obra batzordeak, eta bi zeregin zehaztu dituztela: "Lehenik, kanpoko aldeari ekingo diogu, erreteilarri. Ez dago egoera oso onean teilatua, geroz eta nabarmenagoak dira itoginak, eta teilatua zurezko egituraren egoera kaxkarrean daude egur ugari, lehen baino lehen aldatu behar direnak. Ostean, barrua pintatzeari ekingo diogu".

73.286 euroko aurrekontua zehaztu dute lan horiek egiteko -64.378 eurokoa da erreteilarrena eta 8.908koa pintaketarena-, baina herritarren laguntza behar dute: "Obrak sortuko dituen gastuak ordaintzeko nahi beste diru ez daukagu, eta zuen beharra dugu zuloak estaltzeko. Beraz, ahal den neurrian, diru-ekarpena eskertuko genuke".

Horretarako, ES68 2095 5070 7110 6516 7016 (Kutxabank) eta ES15 3035 0040 19 0400005236 (Laboral Kutxa) kontu korronteak jarri dituzte herritarren eskura, eta erantsi dute ondare artistikoari zuzendutako ekarpenek %30eko desgrabazioa dutela errenta aitortzen.

Atzean, herritarrek

Herritar talde bat orain dela hiruzpalau hilabete hasi zen elkartzen, Antiguako ermitaren egoeraz jabetuta; ordutik, egin beharreko lanen diagnostiko bat egin dute, eta, aurrekontuak eskatzeaz gain, dirulaguntzak lortzeko bideak landu dituzte. "Sentsibilitate askotariko herritarrok osatzen dugu obra batzordea, baina interes komuna dugu: egoera fisiko larrian dagoen herriko ondare kulturala den Antiguako ermitaren etorkizuna ziurtatzea".

Kalakan taldearen kontzerturako sarrerak salgai daude

Udalak antolatuta, Kalakan musika taldearen kontzertua izango da martxoaren 23an, domeka, Torresoroan, 18:00etan, eta sarrerak salgai daude *Entradium* plataforman: ohikoak 15 euroko prezioa du eta gazteenak eta ikasleenak, berriz, 10ekoa.

2009an sortu zuten taldea, Nafarroa Beherean, eta Jamixel Bereau eta Xan Errotabehera

musikariek osatzen dute. Kantu herrikoien moldaketa minimalistak egiten dituzte, perkusioarekin, eta *Ahotsez* da kaleratu duten azkeneko diskoa. "Eszenaratze soil batean, Kalakanek entzuleak eta musikariak biltzen ditu, musikak ematen dituen sentazioen inguruan", adierazi dute musikariek, "iraganaz harro eta errespetuz beteak, etorkizunari osoki zuzenduak" dardela erantsita: "Milaka urteko kulturaren modernitatea orainean idaztea helburu".

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Larraitz Zeberio DEBAGOIENA

Urteko hirugarren hilekorako nahiko lukete zabaldu Aretxabaletako Txoko Feminista. Gaur egun ambulatorioa dagoen lekuan kokatuko dute, eta, eragile feministekin batera egiten ari diren parte hartze prozesuko bi fase egin ostean, hirugarrenari ekingo diote berehala.

Oñatin 2026rako nahiko lukete zabalik Kale Zaharreko 13. zenbakian kokatuko den Emakumion Etxia. 2022. urtean hasi ziren parte hartze prozesuarekin, eta, bien bitartean, martxan dira eraikina berritzeko lanak. Etxea ireki aurreko urte hau antolaketan moldeak probatzeko baliatuko dute. Sei bat pertsona inguruko bost lantalde dituzte antolatuta eta "oso erritmo bizian ari dira lanean".

Bergararen kasuan, berriki aurkeztu dute Arrizuriaga jau-regiko bigarren solairuan zabalduko den Emakumeen Txokoa irudikatzen parte hartze prozesua. Irailera arte irautea aurreikusten dute eta eguenean, martxoak 13, emango diote hasiera, herritar guztiei zabalik dagoen mahai inguru batekin; *Zertarako nahi dugu Bergarako Emakumeen Txokoa?* du izenburua eta hiru aditu arituko dira. Ondoren, beste bost gogoeta saio izango dira.

Emakumeen ahaldunderako etxeak edo txokoak mugimendu feministaren urteetako eskaera dira. Arrasateko Emakume Txokoa erreferente da Euskal Herrian, baina Debagoieneko bakarra izan da hamarkada luzez.

Aretxabaletako, Bergarako eta Oñatiko proiektuak zertan diren jakiteko, bertan elkartu ditu hiru herrietako Berdintasun teknikariak GOIENAK.

Malena Gonzalezek (Aretxabaleta), Yenifer Garciak (Bergara) eta Jone Arriolabengoak (Oñati) egitasmo bakoitzaren nondik norakoak azaldu dituzte. Premiazkotzat jotzen dituzte



Yenifer Garcia, Jone Arriolabengoa eta Malena Gonzalez; Bergarako, Oñatiko eta Aretxabaletako Berdintasun teknikariak. L.Z.L.

Hiru emakume etxe zabaltzear Debagoiengan

Feministen urteetako eskaerari emango diote laster erantzuna Aretxabaletan, Bergaran eta Oñatin, eta herri bakoitzak bere emakume etxea izango du. Kokapenak erabakita daude. Parte hartze prozesuetan ari dira kudeaketa eredua definitzen

emakumeen ahaldunderako espazioak zabaltzea, eta "ilusio handia" sumatzen dute parte hartze prozesuetan parte hartzen ari diren eragileen eta norbanakoen artean. Prozesu gehienek luze jo dute, baina ilusio hori mantendu egin da.

"SAREZKO ESPAZIO INDARTSUAK DIRA EMAKUME ETXEAK"

MALENA GONZALEZ, ARETXABALETAKO BERDINTASUN TEKNIKARIA

Emakume etxeen "loraldia"

Emakume etxeak ez dira aldarrikapen berria, eta une berean bailaran hiru zabaltzea albiste pozgarria bezain deigarria da. Emakume etxeen "loraldiaz" egin du berba Gonzalezek: "Egia da Arrasateko Emakume Txokoa erreferentea izan dugula beti Debagoiengan, baina uste dut gure herrietan orain hiru emakume etxe zabaltzea ez dela kasualitatea".

Neurri handi batean mugimendu feministaren urteetako aldarrikapenaren ondorioa dela

uste du Garciak, eta duela bizpahiru urte onartutako Berdintasun Legean jartzen du azpimarra. "Lehenengo eta behin, esan behar da legea etorri dela aldarrikapen hori hor zegoelako. Bestetik, urteotan guztiotan egindako lorpenak galdu egin

"EMAKUMEOI ZOR ZITZAIZKIGUN HALAKO ESPAZIOAK"

JONE ARRIOLABENGOA, OÑATIKO BERDINTASUN TEKNIKARIA

daitezkeela ikusten dugun sasoi honetan, garrantzitsua da halakoak legetan jasota egotea. Uste dut errekonozimendu handia dela maila horretako lege batek horrelako ekipamenduak onartzea. Bestetik, esango nuke politikarien agendetan ere lekua hartu duen gaia dela. EH Bildu dago hiru udalerrietan, eta Aldundiak, berriz, emakumeen etxeen inguruko lanketa sakona egin du azken urteetan".

"Emakumeoi zor zitzaizkigun halako espazioak", gaineratu du Arriolabengoak. "Kirol politikek kiroldegiak dituzte, eta politika feministek beren espazioak behar dituzte. Nire ustez, emakume etxeak belaunaldi berriko espazio publikoak dira, eta belaunaldi berriko politiketarako. Nik badut kezka jendeak sari moduan hartuko ote dituen zabaltzen ari diren emakume etxe horiek, guztiak baitira urteetako borrokaren emaitza. Oso-oso baldintza eskasetan aritu gara lanean, beste udal alor batzuetan ez dagoen prekaritatearekin. Ez dago beste udal arlorik zeinek baliabide barik hainbeste programa dituen martxan eta zeinek espazio fisiko barik funtzionatu duen hainbeste urtetan. Hau ez da sari bat. Urte asko eman ditugu material barik eta modu probisionalean jarritako txoko txikietan lanean. Berdintasun politikek merezi zuten duintasun bat".

Gehiago dio Arriolabengoak: "Nola kudeatu ez dakigun kasu pila ailegatzen zaizkigu. Genero Indarkeria Legeak jasotzen ez dituen indarkeria kasuak dira, eta sistemak ez du erantzunik. Esaterako, pobrezia-ekin eta migrazio politikekin gurutzatzen diren indarkeria kasuak. Gero eta kasu konplexuagoak dira, eta, nire ustez, emakume etxeak egokiak izan daitezke erantzun askoz ere integralagoak emateko". →

→ Bergaran hasiberriak dira proiektua eragileekin elkarlanean lantzen: "Nire ustez, lagungarria da inguruko bi herri-tan antzerako prozesuak martxan egotea. Emakume Txokoa zer den eta zertarako den azaltzen laguntzen du".

Ahalduntze espazioak

Hain zuzen ere, emakumeen ahalduntzerako etxeak ezinbesteko espazioak direla adierazi dute hiru Berdintasun teknikariek, eta, zertarako diren galdetuta, bat datoz definizioan. Jone Arriolabengoak azpimarratu du emakumeen etxeek askotariko prozesuetan laguntzen dutela: "Laguntzen dute emakumeen ahalduntze indibidualean, kolektiboan zein soziopolitikoan, eta komunikaziorako, hausnarketarako eta errebisiorako espazio izan behar dute. Uste dut herri mailan aldaketak eragiteko espazioak izan daitezkeela, baita indarkeria jasaten duten emakumeen arretarako eta erreparazio prozesuetarako gune ere; izan ere, eskaini dezakete gaur egun gure herrietan eskaintzen

diren zerbitzuetatik haratago joateko aukera".

Zaintza erdigunean jarri eta emakumeen aniztasuna kontuan hartuta eraldaketa feministarako herrian erreferente diren espazio antiarrazistak izan behar dutela gehitu du Bergarako teknikari Yenifer Garciak, eta emakumeak saretzeko espazio indartsuak direla esanez osatu du definizioa Aretxabaletako Malena Gonzalezek.

Bisitak emakume etxeetara

Debagoienean zabaltzear diren hiru emakume etxeek dagoneko antolatu dituzte bisitak martxan dauden beste emakume etxeetara. Prozesu parte hartzaileari hasiera eman aurretik, Aretxabaletako Berdintasun zinegotzi Ainhoa Sanchez eta Berdintasun teknikari Malena Gonzalez Zumaiako, Le-

"ERALDAKETARAKO DUTEN GAITASUNA ZAINDU BEHAR DUGU"

YENIFER GARCIA, BERGARAKO BERDINTASUN TEKNIKARIA

keitioko eta Basauriko emakume etxeak bisitatzen izan ziren, besteak beste. "Uste dut oso lagungarria eta aberasgarria izan zela, sortze prozesua, kudeaketa eredu eta zerbitzuak ikusteko aukera izan genuela", azaldu du Gonzalezek.

Oñatiarrek ere lau etxe bisitatu zituzten hasieran. "Lan saio bat egin genuen gero. Baliagarri egin zitzaigun: batzuei, eskemak apurtzeko; beste batzuei, Emakumion Etxiak eskaini ditzakeen aukerak irudikatzen hasteko...", dio Arriolabengoak.

Begarakoek ere egin dituzte bisitak; Oñatin, Astigarragan, Zumaian eta Usurbilen izan dira. "Parte hartze prozesua definitzeko bisitatu genituen; batez ere, haien esperientzietatik ikasteko. Oso lagungarria izan zen, benetan. Hain zuzen, prozesuaren gakoak eta zailtasunak alde aurretik identifikatzeko", nabarmendu du Garciak.

Kudeaketa eredu

Bergaran abiatzear duten parte hartze prozesuan aztertuko dituzte kudeaketa eredu egokienaren inguruko erabakiak.



Parte hartze saio bat Oñatin. OÑATIKO EMAKUMION ETXIA

Aretxabaletarren kasuan, "kudeaketa nagusia Udalarera izango da, baina mugimendu feministako eragileen presentzia handiarekin".

Jone Arriolabengoak aitortu du Oñatin buelta dezente eman dizkiotela gaiari. "Udalaren eta

"ERRESISTENTZIA ESPARRUAK BEHAR DITUGU"

JONE ARRIOLABENGOA, OÑATIKO BERDINTASUN TEKNIKARIA

etxekideen arteko elkarlanean oinarritutako proiektua izango da Oñatiko Emakumion Etxia, eta berezituko dira kudeaketa eta gobernantza. Kudeaketa – harrera, kontratazioak, garbiketa, mantentzea...– Udalak hartuko du bere gain, eta etxekideak egongo dira gobernantza erabakietan".

Erantzun "polita"

Bai Aretxabaletan, bai Bergaran eta bai Oñatin, Berdintasun teknikariek ilusioa antzematen dute parte hartze prozesuan

Hemen
garbiketak

Ura bezain garbia

**ELKARREKIN
BERDINTASUNERANTZ!**

T.- 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com

makumea

Nondik
begiratuta ere...

SARRILAGINTZAREN INDUSTRIA

parte hartzen ari diren eragileen artean. "Bai; lanak luze doaz, eta jendeak badu gogoa etxea martxan ikusteko, baina bidea oso polita izaten ari da, eta izugarria da ikustea nola mantendu den ilusio hori urte haue-tan guztietan", dio Oñatiko Berdintasun teknikari Jone Arriolabengoak.

Iritzi berekoa da Aretxabale-tako Malena Gonzalez: "Bai, ilusioa sumatzen da herriko eragile feministen artean; bereziki, 2015eko prozesuan parte hartu zutenen artean. Urte asko egon dira proiektu hori lantzen, eta bagabiltza emaitzak ikusten".

Bergarako Yenifer Garciak honako hau dio: "Nik bai sumatzen dut ilusioa. Azken finean, aldarrikapen historikoa da, eta batera landu dugu parte hartze prozesuaren definizioa. Dena den, erronka handia da, eta bai mugimendu feministak bai Udalak arduraz hartzen du nork bere papera".

Oldarraldiarekin kezkatuta

Haizeak alde jotzen duela iruditzen arren, kezka dute hiru Berdintasun teknikariek. *Fa-*

xismoaren kontra, ausardia eta aliantza feministak! da Euskal Herriko Mugimendu Feministaren mobilizazioetako leloa aurten, eta uste dute badaudela horretarako motiboak. "Oldarraldi baten aurrean gaude, eta erresistentzia esparruak behar ditugu horri aurre egiteko", dio Arriolabengoak.

Bestetik, erronka garrantzitsuak zabaltzen dira emakume etxe bakoitzaren irekierarekin. "Argi dugu zertarako diren, baina zaindu egin behar ditugu, funtzio hori bete dezaten. Emakume etxeak ezin dira ekipamendu soil bihurtu. Ikusi behar dugu atzean dagoen borroka guztia eta eraldaketa eragiteko duten gaitasuna. Ezin dugu potentzialtasun hori galdu", dio Garciak.

Jabekuntza Eskolak

Gero eta gertuago dago emakumeen ahaldunderako hiru etxe berrien irekiera. Bien bitartean, Jabekuntza Eskoletako tailerrek, hitzaldiek eta ekintzek jarraituko dute izaten emakumeen ahaldunderako zerbitzu garrantzitsuenetakoak.

Urteetako eskaera hiru herrietan



IDOIA ARANBARRI ARZUAGA

BERGARAN, ARRIZURIAGAN

Martxanterak talde feministak 2017an aurkeztu zuen eskaera modu formalean, eta aurreko agintaldian erabaki zuen Udalak Bergarako Emakumeen Txokoa 150 metro karratu dituen Arrizuriaga jauregiko bigarren solairuan kokatuko zela.

Martxoaren 13an egitekoa den mahai inguru batekin abiatuko da espazioaren nolokotasuna erabakitzeke parte hartze prozesua. Ondoren, bost gogoeta saio daude aurreikusita.

Obrek markatuko dute irekiera data, baina helburua da 2026ko udaberriko zabaltzea.



OIHANA ELORTZA GOROSTIZA

OÑATIN, KALE ZAHARREAN

Eskaera aurretik dator, baina 2018ko partaidetzazko aurrekontuetan eman zitzaion forma eskaerari eta 2020an egin zuten diagnostikoa Oñatin. Udalak 2022. urtean erosi zuen Kale Zaharra 13. zenbakiko etxea, eta urte berean jarri zuen martxan parte hartze prozesua. Martxan jarraitzen du, eta, aldi berean, eraikineren eraberritze lanetan ari da Udala.

Aurreikuspena da Oñatiko emakumeen etxea 2026rako zabaltzea. Hiru solairutan banatutako 600 bat metro karratuko espazioa da.



MIRARI ALTUBE

ARETXABALETAN, ZAINDUZEN

Aretxabale-tako emakume etxearen eskaera 2015etik dator eta Erdi emakume elkartearen heldu zen. Udalak 2023. urte amaieran ekin zion proiektua lantzeari eta 2024ko otsailaren zabaldu zen parte hartze prozesua. Zainduzeko eraikinean kokatuko da Aretxabale-tako Txoko Feminista –gaur egun anbulatorioa dagoen eraikinean–. Lokalak 160 metro karratu ditu eta sei espazio egotea aurreikusten dute. Irekiera data zehazteke dago, baina helburua da urte amaieran zabaltzea.

Berdintasunarekin **bat!**

8M

ULMA

MARTXOAK **8**

Gure etorkizuna,
geuk erabaki!

ANTZUOLAKO UDALA

Emakumeen Mundu Martxaren hasierarekin dator Martxoaren 8a

Gerrak eta kapitalismoa jo-puntuan, herrien burujabetza eta bizitza duinen aldarria du gogoan seigarren aldiak; Debagoienean domekan emango diote hasiera, Bergaran

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria DEBAGOIENA

Emakumeen Nazioarteko Eguna da Martxoaren 8a, eta aurten beste hitzordu bat gehituko zaio egunari, Emakumeen Mundu Martxaren nazioarteko ekintza hasiko baita, Mendebaldeko Saharan. Duela 25 urte egin zuten, hain zuzen ere, lehendabizikoz, eta seigarren aldia izango du aurten, bost urtean behin egiten baita. Martxan dira Euskal Herrian ere, eta Debagoienean egun bat geroago, hilaren 9an, emango diote hasiera, Bergaran,

Gerra eta kapitalismoaren aurka, herrien burujabetzaren eta bizitza duinen alde lelopean.

Bailarako talde feministak daude Debagoieneko Emakumeen Mundu Martxaren asanbladaren atzean, eta nazioarteko ekintza-aren leloa oinarritzat hartuta Martxak emango dituen aukerez jardun dute: "Nahiko aterki zabala da, baina bailarako kolektibo feminista gisa aukera ematen digu antikapitalismoarekin, antiarrazakeriarekin eta deskolonizazioarekin zerikusia duten nazioarteko martxaren balioe-

kiko konpromisoa berresteko. Gai batzuk eztabaida politiko feministara ekartzeko aukera ematen digu; trantsizio ekosozialarekin, desmilitarizazioarekin eta arrazismoarekin lotutako gaiak, besteak beste".

Hasiera-ekitaldia

Emakumeen Mundu Martxa momentu "garrantzitsua" da bailarako talde feministendako, adierazi dutenez: "Batetik, ekintza feministak egiten dihardugun herrietan gai horiek lantzeko aukera ematen digulako, eta,



Debagoieneko Emakumeen Mundu Martxako kideetako batzuk. MUGIMENDU FEMINISTA

bestetik, Euskal Herrian eta nazioartean artikulatzekoa". Bada, hori gogoan izanik antolatuko dute hasiera-ekitaldia.

12:30ean aurkeztuko dute ekintza, etzi, San Martin plazan, eta kalejira ondoren; ekitaldi nagusia, berriz, 13:30ean izango da. "Aramaioko kolektibo feministako kideek ekofeminismoaz jardungo dute; horrez gain, Elena Garcia eta Ana Portu izango dira gurekin, Bizkaiko asanblada feministako kideak, Emakumeen Mundu Martxaren nazioarteko ekintzetan parte

hartu izan baitute urteetan. Euskal Herriko emakume migratuen eta arrazializatuen sareko lagunak ere egongo dira, urteetan baitihardute aldarrikatzen pertsona migratuen erregularizazioa; eta azkenik, Emakume Migratu Feministak So-

TALDE FEMINISTEK DIOTENEZ, GAI BATZUK EZTABAIDA POLITIKO FEMINISTARA ERAMANGO DITUZTE



FAGOR 

Berdintasuna errealitate izan dadin

MARTXOAK 8
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

18:30
MOBILIZAZIOA
PLAZATIK

BATU MOBILIZAZIO ETA EKINTZETARA!



ciosanitarias kolektibo kideak, zaintzaren arloan dihardutenak".

Ekitaldiaren ondoren, hauek izango dira: *Oholtza mediokreen apologia* oihal-ikuskitza, herri bazkaria, ipuin kontaketa eta musika emanaldia, eta *Lurra margotu, lurra defendatu* ekintza, haurrei eta helduei zuzenduta.

Gerora begirakoak

Emakumeen Mundu Martxak hainbat ekintza egingo ditu urtean zehar, eta "egutegi feministan data zehatzak" daukela nabarmendu dute debagoiendarrek. Esate baterako, Palestinako Lurraren Eguna da martxoaren 30ean, eta genozidioa salatzen eta emakume palestinarrekiko elkartasuna agertzeko mobilizazioak egiteko dei egin dute mundu osoan; horrenbestez, eskualdean ere zerbait egitekoak dira. Horrez gain, Bangladeshko Rana Plaza lan-tegiaren erortzearen urteurrena aintzat hartuz -4.000 lagun zeuden barruan ehungintzan lanean, eta 1.138 hil ziren eta beste 2.000 zauritu-, Enpresa Transnazionalen aurkako Elkartasun Feministaren Astea



Pankartak egiten, otsailaren 17an, Bergarako kartzela zaharrean. MUGIMENDU FEMINISTA

Martxoaren 9ko egitaraua

San Martin plazan egingo dira Emakumeen Mundu Martxaren hasierako ekintzak; eguraldi txarra bada, Seminarioko karpan.

- **12:30** Ekintzaren aurkezpena.
- **12:45** Kalejira.
- **13:30** Ekitaldia. Emakume Mundu Martxaren ekintzak Euskal Herrian eta bertso aldarrikapenak.
- **14:00** *Oholtza mediokreen apologia*, oihal-akrobazia ikuskizuna.
- **15:00** Herri bazkaria; ondoren, ipuinak eta musika.
- **16:30** *Lurra margotu, lurra defendatu* ekintza, haurrendako eta helduendako.
- **17:30** Agurra.

egingo dute apirilaren 24tik maiatzaren 1era. Ekainean, berriaz, Europa mailako ekintza bat antolatu dute Marseillan (Frantzia), eta hara joatekoak dira Euskal Herriatik. Bakearen Nazioarteko Egunean, irailaren 21ean, Emakumeen Mundu Martxaren nazioarteko batzarra egingo dute Nepalen, eta, azkenik, urriaren 17an amaituko da nazioarteko seigarren edizioa.

Biharko aldarriak

Faxismoaren aurka, ausardia eta aliantza feministak lelopean egingo ditu Martxoaren 8an, bihar, Euskal Herriko mugimendu feministak mobilizazioak hirietan eta herrietan, eta bat egin dute bailarako taldeek, elkarretaratzeak eta manifestazioak antolatu baitituzte (Ikus 24. orrialdea). Azaldu dutenez, zaintza sistema izan zuten iaz jomugan, baina "emakume, trans eta bollerek jasaten duten zapalkuntza" izango dute aurten oinarri, "zapalkuntza forma berriak" ez ezik, "botere erlazio forma konplexuak" antzeman dituztela nabarmenduta: "Eskuin muturraren, faxismoaren eta

jarrera erreakzionarioen gorakada ikusten dugu hainbat esparru eta sektoretan", eta erantsi dute ez dela urrutiko kontua: "Ezkerreko sektore batzuetan ere ari gara ikusten feminismoarekiko kontraktasuna eta diskurtso arrazisten gorakada. Horrek guztiak emakume, trans eta bolleron zapalkuntza eragiten du, batez ere".

Feminismoa, horrenbestez, "ezkerreko borroken erdigunera" eraman beharrez jardun du mugimendu feministak: "Feminismo antiarrazista, anticolonialista, antikapitalista eta antikleka. Feminismoa baita eraldaketarako proposamen integralak egiteko ezinbesteko mugimendua". Hala, askotariko esplotazio eta zapalkuntza egoerak salatu dituzte, hiru nabarmenduta: indarkeria matxista, krisi ekonomiko eta migrazio politikak.

FAXISMOAREN AURKA "ALIANZA FEMINISTEN" ALDEKO ALDARRIA EGINGO DUTE BIHAR

MARTXOAK

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

8



Aurten ere badator Martxoaren 8a, mobilizatuko gara 365 egunetan?

G Goizper Group
Aniztasuna Bidelagun



Feminismoak gizarteari egiten dion ekarpenari azpimarra Emakunden

Martxoaren 8ra begira, hainbat ekimen jarri ditu abian Emakunde, egun horretarako egindako 'Ni feminista naiz' kanpainaz gain. Maskulinitate eredueta jarri du arreta

Jone Arruabarrena DEBAGOIENA

Feminismoaren balioek pertsonen eguneroko bizitzan "botere eraldatzailea" dutela erakutsi nahi du Emakunde. Horri lotuta kaleratu du Emakumeen Nazioarteko Egunarekin bat egiteko *Ni feminista naiz* kanpaina, hiru foru aldundiekin eta Eudelekin batera. *Feminismoa zurekin doa* adierazi dute kanpainarekin batera, eta berdintasunaren arloan lortutako aurrerapenak nabarmendu nahi ditu Emakunde. "Mundu mailan gertatzen ari den ultraes-

kuinaren erreakzio-testuinguruan, zeinak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik eza ukatzen duen, emakumeen aurkako indarkeria hutsaltzen duen eta berdintasun-politikak mespretxatzen dituen, euskal erakundeek beharrezkoa ikusten dute feminismoaren pedagogia egitea eta nabarmentzea haren ekarpena ongizateari eta eguneroko bizitzaren hobekuntzari", adierazi dute.

Horrez gain, "berdintasun politikak garatzeko erabakigarriak" izan diren bi mugarri ospatu

nahi izan ditu Emakumearen Euskal Institutuak: batetik, Beijingo Adierazpen eta Ekintza Plataformaren 30. urteurrena ospatzen da, eta Emakunde adierazi du "mundu osoko emakumeen eta neskatuen ahalguntzerako programarik garrantzitsuena" dela; beste alde batetik, aurtun 20 urte bete dira Euskadin Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako lehen Legea onartu zenetik.

Kanpainaz gain, Emakunde zenbait egitasmo eta ekimen aurkeztu ditu azken asteetan;

gehienak, maskulinitatearekin lotutakoak. Besteak beste, gizonak berdintasunaren alde sentsibilizatzeko 2030 Gizonduz estrategia aurkeztu du Gobernu Kontseiluan. Estrategiaren helburuak ere azaldu zituzten bertan: batetik, berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka sentsibilizatutako, prestatutako eta konprometitutako gizonen kopurua handitu egin nahi du.

Arreta maskulinitatean

Bereziki, gazteengan jarri nahi du arreta, eta Gizonduzen ikastaroetan 7.000 gizonak parte hartzea nahi dute. Bestalde, gizonak "etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzukidetasuna handitzea" eta "zaintzaren etika eta praktika orokortzea" ere jarri dute helburu gisa. Arlo horretan, Emakunde helburutzat jarri du seme-alabak zaintzeko eszedentzien %20 gutxienez, gizonak hartzea, eta egunean, batez beste, gutxienez bi ordu ematea etxeko lanetan eta zaintza-lanetan.

Horrez gain, Emakunde "berdintasuna eta tratatu onak" sus-

tatzeko eta "jarrera matxista problematikoak" prebenitzeko psikohezkuntzako zerbitzuak eta tresnak jarri nahi ditu mahai gainean, eta, horrekin batera, gizonen, maskulinitateen eta berdintasunaren arloko jarduerak egiten dituzten erakunde publikoen eta pribatuen kopurua handitu. Hain zuzen ere, helburutzat jarri dute Eusko Jaurlaritzako sailen, hiru foru aldundien eta berdintasun zerbitzua duten udalerrien %50ek, gutxienez, gizonen, maskulinitateen eta berdintasunaren arloko jarduerak egitea.

Beste eredu batzuk

Institutuko zuzendari Miren Elgarrestak esan duenez, lan horren bidez "berdintasunaren alde diharduten gizonen masa kritikoa bat" eratu nahi da:

**EUSKAL GIZONEN
%49,8K ZALANTZAN
JARTZEN DUTE
MASKULINITATE
TRADIZIONALA**

ERREKA

Berdintasunerako bidea egiten.

www.erreka.com

20 urte **goiena** seguru bizi

Parekidetasunaren alde



Ni feminista naiz kanpainaren aurkezpena. EMAKUNDE

"Maskulinitasun tradizionala zalantzan jarri eta beste gizon batzuentzat erreferente izango diren eta, emakumeekin batera, gizarte bidezkoagoa eta berdinzaleagoa lortzeko konpromisoa hartuko duten gizonentzako nahi ditugu".

HELBURUTZAT JARRI DUTE SEME-ALABAK ZAINTEKO ESZEDENTZIEN %20 GIZONEK HARTZEA

Izan ere, azken asteotan Emakundek berak argitaratu duen ikerketa batean, baieztatzen da euskal gizonen %49,8k zalantzan jartzen dutela maskulinitate tradizionala, baina ez dutela berdintasuneko eredurik praktikan jartzen. Horrez gain, txostenaren arabera, maskulinitasun hegemoniko tradizionalarekin lerrotatutako nerabeen ehuneko %22,5ekoa da.

Ondarea babestu

Maskulinitatean arreta jartzeaz gain, emakumeen ondare histo-

riko eta artistikoan ere jarri du azpimarra Emakundek. Izan ere, duela aste batzuk aurkeztu du *Memoria historikoa genero ikuspegiarekin* izeneko gida. Azaldu dutenez, eskuliburuaren helburua da "emakumeak kontakizun historikoen txertatzea eta haien bizipenei eta esperientziei balioa ematea", utzi duten ondarea babesteko, azaleratzeko eta haien desagertzea saihesteko. Elgarrestak hartu zuen hitza aurkezpenean, eta adierazi zuen gidak "guztiona den memoria bat" eraikitzen lagundu behar duela: "barneratzailea, zorrotza, zientifikoa eta genero-estereotipoetatik urrun dagoen kontakizun historiko baten bidez". Liburuan, besteak beste, kontaketa historikoa androzentrikoa izatea lagundu duten faktoreak aztertzen dira, eta ahaztuta geratu diren emakumeen izenak eta istorioak berreskuratzea beharra nabarmentzen da. Azken horrek duen garrantzia ere azpimarratu du Elgarrestak: "Aitorpen publikoa merezi dutelako eta belaunaldi berriek andreen erreferenteak behar dituztelako bizitzako esparru guztietan".

Martxoaren 8aren "izaera iraultzailea" aldarrikatu du Itaiak

Egun hori "ospakizun gisa" ikustea arbuaiatu, eta mobilizatzeko beharra azpimarratu dute

Jone Arruabarrena DEBAGOIENA

Martxoaren 8a borroka egun gisa hartzea beharrezkoa dela diote Emakumeon Antolakunde Sozialistako (Itaia) kideek. Ez dute nahi egun hori "ospakizun gisa" ikustea. Izan ere, Debagoieneko Itaiako Miren Iturbek adierazi du azken urteotan "mobilizatzeko joera beherantz eta izaera iraultzailea desagertuz" joan dela egun horretan. Gainera, inoiz baino beharrezkoago ikusten dute protesta Itaiako kideek, testuingurua kontuan hartuta: "Joera erreazionario handia ikusten dugu gure inguruan, bai politikarien eta instituzioen aldetik zein kalean eta sare sozialean. Horri erantzuteko, kaleak hartzea beharrezkoa da". Horrekin batera, adierazi dute emakume langilearen egiturazko zapalkuntzari aurre egiteko "iraultza sozialista" beharrezkoa dela.



Joan den urteko protesta. GOIENA

Bide horretatik, Martxoaren 8an kalera aterako dituzten aldarriak landu dituzte otsailean, hainbat ekintzaren bidez. Horrez gain, egunean bertan propaganda politikoa egingo dute, eta 12:30erako elkarretaratzera deitu dute Arrasateko Herriko Plazan.

ikerlan MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE

Elkarrekin berdintasuna eraikitzen.

www.ikerlan.es

AURKERAK ERRESPETUA

ELKARTASUNA hezkuntza

#Ni Feminista Naiz

Feminismoa zurekin bat

M8 Emakumeen Nazioarteko Eguna

eskoriatzako udala

MARTXOAK 8**ARRASATE**

Azoka Emakume artisauen eta bertako ekoizleen azoka *Seber Altuben, 10:00etan.*

Oinezaldia II. Lilabide, Sasoi bidek antolatuta *Biterin hasita, 11:30etan.*

Mobilizazioa *Matxismoaren aurrean emakume langileok borrokara, Itaiak antolatuta Herriko Plazan, 12:30etan.*

Manifestazioa Arrasateko Mugimendu Feministak deituta *Seber Altuben hasita, 18:00etan.*

BERGARA

Manifestazioa Martxantereak eta Oñeztuak deituta, *Faxismoaren kontra ausardia eta aliantza feministak lelopean. Munibe plazan hasita, 13:00etan.*

OÑATI

Hitzaldia *Euskal musika panorama emakume eta disidentzien bizipenetatik, Aierten eta La Furiaren eskutik. Gaztetxean, 11:00etan.*

EGITARAUUA

Elkarretaratzea
Elkarretaratzea egingo dute *Olakuako urmaelean, 12:00etan.*

Bazkaria Bazkari feminista *Gaztetxean, 14:30etan.*

Emanaldia Hots Abesbatzaren *Emakumeek idatzia 2025 ekitaldia Santa Ana antzokian, 18:00etan.*

Manifestazioa Mobilizazioa egingo dute *Foruen plazan hasita, 18:00etan.*

ARETXABALETA

Manifestazioa Atxabaltako Mugimendu Feministak deituta *Herriko Plazan hasita, 18:30etan.*

ESKORIATZA

Gosaria Gosari-tertulua kolektiboa *Kultur etxean, 10:00etan.*

Tailerrak 6-12 urte bitarteko umeei zuzenduta *Kontzejupean, 11:00etan.*

Azoka Emakume sortzaileen azoka *Herriko plazan, 11:30etan.*

Bazkaria *Zuk in, zuk jan bazkaria Herriko plazan, 14:00etan.*

Manifestazioa Eskoriatzako Mugimendu Feministak deituta *Herriko plazan hasita, 18:30etan.*

ANTZUOLA

Tailerra Zoru pelbikoaren eta diafragmari buruzko tailerra, Mariñe Etxaniz eta Olatz Abasoloren eskutik *Olaranen, 10:30etan.*

Mobilizazioa Andramanuelak talde feministak deituta *Herriko Plazan hasita, 19:00etan.*

**ELGETA**

Dantza Zumba saioa *Plazan, 11:30etan.*

Manifestazioa Amantalak talde feministak eta Elgetako Udalak deituta *Plazan hasita, 13:00etan.*

ARAMAIO

Gosari-tertulua *Aramaixoko emakumeen kezak eta erronkak izenburupean Jubilatuen elkartean, 10:30etan.*

Sormen-tailerra Herria apaintzeko aldarrikapenak egiteko egitasmoa *Kultur etxean, 10:30etan.*

Kalejira Iturri-poteoa, kantua, dantza eta ekitaldia *Herriko plazan, 12:30etan.*

Aisialdia Kafea, bingoa, karaokea, musika eta dantza *Sastiñan, 17:00etan.*

MARTXOAK 9**BERGARA**

Mundu Martxa Emakumeen **Mundu Martxaren VI. Nazioarteko Ekintza** *San Martin plazan, 12:30etik aurrera. (Ikus. 20. orria).*

Kontzertua Anariren emanaldia, Txapa Irratiak eta Martxantereak antolatuta *Kartzela zaharrean, 19:00etan.*

OÑATI

Azoka Emakume artisau eta eskulangileen azoka *Berdura plazan, 10:30etan.*

ESKORIATZA

Martxa VII. Aresko martxa, Eskoriatzatik Aretxabaletara *Herriko plazan hasita, 11:55etan.*

ANTZUOLA

Terapia-bakarrizketa Lorena Arangoaren eskutik *Torresoroan, 18:30etan.*

RPS: 136/24 AZA-HARA-HUELMOS • ELKARRE. ZENB. 40000-1027

M8 Berdintasunerantz...

INPLANTOLOGIAN ESPERIENTZIA
HANDIKO AHOLKU-EMAILEAK GARA
3D TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

Parekidetasunaren alde

ARRASATE

M8

Aliantza feministen aldeko aldarrikapenak

'Faxismoaren kontra, aliantza feministak borrokan' lelopean egingo dute Martxoaren 8ko mobilizazioa, bihar, Elgetan. Zumba saioa ere egongo da aurretik. Gaur, berriz, lau emakumeren bizipenetan oinarritutako ipuin saioa izango da liburutegian

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Liburutegiak antolatutako ipuin kontalaritza saio batekin emango zaie gaur hasiera Martxoaren 8ko Elgetako ekintzei. *Ameli* izen artistikoarekin ezaguna den Amaia Elizagoien Varela oronoztarrak egingo du saioa, 18:30ean. Euskal Herrira bizitzera etorritako hiru emakume migratzaileen eta bertan sortu den emakume baten istorioak ekarriko ditu Elizagoienek. "Bizi-esperientziak dira, gure ikuspuntua aldatuko duten gertaerak", aurreratu du. Helduendako saioa da; 16 bat urtetik gorakoendako.



lazio Martxoaren 8an Mendizaleen plazan egindako elkarretaratzea. L.Z.L.

Zumba saioa eta manifestazioa
Biharko, Martxoak 8, zumba saioa eta manifestazio iragarri dituzte Amantalak talde feministako kideek eta Udalak. Zumba saioa 11:30ean hasiko da, plazan, eta ordubete iraun-

go du. Herriko emakume zein neska gazteei bereziki zuzenduta dago, eta Ibone Ramos elgetarrak gidatuko du. Arropa eroso eta ura eramateko gomendatu dute antolatzaileek. Jakinarazi dute eguraldi txarra

bada kiroldegira lekualdatuko dutela saioa. Horrelakorik baldin bada, Amantalak talde feministaren sare sozialetan jakinaraziko dute.

Ondoren, manifestazioa dago deituta 13:00etarako. *Faxismoan*

kontra, aliantza feministak borrokan lelopean deitu dute mobilizazioa. Herriko plazan emango diote hasiera elkarretaratzeari, eta, jarraian, manifestazioa egingo dute. Ibilbidea honako hau izango da: Salvador kaletik

igo, Berraondokuatik jaitsi, Domingo Iturbe kalea zeharkatu, San Roke kaletik jaitsi eta herriko plazan amaitu.

Antolatzaileek ekitaldietan parte hartzeko dei egin diete elgetar guztiei.

"Enpatiatik eta maitasunetik lan egin behar dugu"

AMAIA ELIZAGOIEN VALERA IPUIN KONTALARIA

Munduko emakumeak izeneko ipuin saioa egingo du Amaia Elizagoienek (Ornoz, 1994), gaur, liburutegian.

Nolako ipuinak izango dira?

Euskal Herrian bizi diren emakumeen istorioak dira. Batzuek atzerrian dute sorterrria eta beste batzuek, Euskal Herrian. Munduan zehar behin eta berriz errepikatzen diren istorioak direla esango nuke. Testigantzetatik jasotakoak dira.

Elkar ezagutu behar dugu elkar gehiago ulertzeko?

Zalantzarik gabe. Oso garrantzitsua da besteen azalean jartzea. Urteak dira saio hau egiten dugula, eta publikoak konektatu egiten du. Sarri, amaieran, nork bere istorioak konpartitzen ditu, eta



AMELIA

une benetan hunkigarriak sortzen dira.

Ekinaldi luzea dago berdintasunaren bidean?

Bai, eta azpimarratu nahiko nuke gizekoentzako saioa ere badela. Garrantzitsua da espazio horietara ere etortzea. Enpatiatik eta maitasunetik lan egin behar dugu, denontzako jasangarriago izango den mundu bat sortzeko.

"Pozik nago 'Saiatu' kantuen izan duen harrerarekin"

UNAI CANTABRANA AMESTI ABESLARIA

Uda aurretik beste pare bat kantu kaleratu nahi ditu

L.Z.L. ELGETA

Bideoklip formatuan argitaratu du bere sorkuntzako lehen kantua Unai Cantabrana Amestik (Elgeta, 2004). *Saiatu* du izenburua eta maitasun bizipen batean dago oinarrituta.

Pozik zaude kantuak izandako harrerarekin?

Oso pozik. Youtuben zein Spofifyn 2.200 ikustalditik gora izan ditu bost egunetan, eta kopuru oso onak dira nire lehenengo kantua izateko.

Zure lehen esperientzia izan da grabatzen; nola joan da?

Brainfall Studios-eko Oier Palomorekin grabatu dut eta Zia-bogako Danel Ezpeletarekin eta Aner Olaizolarekin egin dut bideoklipa. Lan asko egin dugu, baina ondo pasatu dugu. Esango nuke oso perfektionista eta oso astun jarri naizela, baina nabaritu egiten da emaitzan, eta hori nahi nuen.

Etorriko dira kantu gehiago?

Bai. Bigarren kantua grabatzen hasita nago eta gustatuko litzaidake uda aurretik hiru bat kantu argitaratzea. Eta ea posible dudan uda ostean sei bat kan-



Unai Cantabrana Amesti. 'SAIATU'

tuko EPA ateratzea. Diskoa egitea ere buruan dut, baina aurrerago izango da hori.

Noiz duzu hurrengo zuzeneko?

Laster, eta herrian bertan. Elgetako Janela tabernan joko dut, martxoaren 14an.

Mendi irteerarekin batera sagardotegia hilaren 16an

Kantsatzeke mendi taldeak martxoak hirugarren domekarako antolatu du urteko lehen irteera. Taldea 08:00etan abiatuko da Elgetatik, autobusez, eta Gorriti eta Lizartza arteko bidea egingo dute, mendiz mendi; tartean, Urkietatik (866 metro) igaroko dira. Ibilbide "erraz eta polita" dela adierazi dute.

Mendi irteeraren ostean, Lizartzako Goikoetxea sagardotegian bazkalduko dute. Ezinbestekoa da beranduez martitzeneko izena ematea. Prezioa da 50 euro bazkideendako eta 55 euro gainerakoendako. Izena emateko zein argibideetarako: kantsatzeke@gmail.com edo 690 74 00 56.

OHARRAK

Ibiltarien jaia

Domekan mendi ibilbidea, diploma banaketa eta bazkaria, Euskal Mendizale Federazioak antolatuta.

'Laburbira' domekan

Euskarazko zortzi film labur eta solasaldia Iker Martinez de Lizarduy zuzendariarekin. Espaloian, 18:00etan.

Sukaldaritza saioa

Loli Ibañezen ikastaroa martitzenean, 17:00etan, Ozkarbin. Doan. 617 18 49 30.

Banda zabala

Landa-eremura zuntz optikoa eramaten ari da Udala. Interesatuak udaletxean egin behar dute eskaera.

M8



Martxanterek iazko M8an deitutako manifestazioa. GOIENA



Bergarako Pentsiodunen Mugimenduko asteleheneko elkarretaratzea. BPM

Indar feministak faxismoari aurre

Martxanterak eta Oñeztuak talde feministek mobilizazio bateratua deitu dute biharko; 13:00etan irtengo dira, Munibe plazatik, eta, herria zeharkatu ostean, hasierako puntura itzuliko dira, ekitaldiari bide emateko. Kalera irteteko dei egin diete herritarrei

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Martxoaren 8aren bueltako egitarau oparoa antolatu dute Bergaran, eta, besteak beste, Jabe-kuntza Eskolako saioei hasiera eman dien Ana Goitiaren *Katana* bakarrizketa, La Furiaren eta Anariren kontzertuak (Ikus. 34. orria) eta Bergarako Emakume Artisten erakusketa sartu dituzte egitarauaren barruan. Biharko, Emakumeen Nazioarteko Egunerako manifestazioa antolatu dute Martxanterak eta Oñeztuak Bergarako talde feministek. Euskal Herriko Mugimendu Feministak egindako deialdira batu dira eta *Faxismoaren kontra, ausardia eta aliantza feministak!* lelopean irtengo dira kalera, 13:00etan, Munibe plazatik.

Leloari dagokionez, adierazi dute eskuin muturraren, faxismoaren eta jarrera erreakzio-

narioen gorakada ikusten dutela hainbat esparru eta sektoretan, eta mugimendu feministaren lorpenen aurka eta askotariko indarkeria formak hazi egin direla: "Horregatik, aldarrikatu nahi dugu feminismoa ezinbesteko mugimendua dela eraldaketarako proposamen integralak egiteko; feminismo antiarrazista, antkolonialista, antikapitalista eta antiklasista".

Manifestazioaren ostean, urtero bezala, ekitaldia egingo dute, Munibe plazan, eta herritarrei dei egin diete aurtengo lelo eta gaiarekin lotura duten

EMAKUMEEN MUNDU MARTXAREN VI. NAZIOARTEKO EKINTZA EGINGO DUTE DOMEKAN

mezuak eta kartelak sortu eta manifestaziora eramatera.

Halaber, hilaren 9an ere M-8ko ospakizunekin jarraituko dute Bergaran, eta bost urtean behin egiten den Emakumeen Mundu Martxaren VI. Nazioarteko Ekintza egingo dute, 12:30etik 18:00etara, plazan –euria bada, Seminarioko karpan–. Bailarako mugimendu feministako kideak eta beste herri batzuetako kolektibo sozialak elkartuko dira Bergaran (Ikus. 21. orria).

Zinema eta antzezlan eskaintza
Hilabete honetako zinema egitaraua ere Martxoaren 8arekin lotu dute. Alde batetik, asteroko helduendako zinema komertzialaren barruan, honako film hauek proiektatuko dituzte: *La mitad de Ana*, martxoaren 9an eta 10ean; *Amal*, martxoaren 16an eta 17an; eta *Lee Miller*, martxoaren 30ean

HELen onurak emakumeendako

Herri Ekimen Legegileak (HEL) emakumeendako dituen onurak aztertu zituen Bergarako Pentsiodunen Mugimenduko (BPM) astelehen goizeko elkarretaratzean. Gutxieneko pentsioa gutxieneko soldatarekin parekatzearen beharra azpimarratu zuten, beste behin, eta azaldu zuten 100.000 pentsiodunen artean 66.000 direla emakumeak, eta haiek izango direla onuradunak: "Herri Ekimen Legegilearekin, pentsio txikietan dagoen arrakala amaitzea lortuko dugu". Gehitu zuten bihar Bergaran egingo den mobilizaziora batuko direla. Halaber, gogora ekarri zuten otsailaren 24an Bilbon egindako ekitaldia. "Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduko emakume pentsiodunek Herri Ekimen Legegilearen babesa jaso zuten, 98 atxikimendu, 170etik gora emakume batuginen, eta guztiz arrakastatsua izan zen", adierazi zuten BPMkoek.

eta 31n. ZinemaOn zineklubak aste honetan eskaini du Maura Delpero zuzendariaren *Vermiglio* filma, eta martxoaren 12an emanango du Mar Coll-en *Salve Maria*. Emanaldi guztiak Seminarixoan izango dira, 19:30ean. Horren harira, ZinemaOn-ekoek adierazi dute saiatzen direla urte osoan emakumezko zuzendari, aktore eta ekoizleek egindako filmak proiektatzen eta gonbidatu moduan ekartzeko.

Halaber, La Dramatica Errante konpainiaren *Yerma* antzezlan izango da martxoaren 14an, 20:00etan, Seminarixoan.

Zinema eta antzerki emanaldietarako sarrerak salgai daude www.seminarixoa.eus-en.

27 emakume bergararren lanak
Urtero bezala, Bergarako Emakume Artisten lanak ikus daitezke Aroztegi aretoan, domekara arte. Martxoaren 8aren

BERGARAKO EMAKUME ARTISTEN ERAKUSKETA DOMEKARA ARTE EGINGO DA IKUSGAI

bueltan egin ohi dute, eta bederatzigarren edizio honetan 27 emakume artista bergararrekin hartu dute parte. "2026koa, gainera, hamargarren erakusketa izango da, eta suposatzen dut zerbait berezia egingo dugula", esan du erakusketako artisten artean dagoen Justina Elexpuruk.

Ez dute gai konkreturik finkatu. Emakumeak eta bergararrak izatea dira Aroztegi erakusketan dauden lanen sortzaileek amankomunean dituzten ezaugarri gutxietako batzuk. Izan ere, adinari, lantzen dituzten diziplinei eta jarraitzen dituzten estiloei dagokienez, aniztasuna da nagusi. Ana Abajok, esaterako, aretoaren sarreran dagoen koadroarekin hartu dute parte aurtengo erakusketan: "Urte batean izan ezik, beti egon izan naiz bertan. Eta, sortzaileen artean halako aniztasuna egonda, aurtun gaia libre izateak askatasun handiagoa eman digula uste dut".

Esan bezala, domekara arte bisitatu ahal izango da erakusketa: gaur, 18:00etatik 20:30era; zapatuan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domekan, 12:00etatik 14:00etara.

Arrizuri kaleko zuhaitzak ordezkatu egingo dituzte

Kale hartako zuhaitzak "osasan-egoera larrian" daudela egiaztatu du Udalak, eta, hala, kale horretako hogeitaz astigarrak kendu eta hamahiru 'Photinia fraseri' landatuko ditu; erretiratutako zuhaitzen enborrekin egur-loteak osatuko dituzte, herritarrendako

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA Arrizuri kaleko zuhaitzak aldatzeko lanak hasi zituen atzo Bergarako Udalak "osasan-egoera larrian" zeudela egiaztatu eta, ondorioz, haiek ordezkatzeko beharra ikusi baitu. Udaleko Obra eta Zerbitzuetako buru Garaiz Bañosek adierazi du usteldurak eta onddoen zabalkundea izugarri hedatu direla: "Oso paraje ainubea da, eta ia ez da eguzkia sartzen. Hezetasun handia dago eta zuhaitzek goroldioa, onddoak eta bestelako liken batzuk dituzte. Gainera, zuhaitzak barnebiltzen dituen txorko edo alkorkeak oso txikiak dira, eta zuhaitzak ez dira hazten; biziraun egiten dute, ozta-ozta".

'Photinia fraseri'-en landaketa

Hala, kale hartan zeuden hogeitaz astigarrak kendu eta hamahiru bat *Photinia fraseri* landatuko dituzte. Zuhaitz gutxiago landatzearren arrazoiak da "kalearen zati askotan" espaloien zabalera "oso estua" dela. Arbola mota

berriari dagokionez, Bergarako Udalak azaldu du tamaina txikiagokoa eta hosto iraunkorrekoa dela, eta horrek bizilagunei erosotasuna eta segurtasuna bermatuko diela: "Gainera, urte-sasoaren arabera, hostoen tonalitateak aldatu egiten dira, eta ingurune atsegin eta estetiko eskaintzen dute". Aurreratu dute zuhaitz berriek ez dutela altuera handirik hartuko, eta, ondorioz, etxebizitzetako leihoak ez ditela inongo trabarik egingo.

Erretiratu dituzten zuhaitzen enborrekin egur-loteak osatuko dituzte, herritarrek jaso ditzaten, eta adarrekin konposta egingo dutela azaldu dute.

Era berean, Bergarako Udalak bergararren parte-hartzea sus-

tatzeko bidea zabaldu du, eta interesa duenak iritzia eta ekarpenak bidali ditzake lorenzaintza@bergara.eus helbidera.

Beste zenbait eraketa

Beste zenbait puntutako zuhaitzetan ere atzeman dute izurria; Zabalotegi kalean eta Ortuibar pasealekuan, esaterako. Eta eremu haietan ere arbolak aldatu egin behar izan dituzte.

Duela hilabete, Arrizuriaga parkearen sarrera nagusian zegoen hamazortzi metroko indigaztina bota zuten, zuhaitza gaixorik eta erortzeko arriskuan zegoelako. Bañosek gaineratu du beste onddo batek eragin ziola indigaztinarari eta, aditu baten txostenari jarraituz, zuhaitza lehenbailehen botatzeko beharra ikusi zutela.

Kasu horretan, zuhaitzaren zati bat Gorkako eremuan utzi dute, "ekosistema aberasteko eta espezie xilofagoak elikatzeke"; beste zatiak egur-lote bihurtu dituzte, herritarrendako.

ARRIZURIAGA PARKEKO 18 METROKO INDIGAZTAINA BOTA ZUTEN OTSAILEAN, GAIXORIK ZEGOELAKO



Brigadako langileak Arrizuri kalean zuhaitzak kentzen, atzo. ANDONI GOITI



NIRE USTEZ

ALEX ARTEAGA

'De punky'

Inauterien bixamona pasa berri gaude guztiok, eta aitortuko dizuet: ez naiz moztortzeko garaian asko disfrutatzen duen pertsona horietako bat, ez daukat pasio hori. Ez diot buelta asko ematen, simplea eta eroso izatearekin nahiko! Badira urte batzuk gaur kontatu edo, hein batean, kritikatu nahi dudana gertatu zela. Inauteri eguna heldu zen eta mundu guztia pozik eta alai; ni, pozik, horrela utziko dugu. Goizeko lehen tragoa hartzen geunden, betiko tokian eta betikoekin. Halako batean, kuadrillako baten gurasoak pasa ziren gertutik eta honako hau entzun zen: "Begira horrek, *de punky*, ona moztorra!". Borobilaren ertzetik erantzun batek: "*De punky* ez; hori nere moduan joiak!". Eta egia zen, nire lagunaren janzkera bera zeukaten guztiok. Txupa beltza, kamiseta apurtua, mila piercing, bota zikinak eta krestak. Orduan konturatu ginen guztiok lagunak erabilitako tonuak amorru toke bat bazeukala. Inauteriek badute jai eta umore kutsu hori, baina ze grazia egiten dio punk bati jendea horrela moztortzeak? Heavy bati? Mexikar bati?... Batzuentzat kultura eta bizitza ulertzeko modua den hori, beste batzuentzat moztorro.

Informatika eta musika saioak martxoan San Joxepe Elkarte

Ikastaroen gain, Aginaga sagardotegira egingo dute irteera martxoaren 20an; aurrez eman behar da izena

I.A.A. BERGARA

Informatika ikastaroak, musika saioak eta irteera antolatuta ditu San Joxepe erretiratuen elkarteak martxorako. Astelehenean hasi ziren, Whatsappen bueltako saioekin, eta martxoaren 12ra arte iraungo dute. Martxoaren 17tik apirilaren 2ra, berriz, bideokonferentziei buruzkoa egingo dute. Saioak astelehenean eta eguaztenetan izango dira 16:30etik 18:30era bitartean.

Martxoko irteera Aginagako sagardotegira egingo dute, hilaren 20an. 10:00etan irtengo dira,

Ibargaraiko autobus geltokitik, eta egun-pasa horretan Ordizian eta Zarautzen ere egingo dituzte geldialdiak. Tokia erreserbatzeko nahitaezkoa da aurrez ordainketa egitea.

Musika izango da protagonista nagusia hilabete honetan: hilaren 18an eta 25ean, musikaz gozatzeko saioak egingo dituzte, 11:30ean hasita; eta hilaren 28an, Aitor Garitanok opera saioa egingo du, 18:00etan. Bi ekintzak Bergarako Musika Eskolarekin elkarlanean antolatutako ekintzak dira.

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

21
K
KALITATEA
Enpresa Registrada N°99/025



Ohorezko kirol abonua jaso duten Andoni Calbano, Carlos Telleria, Olatz Gabilondo, Xabier Uribealago eta Elisa Arranz. J.B.L.

Ohorezko abonua, kirol arloan eredu izateagatik

Kirol ibilbidea edo kirol arloan egindako ekarpena aitortzea helburu duten Ohorezko Kirol Abonatu Txartelak jaso dituzte Andoni Calbanok, Carlos Telleriak, Olatz Gabilondok, Xabier Uribealagok eta Elisa Arranzek; urtebetez doan erabili ahalko dute Agorrosin kiroldegia

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Asteon iragarri ditu Udalak Kirol Zerbitzuko Ohorezko Abonatu Txartela irabazi duten kirolariak. Bost pertsona saritu dituzte aurten, kirol ibilbideagatik edota kirol arloan egindako ekarpenagatik; izan ere, sariok pertsona horien ekarpena aitortzea da ekimenaren helburu nagusia.

Agorrosinera, doan, urtebetez Ohorezko Abonatu Txartela jaso dutenek urtebetez Agorrosingo kirol zerbitzu guztiak doan erabili ahalko dituzte; hori bai, behin bakarrik izan ahalko dira aukeratuak. Esan beharra dago sari hori ez dela soilik kirol lorpenengatik ematen, baita kirola sustatzeko eta komunitatean eragin positiboa

izateko egiten den lanagatik ere. Aurten bost pertsona hauek saritu dituzte: Carlos Telleria Viana, Olatz Gabilondo Zenitagoia, Xabier Uribealago Bikuña, Andoni Calbano Osinaga eta Elisa Arranz Cuellar.

Sarituaren sorpresa eta esker ona Azken saritu horrek ohitura du asteen lauzpabost aldiz joateko

Agorrosingo igerilekuetara, eta, lotsaz hartu badu ere albiste, oso pozik dago: "Poztasun handiz jaso dut saria. Deia jaso nuen egunean ez nuen sinistu, horrelakoak niretzat ez direlako izaten. Nola joango naiz ni halako ekitaldi batera? Esan zidaten baietz, ondo merezita dudala, eta urtebetez igerilekura joan ahalko naizela ordaindu gabe. Azken hori esan zidatenean, are gehiago poztu nintzen".

Beste sarituetako bat Olatz Gabilondo Zenitagoia txirridularia izan da, Euskadiko eta Gipuzkoako elite mailako txapelduna, eta Laboral Kutxa zein Urretxuko Zatika taldean ibilbide bikaina egin duena. Herriarren botoei esker saritua izatea ez zuen espero: "Herriarren babesa jaso izana asko eskertzen da, ez nuen espero. Saria baliatuko dut; orain gimnasioa erabiliko dut, bereziki, eta uda partean igerilekutik ere pasatuko gara, seguru".

Andoni Calbano Osinaga atletak ere jaso du ohorezko kirol abonua. Inoizko euskal atleta azkarrena da 200 metrokoan, 2024ko Espainiako 4x100 metroko probako txapelduna eta 2025eko Espainiako rankingeko liderra pista estalian. Orain, ondo deskantsatzea du lehentasun, baina laster hasi beharko du berritua ere entrenatzen: "Orain, deskantsatzen ari naiz, baina abuztuan Espainiako txapelketa dut berritua ere, aire librean, eta horrek esan nahi du laster hasi beharko dudala topera entrenatzen. Bestalde, saria ederto etorriko zait; egunero Donostiara joan beharrean, aukera izango dut herrian bertan nahi beste entrenatzeko. Eskertzen da Udalaren partetik halako aukera bat jasotzea".

Ohorezko kirol abonuoak lorpenez harago doazen seinale, Lokatza, Antxintxika eta Hankaluze taldeentzat egindako lan boluntarioagatik jaso du saria Xabier Uribealago Bikuña. Uribealagok Lokatza Ziklismo Eskola nabarmendu du, bereziki: "Gure entrenatzaileek jakin zuten ziklismoaren bueltan inplikatzeko har hori sartzen. Hiruzpalau lagun gaude urte luzez Lokatzaren bueltan lanean, eta asko ematen digu. Ziklista gazteekin lan egitea itzela da; sekulako ilusioz bizi dugu orain Olatz [Gabilondo] egiten ari dena edo bere garaian Mikel Aristi, Julen Irizar eta Jokin Etxabe ziklistak profesionaletan ikustea".

Udalari esker ona adierazi nahi izan dio Uribealagok, baina eskaera bat egiteko ere baliatu du saria: "Calbanorekin berba eginda, egia da korrikariok faltan igartzeko dugula duela urte batzuk kendu zuten atletismo-pista. Korrika egiteko pista bat behar dugu Bergaran".

Hautaketarako irizpideak Epaimahaia Udaleko zinegotzi Olatz Manuelek eta Kepa Sebaiek, 2024an saritutako Nerea Agirrezabalek eta Ritxar de Goñik eta Kirol Zerbitzuko buru Inaki Ugarteburuk osatu dute. hainbat irizpide hartu dituzte kontuan; besteak beste, kirol meritua, dedikazioa, parekidetasuna, inklusibitatea eta kirol diziplinaren izaera minoritarioa.

MERITUA, DEDIKAZIOA, PAREKIDETASUNA, INKLUSIBITATEA ETA KIROLA MINORITARIOA IZATEA, IRIZPIDEAK

Emakumeen Txokoaz hausnartzeko mahai ingurua hilaren 13an

Arrizuriagako txoko feministaren bueltan, mahai ingurua antolatuta dute hilaren 13rako, Seminarixoa (18:30). Basauriko Marienea etxeko kide feministak, Oñatiko mugimendu feministak Jone Arrazola eta Martxanteretako Luciana Alfaro arituko dira hizlari. Argibide gehiagorako eta izena emateko: berdintasuna@bergara.eus edo 688 81 17 60.

Bergarako hitanoa lantzeko ikastaroan izena eman daiteke

Bergarako hitanoa lantzeko hamabi orduko ikastaroa antolatuta dute, martxoaren 24tik apirilaren 4ra egingo dituzte bi orduko sei saiotan. Hitanoaren erabilera eta ezagutza sustatzea helburu, parte hartu nahi dutenek martxoaren 20a baino lehen eman beharko dute izena Udal Euskaltegian: 943 76 44 53 edo euskaltegia@bergara.eus. Prezioa: 15,45 euro.

Hilaren 16ko kantu jirarako entsegua martxoaren 12an

Udalak eta Jardunek kantu jira antolatuta dute martxoaren 16rako -San Martin plazan, 12:30ean hasita-, udal txistulari bandak lagunduta. Martxoaren 12an entsegua egingo dute, San Jozepe elkartean, eta izena eman behar da martxoaren 9rako: 605 71 24 69 (Jardun). Gutxieneko kopuru batera ez badira heltzen, ez da entsegurik egingo

OHARRAK

Hankaluze Trail: irteera mistoa egingo dute Emakumezkoak bakarrik beharrean, oraingoan gizonezkoak ere deitu dituzte korrika egitera. Domekan, martxoak 9, palmondoaren biribilgunean elkartuko dira, Irutontorreta ingurura joateko; 11 kilometro inguruko irteera izango da.

Liburu aurkezpena Olaso dorrean Olaso Dorrea Fundazioak eta Kukubaso elkarteak antolatuta, Aitor Ventureira idazlearen *Ecos del bosque* liburuaren aurkezpena izango da martxoaren 11n Olaso dorrean (19:00).

Odol Emaileen Elkarte: hurrengo ateratzea Martxoaren 12an, Arin eguneko zentroan, 16:30etik 20:30era.



M8

Aldarrikapen, aitortza eta ospakizun ekitaldiak

Herriko hainbat eragilek antolatutako ekintzek osatu dute Martxoaren 8a ospatzeko egitaraua, eta, hain zuzen, elkarretaratzea, pintxoak, hitzaldia, bazkaria, manifestazioa, artisau azoka, filma eta musika kontzertua izango dira, besteak beste

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Martxoaren 8a aldarrikapen, aitortza eta ospakizun eguna izateko moduko ekitaldiak antolatu dituzte herriko hainbat eragile desberdinek. Bihar izango dira gehienak, zapatua, baina zineklubean, esaterako, aste honetako zein hurrengoko film emanaldiak daude programatuta, Emakumeen Nazioarteko Egunarekin bat egiteko.

Bilkura eta manifestazioa

Zapatu eguerdian elkarretaratzea egingo dute, Olakua auzoko urmaelaren ondoan, Lagun Leku erretiratu elkarteak antolatuta. Horren ostean, mokadutxoak eskainiko dituzte, Eltzian duten lokalean: salda eta txorizoa. 14:30ean, berriz, bazkari feminista egingo dute, gaztetxean; gaur, egubakoitza, da azken eguna izena emateko, Arrano tabernan. Bazkariaren aurretik, baina, 11:00etan, hitzaldia egongo da, gaztetxean bertan. *Euskal musika panorama emakume eta disidentzien bizipenetatik* izango da solasaldiaren gai nagusia, eta Aiert Alberdi musikari oñatiarrak eta Nerea Loron *La Furia* abeslariak hartuko dute parte.

Azoka domeka goizean

Arratsaldean egingo duten manifestazioa 18:00etan abiatuko da, plazatik, mugimendu feministak antolatuta. Ordu berean, Santa Ana antzokian, herriko emakume dendariei aitortza egingo die Hots abesbatzak. Faktoria soziala egitasmoaren barruan, *Emakumeek idatzia* izeneko kontzertua emango du; abestuko dituzten pieza guztiak emakumeek idatzitakoak izango dira. Joan den urtean, nagusien egoitzako zaintzaileak omendu zituzten sasoi honetan, eta aurtun, herriko emakume dendariei egingo diete aitortza, Txanda

elkartearekin batera. Sarrera doan izango da.

Eta asteburuko azken ekitaldia domeka goizean berdura plazan egingo duten emakume artisauen azoka izango da. Bitxiak eta oihalekin zein larruarekin egindako produktuak, egongo dira, besteak beste, azoka horretan; 10:30etik 14:15era.

Udalbatzaren adierazpena

Oñatiko udalbatza osatzen duten bi alderdiek, bestalde, Martxoaren 8ari begira egindako adierazpen bateratua aurkeztu eta onartu zuten otsaileko ohiko osoko bilkuran. Adierazpen horretan, bat egin dute Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma adopzioaren 30. urteurreneko ospakizunarekin. Azken hiru hamarkadetan aurrerapauso garrantzitsuak eman diren arren bilakaera desorekatua izan dela jaso dute, eta gehitu dute oraindik munduko herrial-

MANIFESTAZIOA, PLAZATIK IRTENDA, ETA AITORTZA KONTZERTUA, SANTA ANAN; BIAK 18:00ETAN



Joan den urteko manifestazioa, plazara heltzen. GOIENA

de bakar batek ere ez duela lortu emakumeen eta gizonen arteko genero-berdintasuna. Berdintasunerako bide horretan berdintasun politikak urte osoan garatzeko konpromisoa dutela adierazi dute udal ordezkariak; eta Martxoaren 8a aldarrikapen eguna ere badela esan eta bakoitzak bere eremutik, tokitik, lan egin behar duela gaineratu dute.

Bi alderdiek adierazpenean jaso dute honako konpromiso hauek hartuko dituela Oñatiko Udalak, besteak beste: emakumeen elkartegintza eta elkarte feministak sustatzea; tokiko gobernuetan emakumeek eta gizonen berdintasunez parte hartzeko eta eragiteko errazten dituzten baldintzak sortzeko akordioak hartzea; herritarren artean indarkeria matxistari aurre egiteko programak garatzea, gizonak eta mutikoak bereziki mugiaraziz; arreta eta koordinazio-protokoloak eguneratzea, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimak eta bizirauleak onbideratzeko eta emakumeen etxea egituran integratzeko; eta zaintzaren inguruan estrategiak garatzean ikuspegi feminista txertatzea.



Mallako harrapalekuko lanak egiten. OÑATIKO UDALA

la 80.000 euro inbertitu zituzten iaz Goilarre programan

Herriko 101 abeltzainen 3.422 abelburuk erabili zituzten Aloña, Araotz-Txirikillaleku eta Artiako larreak

O.E.G. OÑATI

Guztira, 79.605 euroko inbertsioa egin zuten joan den urtean Aloña, Araotz-Txirikillaleku eta Artiako herri larretan, Udalak emandako datuen arabera; 26.500 euro pasa jarri zituen Udalak eta 53.000 pasatxo Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Hain zuzen ere, bi erakunde horien arteko finantzaketan oinarritzen da Goilarre programa, eta helburua da herri onurako mendien larreetan jarduten duten ganaduzaleen bizi- eta lan-baldintzak hobetzea. Beharrezkoak diren hobekuntzak abeltzainek

eurek identifikatzen dituzte, eta lehentasunen arabera sailkatu, euren elkartearen bitartez, eta Udalarri jakinarazten diete gero. Lan hauek egin zituzten: xehaketak eskuz zein traktorearekin, Mallako harrapalekuko lana eta materiala, txaboletako lanak, uraren garraioa edo hainbat pasabide kanadarren garbikuntza- eta erremate-lanak.

Herriko 101 abeltzainen abelburuek erabili zituzten joan den urtean herri onurako hiru mendi haietako larreak: ardiak -2.741-, behorak -526-, behiak -135- eta ahuntzak -20-.

Gimnasioko pisu libreko lurra aldatu egingo dute

Gimnasioko pisu libreko gunean goma jartzeko lanak egingo dituzte datorren astean. Hori dela eta, eremu hura tarteka egongo da bakarrik erabilgarri hainbat egunez.

Martitzenetik eguenera bitartean egin gura dituzte lanak: hilaren 11n, martitzena, indarguneko makinak mugitzeko lanak egingo dituzte; eguaztenean lurra jarriko dute, eta, beraz, eremu hura ez da erabilgarri egingo; eguenean, hilak 13, makinak euren tokian jarriko dituzte berriro. Kiroldegiko arduradunek barkamena eskatu gura diete gimnasioko erabiltzaileei, lan horiek sor diezazkieketen endredoengatik.

OHARRAK

Hika ikastaroa

Toka eta noka ikasteko ikastaroa egingo dute euskaltegian zortzi astelehenetan. Gaur, egubakoitza, da izena emateko azken eguna.

Igerilekuak, itxita

Gipuzkoa mailako igeriketa txapelketa egongo da zapatuan Zubikoan, eta igerilekuak itxita egongo dira erabiltzaileendako 15:00etatik 18:30era.

Aurkezpena

Zapatuan aurkeztuko dituzte aurtengo denboraldiko Aloña Mendiko txirrindulariak; unibertsitatean izango da ekitaldia, 12:00etan.



Izaskun –Danel Teran–, Potx –Josu Zubia–, Lotx –Itziar Arkauz– eta Xabi Sound –Ander Murillo–, topa egiten. JULEN MURUA

Lagunekin ospatu gura dute bosgarren lana

'Lagunekin topa' du izena Potx eta Lotx pailazoen kaleratu duten azken lanak. Ikuskizuna eta diskoa, biak prestatu dituzte, eta Euskal Herriko pailazo askoren kolaborazioak izan dituzte. Antzezlanaren datorren astean estreinatuko dute

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Potx eta Lotx pailazoen bosgarren lana kaleratu berri dute. Zenbaki borobila izanik, hamar urte baino gehiagoko oholta gaineko ibilbidea ospatzeko baliatuko dute lana, eta, batez ere, "ibilbide hori lagunekin ospatzeko". Diskoa eta ikuskizuna, biak prestatu dituzte, eta zuzeneko emanaldietan ere egoera horixe ikusiko dute ikus-entzuleek: euren lagun Xabi Soundek –Ander Murillo– eta Izaskunek –Danel Teran– festa erraldoi bat prestatu diete pailazoei; baina haiek, urduri, behar baino lehenago iritsi dira festara. Xabi Soundek eta Izaskunek, denbora irabazi nahian, orain arteko ibilbidean ezagututako lagunak deituko dituzte, pailazoak entretenitzeko asmoz; Rikardo Anakardo barrakako langilea eta Susi azafata, esaterako.

Takolo eta Lauroba

Euskal Herriko pailazoen batera prestatutako lana da

Potx eta Lotxen azkena, *Lagunekin topa* izenekoa. Horregatik, orain arteko diskorik "berezi-na" dela dio Josu Zubia *Potx*-ek: "Bidean egin ditugun lagun guztiekin ospatu nahi genuen gure oholta gaineko bosgarren denboraldi hau, eta, horregatik, diskoan parte hartzeko gonbita egin genien. Guk dakigula, inoiz ez da horrelakorik egin Euskal Herrian, eta aspalditik genuen guztiok batu eta elkarrekin zerbait polita egiteko nahia. Segituan jaso genuen gainontzeko pailazoen baietza". Itziar Arkauz *Lotx*-endako ere badu osagai gehigarri bat lan horrek, berriz igoko delako oholta gainera, ia urtebetez kanpoan izan ostean, eta gogotsu dago hasieratik eu-

JOSU ZUBIAK MOLDATU DITU ABESTIAK, LAUROBAREN ETA FLORESEN LAGUNTZAREKIN

ren ibilbidea jarraitu duten guztiekin pentsatuta sortu duten ikuskizun hori herriz herri erakusteko: "Haienezako opari moduko bat ere bada lan berri hori, hasiera-hasieratik gurekin egoteagatik, inork ezagutzen ez gintuenean ere".

Takolo, Porrotx, Pirritx eta Mari Motots pailazoen hartu dute parte, esate baterako, lan berri horretan. Urtero lez, Pernan Goñi ilustratzaile oñatiarrak egin ditu liburuxkako ilustrazioak eta Josu Zubiak egin ditu abestien moldaketak, Oriol Floresen bateriaren eta Iker Laurobaren gitarren laguntzarekin. Gaztain estudioan grabatu dituzte abestiak, Eñaut Gaztañagaren eskutik, eta dagoeneko entzungai daude plataforma digital guztietan.

Urretxun lehenengoa

Martxoaren 16an estreinatuko dute lan berria, Urretxun, eta Erandion, Lazkaon eta Azpeitian izango dira apirillean.



NIRE USTEZ

AITOR UGALDE

Talentua

Asko aipatzen dugu talentua ondo prestatutako pertsoneri buruz ari garenean. Zaindu eta erakarri egin behar dela esaten dugu. Aurreratuak deitutako lurraldeak lehian daude hango eta hemengo talentudunak erakartzeko, eta gu ere horretan gaude. Lehiak kutsu kolonialista ere badauka, kasu askotan jatorriko lurraldeetan talentu horren behar handiagoa dagoelako.

Sektore enpresarialetan aipatzen da, batik bat, talentua; hemengo *cluster*-ek eta hango *holding*-ek hitza bahitu ere egin dute. Baita gizartearen gidaritzat azaltzen direnak eta gure bidea industria militarra eta nuklearra bultzatzea dela diotenean ere. Hazkunde ekonomiarekin jarraitzeko nahi dute talentua; alegia, *txatxi-piruli-guay* moduan azaltzen diguten gure esklabo bizitzarekin jarraitzeko.

Bai, behar dugu talentua enpresetan, hezkuntzan, kulturaren, politikan, giza harremanetan... Eta behar dugu talentua bizi garen sistema honi, kapitalistari, buelta eman eta beste bizimodu bat lantzeko. Horretan talentu asko behar dugu.



GOIENA

Denboraldia hasteko, oñatiarrak

Hamaikagarren denboraldia hasiko du Goiena telebistako *Galdegazte* saioak, eta Oñatiko ikasleek parte hartuko dute estreinako saioan. Arrasateko Kontralde taldeko abeslari Oxel Arriaran elkarrizketatuko dute Oñati Institututuko ikasleek. Saioa martitzenean emango dute, hilaren 11n, 20:00etan eta 22:00etan.

Quico Cadaval etorriko da eguaztenean Oñatira

Quico Cadaval ipuin kontalaria Oñatira izango da eguaztenean, hilak 12. Ahoz Aho jardunaldien barruan, nagusiendako ipuin kontaketa egingo du Max saria irabazita duen ipuin kontalari galziarrak. Liburutegian izango da, 19:00etan. *Fantasmas familiares* ipuina kontatuko du, ahozko tradizioko historiak uni-bertsalak ote diren ikusteko.



Quico Cadaval. UDAL LIBURUTEGIA



Manex Bengoa, ezkerrean, eta Aitzol Ovejero, eskuman, aste barruko entrenamendu saio batean. XABIER URTZELAI ATXA

"Ikasitakoa ringera eramatea da helburua"

MANEX BENGOA ETA AITZOL OVEJERO BOXEOLARIAK

BOXEOA Gaur, egubakoitza, Uarkapen egingo duten jaialdian (21:30) bi arrasatear horiek egingo dute debuta. Guztira hamabi borrokaldi egongo dira ikusgai

Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE

Eguazten arrasalde da, bi egun baino ez dira geratzen egubakoitzeko boxeo jaialdirako, eta Aitzol Ovejero (2008) eta Manex Bengoa (2003) arrasatearrak Ixa Rodriguez entrenatzaile eta jaialdiko antolatzailearekin azken detaileei buruz ari dira berbetan. Poliki-poliki jendea Erguingo gimnasia bertaratzen ari da, entrenamendu eguna dute eta. "Borrokaldiak ze ordutan izango dituzten ari gara komentatzen", dio Rodriguezek. Oraingoz, lasai

daude protagonistak, nahiz eta eguna gerturatu ahala badakiten sabela estutzen joango zaiela. Egubakoitzean 19:30ean izango dute pisaketa, Iluntz tabernan, eta jaialdia 21:30ean hasiko dute. Hamabi borrokaldi izango dira

"HIRU MINUTUKO HIRU ROUND LUZE EGIN DAITEZKE; BEREZIKI, BURUARENDAKO"

guztira –sarrerak, Uarkapeko leihatilan, 25 eurotan–.

Urduri borrokaldirako?

Aitzol Ovejero: Bai, apur bat bai, ez dugu gezurrik esango.

Manex Bengoa: Bai; eguna gerturatu dabilen neurrian, urduritasuna ere gehiago sumatzen dugu. Baina gogotsu gaude. Ea egubakoitza lehenbailehen iristen den.

Zelan iritsi zarete boxeora?

A.O.: Gaztetan Lekeition jokatzan nuen futbolearen [han jaiotakoa da], eta lagun baten bitartez hasi

nintzen boxeoa, eta, behin hasita, kontaktuzko kirolak jarraitzen hasi nintzen. Sorabox taldean oso gustura dihardut, boxeoa erlaxatzen laguntzen dit, eta, aldi berean, indartsu sentiarazten nau. Boxeoarekin maiteminduta nagoela esango nuke. **M.B.:** Ni, berriz, gaztetan pilotan eta futbolearen ibilitakoa naiz, baina, aspertzen hasita nengoe-lako edo, duela hiru urte inguru boxeoa hasi nintzen, eta iaz erabaki nuen ringera igo nahi nuela. Azken hilabeteak horretarako prestatzen ibili gara. **Zer eskatzen diozue egubakoitzeko borrokaldiari?**

A.O.: Ehuneko ehuna eman nahiko nuke; emaitza dena delakoa izanda ere, egindako lanarekin pozik geratzea. Ringean saiatuko naiz burua hotz mantentzen, eta gogoan izango dut zergatik nagoen han, baita etxeokak eta lagunak harmailetan ditudala animatzen ere.

M.B.: Helburu nagusia da urte hauetan ikasitakoa borrokaldian erakutsi ahal izatea. Entrenatzailearen aginduei kasu egiten saiatuko naiz; ez dakit posible izango den, baina, behintzat, saiatuko naiz [Barre].

Etxean egingo duzue boxeolari moduan debuta; opari ederra da hori, baina arriskutsua ere izan daiteke...

A.O.: Bai, presio handia izango dugulako. Baina, nire ustez, gauza oso positiboa da, pozik nago etxeokak ondoan izango ditudalako eta boxerako balio dudana edo ez erakutsi ahal izango dudalako.

M.B.: Urduritasuna bikoiztu egiten da etxean debutatzen denean, baina, neurri berean, motibazioa eta poztasuna ere bikoiztu egiten da.

Zer dakizue ringean aurrean izango dituzuen kontrarioen gainean? Asko erreparatzen diozue horri ala zuen lana egitea da lehentasuna?

A.O.: Norberak borrokaldi ahalik eta onena egitea du helburu, baina garrantzitsua da kontrarioa apur bat ezagutzea, zer egin behar duzun jakitea. Ibili naiz apur bat begira, eta badakit zer egin behar dudana.

"BORROKALDIAREN EMAITZA EDOZEIN DELA ERE, EZ DUGU AMORE EMATEKO ASMORIK"

M.B.: Nik ez daukat erreferentzia handirik, ni baino nagusia goa da [27 urte] eta badakit pare bat borrokaldi egin dituela.

Borrokalaria amateurrak zarete; zein pisutan lehiatuko zarete?

A.O.: 63,5 kilokoetan lehiatuko naiz ni.

M.B.: Ni, berriz, 64 kilokoetan. **Eta, egunotan gosea pasatzen ari zarete?**

A.O.: Ez; egia esan, nahi dudana guztia jaten ari naiz [Barre].

M.B.: Azken bi hilabeteotan joan gara poliki-poliki pisua galtzen, modu progresiboan egin dugu, eta, alde horretatik, lasai gaude. Gainera, pisaketatik borrokaldira pare bat ordu baino ez daude, ez genuke tarte handirik izango pisu-errebotea ondo egiteko, denbora horretan pisu asko errekuaratzeko.

Zelan aurreikusten duzue egubakoitzeko eguna?

M.B.: Eguena eta egubakoitza jai hartu ditut lanean, borrokaldira begira deskantsatuta egoteko. JMAN egiten dut lan, eta badakit lankideak ere joango direla borrokaldia ikustera.

A.O.: Ni FP ikasketak egiten nabil, Aretxabaletan, eta saiatuko naiz egubakoitzean ahalik eta lo gehien egiten. Eta ondoren, eguna ahalik eta lasaien igarotzea izango da helburua, gauean fresko egoteko.

Astelehen gogorra aurreikusten duzue?

A.O.: Zapatua eta domeka izango ditut atsedean hartzeko, eta, gainera, borrokaldiaren ostean hanburgesa on bat jatera joango naiz; horrenbestez... [Barre].

Zeren arabera erabakiko duzue borrokaldi gehiagotan parte hartzea?

A.O.: Nik badakit borrokaldia edozein dela ere ez dudala amorerik emango; boxeoa borrokatzen jarraitzeko asmoa daukat.

M.B.: Lehenengo borrokaldi hori esperientzia bizi izateko egingo dut; ez daukat, oraingoz, galdera horrendako erantzunik. Imajinatzen dut borrokaldi ostean errazago erantzungo dizudala: zelan sentitu naizen, gozatu dudana edo ez... Ikusteko dago hori guztia.

Hiru minutuko hiru round izango dituzue...

A.O.: Bederatzi minutu dira guztira; badirudi gutxi dela, baina...

M.B.: Hankendako, ukabilendako eta, bereziki, buruarendako asko izan daitezke, bai.



Bergarako taldeko jokalariek eta entrenatzaileak, Antiguokori irabazi berritan, joan den astean. BKE / MIKEL LARRAÑAGA

"Edonori irabazteko kapaz da talde hau"

FUTBOLA Ohorezko Erregional Mailara igo berri den Bergara laugarren dago, eta lider dagoen Antiguokori 4-0 irabazi berri dio. "Iazko taldea mantentzean egon da gakoa; izan ere, konfiantzarekin gaude", esan du Lander Ugarte entrenatzaileak

Xabier Urtzelai Atxa BERGARA

Kategoriaz igo berri den taldea da Bergara, Gorengo Mailatik Ohorezko Erregionalera, eta bergararrak denboraldi borobila egiten dabilta, liga amaitzeko geratzen diren bederatzi jardunaldietan mailaz igotzeko lehian sartu dira eta. Taldea laugarren dago sailkapenean (42 puntu), eta, konfirmatuta ez bada ere, seguruenik lehenengo bi sailkatuak igoko dira mailaz. Hala, lider dagoen Antiguokok (47) zigor ederra jaso zuen asteburuan Agorrosinen, Lander Ugarteren neskek lau gol egin zizkioten eta (4-0). "Partidu osoa egin genuen, defentsan serio ibili ginen eta ez genuen askorik

sufritu, gure atea hutsean mantendu genuen eta hori Antiguokoren kontra ez da erraza. Partidu ona egin genuen eta erakutsi dugu %100 gaudenean maila honetako edonori irabazteko kapaz garela. Liga hasi genduan ikusten genuen bazeudela gu baino koska bat gorago zeuden taldeak, baina taldeak aurrerapausoa eman du eta partidu guztietan lehiakor izan gaitzkeela sinetsita gaude".

Iazko talde ia bera

Ugartek nabarmendu du duela bi urte kategoria galdu izanak on egin diela: "Aldaketak egin ahal izan genituen orduan, sistematizatu genuen eta Goren-

go Mailan egindako urte onak konfiantza eman zigun. Aurten, berriz, klabea izan da taldea mantendu izana; izan ere, lehen denboraldi amaiera bakoitzean 7-8 jokalarik taldea uzten zuten eta ia-ia hutsetik hasi behar genuen lanean. Aurten ez; jokalariek elkarrekin jokatzera ohituta daude, eta kanpotik etorri direnek ekarpen polita egiten dihardute. Hori guztia batuta lortu dugu gauden tokian egotea, eta, lehen esan dudan moduan, liga amaierara arte aurrean egoteko esperantza dugu".

Liga amaiera zirrargarria

Mahoneroei bederatzi jardunaldi geratzen zaizkie, eta Ugarterek

ez du ezkututzen mailaz igotzeko lehian ibiltzeko moduan dardela: "Gainera, azken bi jardunaldietan, orain momentuan gure gaintetik dauden Goierri Gorri eta Intxaurdi izango ditugu kontrario. Ikusteko dago bi jardunaldi horien faltan sailkapenak zer erakusten duen, bestela ere datozen asteotan kontrario gogorak izango ditugu eta. Esaterako, oraingo asteburuan Lagun Onak-en zelaian jokatu dugu, eta ez da partidu erraza izango. Baina, hain zuzen ere, lau garaipen segidan lortu ditugu, taldea konfiantzaz ikusten dut eta esango nuke talde guztiek lehenago edo geroago izaten duten bolada txarra Gabonen bueltan gaintitu genuela. Ea maila honi eusten diogun eta liga amaierara arte goialdekoekin lehian jarraitzerik dugun".

Debagoiena Bailara, igueran

Gorengo Mailako iguera fasea jokatzeko dabil, bestalde, Debagoiena Bailara taldea. Faseko lehenengo jardunaldian, joan den asteburuan, debagoienarrek atsedean izan zuten, eta oraingo asteburuan jokatu dute lehenengo partidua: gaur, egubakoitza, 21:00etan, Ibarra, Oriokoren kontra.

UDAK, Santurtziren bisita

Gizezkoen Hirugarren Federazio Mailan, Aretxabaletak bolada txukunean datorren Santurtzi izango du aurrean domekan (16:30, Ibarra), eta Ohorezko Erregionalen Mondrak ere etxean jokatu du zapatuan (16:30), kontrario zuzena den Deustoren kontra. Bergarak eta Real Unioneke, berriz, kanpoan jokatu dute zapatuan (16:30); Irunen eta Azkoitian, hurrenez urren.

ARETO FUTBOLA

Mondratek eta Eskoriatzak, etxean

Euskadiko Txapelketan, Mondratek eta Eskoriatzak etxean jokatu dute. Arrasatearrak hirugarren daude sailkapenean, eta atzealdean dauden Ribabellakoak hartuko dituzte zapatuan (16:30, Musakola). Eskoriatza sailkapenaren erdialdean dago, eta apur bat atzerago dauden Usansolokoekin bisita izango dute domekan (18:00).

FUTBOLA Manu Diazek jarraituko du Federazioa zuzentzen

Garai Berriak taldea da Gipuzkoako Futbol Federazioa zuzentzen jarraitzea aurkeztu den hautagai bakarra; horrenbestez, Manu Diaz bergararrak zuzentzen duen taldeak beste hiru urtez jarraituko du. Hautakundeak Kirol Lege berriatik atzeratu izan dituzte; hala, hurrengo agintaldia hiru urtekoa izango da, 2028ra arte.

MENDIA Euskal Ibiltarien jai domekan Elgetan

Euskal Mendizale Federazioak antolatzen duen hitzordua egingo dute domekan Elgetan. Oraingoan, 183 pertsona daude izena emanda. 08:00etan hasita, 20 kilometroko mendi itzulia egingo dute -kiroldegian elkartuko dira- eta 14:00etan 2024ko finalisten diplomak banatuko dituzte. Bazkaria egingo dute gero (14:30).

Realaren eta Valladoliden arteko partidarako sarrerak
futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Valladolid norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuzen eta zuzen aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik. Partidua martxoaren 28ko asteburuan izango da. Parte hartzeko azken eguna: martxoaren 23a.

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!

1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!

Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzue!

goiena
kide

Okm:
batzen gaituen distantzia

Aitziber Aranburuzabala Juldain

BERGARA

Programatzen diren musika ekitaldien kopuruari eta kalitateari begiratuta, eskaintza aberatsa dago eskualdean. Asteburu honetan, baina, ezohiko kartelak ohi baino gehiago nabarmenduko dira.

Martxoaren 8aren bueltan antolatutakoak dira gehienak. Emakumeek plazak hartzeko espazioak gehitu eta handitu egiten dira martxoan orokorrean; tamalez, programatzaile eta publiko askorentzako Martxoaren 8aren efektua ez da urteko hilabete guztietara heltzen.

Martxoaren 8aren eragina

Emakume artista askorentzako, izan musika arloan edo beste-lako diziplinetakoentzako ere, martxo hilabete lanpetua izaten da. "Lanpetuegia", batzuentzako. Nerea Loron Diaz *La Furia* Bergarako Seminarixoan (21:30) izango da gaur, egubakoitza. Hark hala erabakita, asteburuan bakarria egingo duela adierazi du: "Ditudan aukerekin nire agenda nik nahi dudana moduan dago. Horrek esan gura du ezetz eman diedala gauza batzuei. Honezkerok, aske izatea da nire asmoa, pentsa, eta ezetzkoa esan ahal izatea batek bizi ahal duen gauzarik handienetakoa da, plazer handia ematen dit niri. Kartelean ez dauden gauza batzuk ere egingo ditut M-8aren bueltan, kontzertuak ez direnak. Baina azpimarratuko dut ezetz esatea eta baldintza onetan egitea; izan ere, txarrena da ezetzkoa esateak, batzuetan, asko zigortzen duela eta beste batzuetan, bada, ezin duzula ezetz esan, beste inor ez dagoelako... Ez gara adarbakarrak, mikrofono bat dagokigu urteko egun guztietan, uste dut badela garaia batzuk apur bat isiltzeko eta beste batzuek berba egiteko".

Olaia Inziarte eta Anari domekan izango dira Debagoienean; Arrasaten eta Bergaran, hurrenez hurren. Gaurtik eguazteneira bitartean lau kontzertu egingo dituela azaldu du Anarik: "Kostatu zitzaidan M-8aren bueltako eskarien kontua nola kokatu edo kudeatu. Bada, orain egiten dudana da beste garai edo programazio baten jo deza-kedala uste dugun tokiei ematea baiezkua, eta, bestela, ezetz esaten dut. Kostatu zitzaidan hori teorizatzea".



La Furia musikaria. ALKIMIA PROD



Anari, abeslaria. WIKIMARIBARRE



Olaia Inziarte musikaria. MAITANE CAMPOS

Olatu morearen eraginez, emakumezko musikarien ahotsak presenteago

Nerea Loron Diazek gidatutako La Furia proiektua izango da Seminarixoan gaur, 21:30ean; Anari taldeak Bergarako kartzela zaharrean joko du domekan, 19:00etan; eta Olaia Inziarte entzuteko aukera izango da etzi Arrasateko Amaia antzokian

La Furia, 'Ultra' biran

Artista asko behatu eta entzun dituen Seminarixoko agertoki gainera estreinakoz igotzeko "ilusioarekin" dago La Furia. "Gaurko kontzertura begira, gogotsu eta, aldi berean, urduri samar ere banago azkeneko urteetan nire jendea den Debagoieneko jendearekin aretoan elkartzeko. Lau lagun izango gara taularen gainean: gure ontziko nagusia den DJ Valentina bergarra, Oreretako Janire eta Donostiako Eneko dantzariak eta ni neu. Atzeko lanetan, edo alde teknikoan, hau da, soinu

'ULTRA' LANA AURKEZTUKO DU LA FURIAK, GAUR, BERGARAKO SEMINARIXOAN

eta argiekin, Iñaki eta Bane izango dira, eta mimo handiz zaintzen gaituen Baga Bigako Goiko ere han izango da. Harro nago dudana lantaldearekin".

Urtarrilean abiatu zuen La Furiak *Ultra* bira, Bilbon, eta harrezkerok "gustura" ari da proiektu berria jendaurrean aurkezten: "Bilboko kontzertua oso garrantzitsua izan zen, behar nuen berotasuna jaso nuelako, nire ibilbidean oso garrantzitsua den lekua izanda. Bide oso polita ari da izaten bira; dudana sentsazioa da egon gura dudana tokian nagoela. Izugarri gustatzen zait diskoa eta lantaldea eta liluratuta nago eraiki dugunarekin. Egia esan, pozarren nago gure proposamenarekin. Kontzertuaren deskribapen onena, nire ustez, publikoak egin dezake, emozioa oso gauza pertsonala delako, nik esan ahal du-

dana da ondo lotutako engranaje garelako, pasioa dagoela, egia, gorputza, eta izugarri gustatzen zaigula egiten duguna".

Arrasaten bizi den Cascanteko musikaria "oso eskertuta" dago Seminarixora gonbidatu dutelako. *Seminarixoa.eus* eta areto leihatilan eskuratu daitezke sarrerak, zortzi eurotan.

Anari, "etxean moduan"

Iaz argitaratu zuen *Giza zarata* lana 90eko hamarkada ezkerko musikagintzan diharduen Azkoitiko musikariak, eta gustura ari da jendaurrean aurkezten.

'GIZA ZARATA' IZANGO DU ARDATZ ANARIK ETZI, "OSO GERTUKO" DUEN BERGARAKO GAZTETXEAN

Txapa Irratiak gonbidatuta egingo du kontzertua, domekan, Bergarako irrati librearen 40. urteurrenaren egitarauaren baitan. 19:00etan hasiko da kontzertua, eta antolatzaileek adierazi dute 18:00etan zabalduko dutela leihatila.

Ondo ezagutzen eta oso gustuko duen agertokia da Bergarako gaztetxea eta pozik dago, beste behin, bere kantuak han eskaintzeko. Hauxe esan du, asteon, Txapa Irratiko *Kolax* saioan: "Han eta hemen aritu gara eta gauza oso ederrak eman dizkigu disko horrek. Zuzenean jotzeko disko ederra da, eta, neurri batean, gure zuzenekoak pixka bat transformatu egin ditu. Disko bakoitzak leku ezberdin batera eramaten zaitu eta honek ere hala egin du. Gure egoteko modua aldatu egin du, onerako. Beste toki batetik sentitzen naiz hau kantatzen ari naizela. Bergarako gaztetxean etxean moduan nago; askotan izan naiz, eta pozik joango gara etzi ere".

Olaia Inziarteren itzulera

2022an abiatu zen musikagintzan Oronozko (Nafarroa) musikari Olaia Inziarte gaztea, eta aurtengo urtarrilean argitaratu zuen bigarren lan luzea, *Zerrautsa* izenekoa. "Diskoak badu apur bat denetik, baina egia da intimo samarra dela. Disko gardena da, eta, batzuetan, hori arriskutsua izaten da. Bertan kontatzen direnak jendearentzako lagungarriak izatea espero dut, baina baita jendeak neurritz jokatzeko ere: euren buruan dagoena nire ahotsean esaten dela sentitu arren, jabetzea ez naizela haien laguna. Ez izatea esku eman eta besoa hartu. Eta nik neurri horiek markatzen, mugak jartzen, ikasi nahi dut", azaldu zuen Inziarterek *Puntua* aldizkariko 436. zenbakian argitaratutako elkarrizketan.

Musikatik eta hedabideetatik denbora batez aldentuta egon da, elkarrizketa hartan kontatu zuen moduan, osasun arazoak tarteko. "Askotan, zaila egiten zait azaltzea, baita inguruko ere. Amari esten nion, adibidez, inoiz ganbak soberan jan eta, enpatxatu, gaizki sartu eta gau osoan komunean bazaude, ez duzula ganbez ezer jakin nahi denbora batez. Antzerako zerbait gertatu zitzaidan musika-

rekin". Bada, indarberrituta dator lan berriarekin, agertokietara igotzeko gogoz, eta haren jarraitzaileek eskuzabalik hartu dute; horren erakusle da etzi, domeka, Amaia antzokian 19:30ean hasita egingo duen kontzerturako sarrera guztiak agortuta daudela.

Egiteko asko oraindik

Emakume* artistendako egoera hobetzen ari dela ikusten duten arren, oraindik ere asko dagoela egiteko aitortu dute arloko profesionalak. Hauxe dio La Furiak: "Pertsona feministek, antiarrazistek eta *queer*-ak erabakitzeke guneetan egon behar dute, dirua banatzen den tokietan, baita zure kontzertuen ziklorako musikariak aukeratzaren diren espazioetan ere. Hasiera bat besterik ez da hori, argi dago sare patriarkal konplexua eta ibilbide luzeko dela, eta urte asko iraungo ez duela espero dut; eskerrak, betiko moduan, buru-belarri lanean ari diren aktibistak daudela. Baina erpin asko ditu gaiak, esaterako, publikoari dagokionez. Agertokietan emakumeak eta disidentek ez daudela kezkatzen bagara, eta haiek babesten ez baditugu, euren ibilbidea zenbat luzatuko dela uste duzue? Nora helduko da horrenbeste inporta baina erosten ez duzun mezu hori? Musika proiektu feministekiko publiko moduan konpromiso bat dago ala kontzertuetara goaz irizpide hori aintzat hartu barik? Bakoitzak erantzun dezala hori".

Anarik ere bide beretik egin du hausnarketa: "Erabaki-guneetan gero eta emakume gehiago daudela sentitu dut, eta hor jarriko nuke indarra. Orokorrean, emakumeek euren lekua hartu dute proposamen askotan, *aludiatuak* sentitu diren gizon askok euren buruari "nola sentitzen diren espazio batzuetan" galdera egiteraino. Gizon inteligenteak badaude, eta feministak badira, are hobeto, asko euren burua leku horretan jartzen ari dira; izan ere, interpe-latzeko garaia da, eta guri erantzunez ari dira".

**OLAIA INZIARTEK
BETE EGINGO DU ETZI
AMAIA ANTZOKIA;
SARRERA GUZTIAK
AGORTUTA DAUDE**



Prosopagnosia film laburraren fotograma bat. EKAIN MARTINEZ DE LIZARDUY

Debagoieneko lau herritan izango da Laburbira zirkuitua

Elgetan eskainiko dute etzi; hilaren 25ean, Bergaran eta Arrasaten; eta apirilaren 9an, Aretxabaletan

Aitziber Aranburuzabala ELGETA

Donostian abiatu zuen, atzo, eguena, Taupa Euskaltzaleen Mugimenduak 22. Laburbira euskarazko film laburren zirkuitua. Euskal Herriko 50 herritara iritsiko da; horien artean, Elgetara, etzi, domeka; Arrasatera eta Bergarara, martxoaren 25ean; eta Aretxabaletara, apirilaren 9an.

Euskal zinemagintza hauspo-tzea, zinemagileei euren lanak erakusteko aukera ematea eta herritarrei euskaraz sortutako film laburrak ezagutaraztea du Laburbira ekimenak hastapenetatik helburu.

Zortzi lan guztira

Guztira 97 minutuko film labur sorta da eskaintza, denetariko istorioak eta kontatzeko moduak batzen dituena: Goya sarietarako izendatutako Ekain Irigoienek *Europa* zein Eneko Sagardoyren

Betiko gaua; Alba Lozanok zuzendu eta Huhezinema jaialdia irabazi zuen *Utlandsk*; Alaia Martinek, Karmele Mitxelenak eta Iraitz Mateok zuzendu duten *Pentsatzen dut*; Jone Arriolaren *Hor konpon*; Nerea Ayalaren, Patricia Fañanasen, David Modroñoren eta Iraia Yartoren *Goodbay kepler*; Sonia Estevezen *Plazer bat*; eta Aretxabaletan bizi den Ekain Martinez de Lizarduyren *Prosopagnosia*.

Elgetan, domekan

Espaloia antzokian 18:00etan izango dira filmak ikusgai domekan, eta han izango da Ekain Martinez de Lizarduy. "Bide ederra ari gara egiten filmarekin. Oso pozik nago, lan oso onen artean nirea aukeratu dutelako. Pozik joango naiz solasaldietara; horrenbeste hilabetetako lana jendearekin partekatutako ahal izatea opari ederra da".

Karena taldeak irabazi du Herri Urrats-en lehiaketa

Iparraldeko ikastolen aldeko Herri Urrats jaialdiak eta Badok ekimenak, elkarlanean, bigarren Musika Maketa Lehiaketa egin berri dute, eta, publikoak emandako botoei esker, Hernaniko eta Antzuolako musikariek osatzen duten Karena taldeak eskuratu du aurten saria. "Lehenik eta behin, eskerrik asko. Ilusio

berezia egiten digu Herri Urrats moduko espazio batean jotzeak; pozik gaude. Kontzertu ona emateko aukera dela uste dugu", adierazi dute taldekideek. Orain arte egin dituzten "emanaldien antzerakoa" izango da maiatzaren 11n Senpereko lakuan ospatuko duten jaialdian emango dutena: "Beti diogun eran, giro lasaian, festa giroa beste modu batera animatzeko".

Karenaz gain, Oñatiko Malko taldea ere finalista izan da.

Goienakideen txokoa

MARTXOKO SARIAK



Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: errigora



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



oñatiko kobak

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: goienakide@goiena.eus

Irabazi tarta goxo bat

GOXO GOXUA GOZOTEGIARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkariko *Otorduan* atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: martxoaren 11



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



'Goiena app'-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE *Jatetxea*

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailez gozatzeko...



2025eko kuota 67 € da; eta orain, %50eko deskontuarekin: 33,50 €.

Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA!

goiena[™]
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. Mekolalden baserria salgai. 12 hektarea, pinu eta fruitu arbola ezberdinez inguruta. Deitu 943 76 49 61 edo 644 40 93 67 telefono zenbakietara.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Alokairu bila nabil Bergaran. 2 edo 3 logela izatea eskertuko nuke. Bergarako Udaltxan ari naiz lanean. Deitu 645 72 92 87 telefono zenbakira.

Debagoiena. Alokatzeko logela bila dabilen emakume arduratsu eta langilea naiz. Alokairuaren kontratua eta etxebizitzaren eroldatzeko aukera izatea beharrezkoak ditut. Telefonoa: 602 53 38 42

Debagoiena. Hiru logela duen etxebizitza bila dabilen familia gara. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 682 54 49 16

Oñati. Oñatin, bi logela dituen pisu bila nabil. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 663 11 75 10.

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate. Garbiketa lanak egiteko gertu dagoen emakumea. 603 30 73 94

Arrasate. Neska arrasatearra, arduratsu eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatzera lagundu edota konpainia egiteko gertu. Interesatuok telefono zenbaki honetara: 651 49 05 35

Bergara eta Antzuola. Emakume euskalduna gertu Bergaran eta Antzuolan zaintza lanak egiteko, egunez edo gauzez. Esperientzia eta soziosanitario ikasketak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 52 89 83

Bergara eta inguruak. Bergarako neska euskalduna umeak zaintzeko prest herrian bertan edo inguruetan. Hezkuntzan

eta Haurreskoletan esperientzia nituzke. Harremanetarako deitu hurrengo telefono zenbakira: 684 14 95 54

Bergara eta inguruak. Neska gaztea, nagusiak zaintzeko gertu Bergara eta inguruetan. Esperientzia etxeko lanetan eta nagusien zaintzan. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Laguntza behar baduzu, jarri nirekin harremanetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 641 36 77 31

Debagoiena. Garbiketa lanak egingo nituzke taberna zein etxean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 687 61 55 05.

Debagoiena. Bergarako emakumea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Etxez etxeko laguntza titulazioa daukat. Esperientzia sukaldari lanetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 72 88 97.

Debagoiena. Emakume arduratsua pertsonak zaintzeko gertu. Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Esperientzia dut zaintza lanetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 625 25 57 78.

Debagoiena. Emakumea pertsonak zaindu, garbiketa lanak egin edo zerbizari lanak egiteko prest. Malgutasuna dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 651 49 05 35

Debagoiena. Eraikuntza-laguntzaile, edo pintore gisa lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 624 63 00 90

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 633 84 07 08

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan.

Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 626 44 46 49

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Garbiketa lanak egiteko edo pertsonak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 633 17 32 15

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke pertsonen zaintzan. Esperientzia daukat. Deitu 611 75 39 92 telefono zenbakira.

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 633 17 32 15

Debagoiena. Etxeko lanak egingo edota pertsona nagusien edo umeen zaintzan lan egiteko prest. Orduka lan egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 624 70 02 37

Debagoiena. Etxeko lanetan eta zaintzan arituko nintzateke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Soziosanitario titulua daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 662 43 08 54

Debagoiena. Gizon arduratsua pertsonak zaintzeko gertu. Hamahiru urteko esperientzia eta gomendio onak ditut zaintzan. Kotxea, soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Gidari partikular gisa ere lan egingo nuke. Astelehenerdik ostiralera lan egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 662 43 08 54

Debagoiena. Gizon zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Berehalako prestutasuna. 665 37 06 94

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Neska gazte arduratsua naiz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 613 59 26 39

Debagoiena. Garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko prest dagoen emakumea. Etxetik kanpo bizi izatean. Astean zehar zein asteburuetan lan egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 612 56 12 39

Debagoiena. Garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Etxetik kanpo bizi izatean. Astean

zehar zein asteburuetan lan egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 63 77 38

Debagoiena. Garbiketa lanak egiteko, pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko edo konpainia egiteko prest. Orduka lan egingo nuke. Astean zehar zein asteburuetan lan egiteko gertu. Deitu 653 59 45 60 edo 612 27 67 87 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Garbiketarako edo eraikuntzan lan egiteko prest dagoen gizona. Malgutasun osoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 671 25 12 09

Debagoiena. Gizon arduratsua pertsonak zaintzeko gertu. Hamahiru urteko esperientzia eta gomendio onak ditut zaintzan. Kotxea, soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Gidari partikular gisa ere lan egingo nuke. Astelehenerdik ostiralera lan egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 662 43 08 54

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest dagoen gizona. Soziosanitario titulua daukat. 624 72 97 80

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzeko gertu dagoen emakumea. Legezko agiriak eta soziosanitario titulua ditut. Deitu 625 25 57 78 telefono zenbakira.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zein umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Etxean bertan bizi izaten zein bestela. 603 26 66 18

Debagoiena. Larunbatean, orduka, garbiketa lanak egiteko gertu dagoen emakumea. Deitu telefono zenbaki honetara: 611 38 94 37

Debagoiena. Orduka lan egingo nuke, aste barruan zein asteburuetan. Pertsona nagusien zaintzan lan egiteko gertu. Bestela lan mota batzuetara moldatu naiteke. Telefonoa: 631 34 11 68

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 613 58 95 70

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest dagoen gizona. Soziosanitario titulua daukat. 624 72 97 80

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzeko gertu dagoen emakumea. Legezko agiriak eta soziosanitario titulua ditut. Deitu 625 25 57 78 telefono zenbakira.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zein umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Etxean bertan bizi izaten zein bestela. 603 26 66 18

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan edo garbiketa lanak egiteko gertu. Orduka lan egiteko aukera. Erizaintzako laguntzaile ikasketak ditut. Deitu 620 23 58 15 telefonora.

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan edota garbiketa lanak egiten lan egiteko gertu dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario titulua daukat. Deitu 624 09 66 51 (Cintia) telefono zenbakira.

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan lan egiteko gertu dagoen pertsona. Deitu 635 87 82 18 telefonora.

Debagoiena. Sukaldari laguntzaile lanak egingo nituzke. Deitu 623 53 82 88 telefonora.

Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Oñati. Pertsona nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten edo bestela. 4 urteko esperientzia daukat. Deitu 603 30 03 77 telefonora.

Ingeniaritzako matematika klaseak. Ingeniaritzako lehenengo mailako matematika klaseak hartuko nituzke. Deitu 688 64 92 63 zenbakira.

ZORION AGURRAK



ARETXABALETA Noa Olivenza Iturricastillo Martxoaren 12an, 13 urte. Zorionak! Jarraitu gure bizitza alaitzen! Asko maite zaitugu! Familia osoaren partetik.




OÑATI June Bikuña Urkia 12an, urtebete. Zorionak! Gure etxeko txikituenak urte bete betetzen ditut. Patxo handi bat familia guztian partetik, bereziki Paulen partetik.



BERGARA Iraide Berstain Laskurain 9an, 10 urte. Zorionak! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna. Eta muxu handi-handi bat, familia guztiaren partetik.



BERGARA Cristina Aranzabal Ccalli 9an, 15 urte. Zorionak! Bihotz oso noblea duzu, ez utzi ezerk eta inork zure irribarre polit hori desagertzten. Asko maite zaitugu!



ANTZUOLA Maddi Acosta Seguro Martxoaren 9an, 11 urte. Zorionak, Maddi! Oso ondo pasa zure egunean, muxu handi pilla bat etxekoaren partetik! Segi holako alai!



ARETXABALETA Iargi Azkarate Bilbao Martxoaren 8an, 9 urte. Zorionak, Iargi! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Denok batera ospatuko dugu! Patxo handi bat!




BERGARA Julen Gartzaron Telleria Martxoaren 8an, 6 urte. Zorionak, Julen! Ondo ondo pasau zure urtebetetze egunian. Patxo handi bat familia guztian partetik!



ARRASATE Laida Garmendia Gorosabel Martxoaren 8an, 3 urte. Zorionak, txiki politx, familia guztian partetik. Jarraitu zu zeu izaten zoragarria za eta. Patxo potolo mordo.



ANTZUOLA Intza Lizarralde Jimenez Martxoaren 6an, 8 urte. Zorionak, Intza, bihotza! Muxu erraldoi bat lagun eta familaren partetik!



ARETXABALETA Unax Barandiaran Otxoa Martxoaren 4an, 10 urte. Zorionak, mutiko handi! Etxekoak.



ARRASATE Eneko Arrese Mondragon Martxoaren 4an, 5 urte. Zorionak, txapelidun! Familia guztiaren partetik.



OÑATI Martina Elorza Sanchez Martxoaren 4an, 4 urte. Zorionak! Ondo ondo pasau eguna maitia, asko maite zaitugu! Aitaxo eta amatxon partetik.



ESKORIATZA Julen Garcia Isasmendi Martxoaren 3an, 5 urte. Zorionak, txapelidun! Patxo pila bat danon partetik!



ARETXABALETA Beñat Pagoaga Urra Martxoaren 2an, 5 urte. Zorionak, Beñat! Ondo ondo pasau zure urtebetetze eguna, asko maite zaitugu!



ARRASATE Garazi Moreno Rozas Otsailaren 28an, 12 urte. Zorionak, maitia! Primeran ospatu zure eguna. Muxu handi bat Janitz, aitaxo, amatxo eta familia danan partetik!

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera utzerik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goleinakideko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagoz argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

Korosti

inmobiliaria

Elgeta:
Domingo Iturbe
68m², 2 logela, igogailua,
trastelekua eta
aparkaleku marraduna.
135.000€



Bergara:
Zubieta
79m², 4 logela, lursail
ederra, teilatu berritua,
erdigunetik gertu.
190.000€

Bergara: Zurradero
81m², 3 logela,
2 komun, trastelekua,
igogailua.
270.000€



Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio
gehiago:



ESKELA



Miguel Angel Azkarraga Larzanguren

2025eko martxoaren 6an hil zen, 79 urte zituela.



Haren emaztea: Jesusa Ugarte; seme-alabak: Haritz, Anartz eta Josune Arrospide; bilobak: Ainhize, Lorea, Naia, Unax, Iker, eta Maren; anaia-arrebak: Ana Mari(†) eta Jabier Eraña(†), Espe eta Jesus Narvaez, Isabel eta Goyo Blazquez, Valentin eta Nati Hernandez, Koldo eta Maite Goikoetxea, Bingen eta Miren Zubizarreta, Karmele eta Jabi Hilera, eta Paco Caballero(†), Espe Ugarte(†) eta Luis Mendarozketa(†), Teodora Ugarte(†) eta Joxe Iria(†), Rosita Ugarte eta Jesus Ezkurra(†), lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.

Haren aldeko hileta-elizkizuna San Juan Bataiatzailearen parrokian izango da, martxoaren 7an, ostirala, 19:00etan. Bertaratuko zaretenoi alde zuretik eskerrik asko.

Familiak San Felipe Beilatokian hartuko zaituzte, ostiralean, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:30era bitartean.

ESKER ONA



Fidel Iturbe Arkauz

2025eko otsailaren 28an hil zen, 73 urte zituela.



Lurrak goxo har zaitzala.

Familiak egun hauetan jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak eskertzen ditu.

Etxebarriarrak.
Aretxabaletan, 2025eko martxoaren 7an.

ESKER ONA



Juanita Moreno Blazquez

Jose Mari Lete-ren alarguna.

2025eko otsailaren 28an hil zen, 97 urte zituela.




Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztiak. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2025eko martxoaren 7an.

OROIGARRIA

Miguel Angel Azkarraga Larzanguren

2025eko martxoaren 6an hil zen, 79 urte zituela.



MIKEL, gure koinatu eta tio alaia, zurekin bizitako momentu eta egunak beti gure bihotzetan.


Ugarte familioak.
Arrasaten, 2025eko martxoaren 7an.

OROIGARRIA



Miren Izurrategi Azkarretazabal

2025eko otsailaren 27an hil zen, 88 urte zituela.



Zure oroitzapena betirako gure bihotzetan.

Zorioneren kuadrillakoak.
Aretxabaletan, 2025eko martxoaren 7an.

BABESLEA

Oroilore

Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiak euren bidetara aurkitzen lagunduz, diru, orain arte bezala, eta guztiak zureguz dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beronenak gogor izan dituzten laguntzagatik eta maitasunagatik.

Maria, Iban, eta Maribi

617 44 21 55

BERGARA • ANIZUOLA • Murgu OSATI



BERRI-ZAKUA



Zuhaitz Azoka Oñatin
Natur Eskolak antolatutako Ingurumen Jardunaldien azken ekintza izan zen azoka. Guztira sei postu egon ziren Foruen plazan: bailatarik kanpo etorritako hiru mintegi, hazi ekologikoen postua, Oñatiko erlezain bat eta Ekoudalatx.



Zikloturistak
Martxoaren lehen domekan hasten da ofizialki denboraldia, eta, ohitura den moduan, txirringuluariek geldialdia egin zuten Arlabanen, Dorletako Amari babesa eskatzeko.

HILDAKOAK

- **Edurne Arana Urzelai.**
Aramaion, martxoaren 1ean. 93 urte.
- **Maribel Gutierrez De La Torre Peña.**
Antzuolan, martxoaren 1ean. 82 urte.
- **Norberto Rodriguez Gonzalez.**
Antzuolan, martxoaren 2an. 77 urte.
- **Miren Izurrategi Azkarretazabal.**
Aretxabaletan, otsailaren 27an. 88 urte.
- **Fidel Iturbe Arkauz.**
Aretxabaletan, otsailaren 28an. 73 urte.
- **Maria Laspiur Larrañaga.**
Arrasaten, otsailaren 27an. 98 urte.
- **Maria Isabel Melero Gallego.** Arrasaten, martxoaren 2an. 65 urte.
- **Bienvenida Esquina Alcazar.** Arrasaten, otsailaren 28an. 79 urte.
- **Ines Valor Pineda.** Arrasaten, martxoaren 4an. 90 urte.
- **Itziar Sagasta Arana.** Arrasaten, martxoaren 5ean. 70 urte.
- **Juanita Moreno Blazquez.** Bergaran, otsailaren 28an. 97 urte.
- **Angel Mari Linzoain Ilarduya.** Bergaran, martxoaren 5ean. 90 urte.
- **Ana Mari Chacon Pacheco.** Oñatin, otsailaren 28an. 82 urte.
- **Carmen Isasti Gagor.** Oñatin, martxoaren 1ean. 79 urte.
- **Claudio Galdos Guridi.** Oñatin, martxoaren 2an. 84 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ
Egubakoitza, 7 JUNCAI: Kontzezinu 12 / 43 79 79 99
Zapatua, 8 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Domeka, 9 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Astelehena, 10 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Martitzena, 11 ESPAÑOL: Leintzibar 2 / 943 79 18 65
Eguaztena, 12 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Eguena, 13 JAI: Zarugalde 38 / 943 77 16 30

BERGARA EGUNEZ
Egubakoitza, 7 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Zapatua, 8 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Domeka, 9 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Astelehena, 10 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Martitzena, 11 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
Eguaztena, 12 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Eguena, 13 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK
Egubakoitza, 7 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Zapatua, 8 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Domeka, 9 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Astelehena, 10 JULDAIN: Kale Barriz 6 / 943 78 11 28
Martitzena, 11 JULDAIN: Kale Barriz 6 / 943 78 11 28
Eguaztena, 12 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguena, 13 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

ARRASATE GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2025: FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26

BERGARA GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2025: ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN

**KANTARI**

Bergarako, Elgetako eta Antzuolako gaztetxoak dantzan eta kantuan ikusteko aukera.

'Kantari' Zapatua, 16:00 eta 19:00; eta domeka, 10:00, 14:30 eta 18:30

**BOXEO JAIALDIA**

Uarkape frontoian egingo den boxeo jaialdiaren laburpena egingo dute *Harmailatik* saioan, irudiekin eta adierazpenekin.

'Harmailatik' Astelehena, 20:00 eta 22:00

**MARTXOAREN 8A, HERRIRIK HERRI**

Emakumeen Nazioarteko Egunak bailaran ematen duena jasoko dute, herririk herri: elkarretaratzeak, musika, aldarrikapenak...

'Hemen Debagoiena' Astelehena, 14:30, 19:30 eta 21:30

**'GALDEGAZTE'-REN LEHENA**

Oñati Institutuko ikasleek Kontralde taldeko abeslari Oxel Arriaran elkarriketatuko dute, Imanol Belokiren laguntzarekin.

'Galde gazte' Martitzena, 20:00 eta 22:00

**GAI BATEN GAINEAN BERBETAN**

Goiatz Aranek hainbat pertsona gonbidatuko ditu gaurkotasan handiko gairen bati buruz hitz egitera.

'Berbagai' Eguaztana, 20:00 eta 22:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 7**ARETXABALETA Ixadebalde**

Tinta Beltza, Asensio, Kilima, Hankabeltz, Tak, Belar Meta eta Almila Shop dendak.
Durana kolean, 10:00etan.

ESKORIATZA Haurtxotekaren aurkezpena eta Altzo jolasak

Zerbitzuaren gaineko azalpenak emango dituzte, eta ostean, Maier Etxebarriarekin Altzo jolasak.
Bibliotekan, 17:30etan.

ARRASATE Ahoz Aho 2025 jaialdia

Azerbaijango Tarana Karimek eta Euskal Herriko Nerea Ariznabarretak kontatuko dituzte ipuinak. Aurrez eman behar da izena, bibliotekan.
Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 18:00etan.

ELGETA 'Munduko emakumeak' ipuin kontaketa

Ameli ipuin kontalariaren eskutik. Debalde.
Liburutegian, 18:30etan.

ARRASATE '55 urte dantzan' erakusketaren irekiera

Txikitxu-Arrostaitzen sorrera eta ibilbidea errepasatzen ditu bildumak. Gaurko irekieran, Marga Mercader eta Eugenio Garcia omentuko dituzte. Ikusgai egongo da hilaren 27ra arte.
Kulturaten, 18:30etan.

ELGETA Jaietan dantza: deialdia

Ferixa Nagusiko jaietarako helduen dantza talde bat osatu eta dantza pare bat prestatzeko asmoa du herritar talde batek. Gaur elkartuko dira, zer eta nola erabakitzeko.
Gimnasioan, 19:30etan.

ARETXABALETA 'Tu-tum, Platz!' bakarrizketa saioa

Stand up formatuko ikuskizuna, Jon Plazaolarekin. Sarrerak, sei euro.
Arkupen, 20:00etan.

BERGARA La Furiaren kontzertua

Ultra izeneko bosgarren diskoa aurkeztuko du Arrasaten bizi den musikariak. Sarrerak, zortzi euro.
Seminarixoan, 21:30etan.

ZAPATUA 8**DEBAGOIENA Martxoaren 8a**

Askotariko ekintzak, herririk herri. Ikus 24. orriko agenda.
Herririk herri.

OÑATI Hotz elkartearen

elkartasun postua
Hotz Oñatik salmenta mahaia ipiniko du.
Foruen plazan, 11:00etan.

ARETXABALETA Mus txapelketa

Mondragon Unibertsitateko ikasleek eta Orly tabernak antolatuta. Bikoteak, 30 euro.
Orly tabernan, 16:00etan.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

3 eta 12 urte arteko zuzendutako aisialdia, Txatxilipurdiren eskutik. Orduetgia: 11:30-13:30.
Erguingo gazte txokoa, 11:30etan.

ARETXABALETA Bola-txapelketa

Uratz Alde elkartearen eskutik. Lehenengo bostendako egongo dira sariak.
Bolatokian, 22:30etan.

DOMEKA 9**ELGETA Ibiltarien jai**

08:00etan, mendi ibilaldia; 14:00etan, diploma banaketa; eta ostean, bazkaria.
Mendizaleen plazan.

LEINTZ GATZAGA Zuhaitz Eguna

Loreak landatuko dituzte, eta ondoren, mokadutxo izango dute Toki Eder elkartean.
San Migel plazan, 10:30etan.

ESKORIATZA Torrebasoko parkera irteera

Eskoriatzako Berbalagun egitasmoko Gurasolagun taldearen eskutik.
Fernando Eskoriatza plazan, 11:00etan.

ELGETA Konkis prestatzen

Martxoaren 23an egiteko den jolasaren prestaketa saioa, 2008-2012 urteen artean jaiotako gazteendako.
Gaztelekuan, 16:30etan.

ARRASATE 'Familia jolasean'

0-8 urte arteko haurrak dituzten familiek elkar ezagutzeko.
Okendoko ludotekan, 17:30etan.

ARRASATE Kahoot lehiaketa

Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ELGETA Laburbira

Euskaraz sortu eta ekoizitako zortzi film labur ikusteko aukera.
Espaloian, 18:00etan.

ARRASATE Olaia Intziarte

Oronozko musikariak Arrasaten hasiko du *Zerrautsa* diskoa aurkezteko bira. Sarrerak, hamabost euro.
Amaitzokian, 19:30etan.

ASTELEHENA 10**ARRASATE 'Europa eta Afrika.**

Klima aldaketaren nor, nori, nork' hitzaldia
Beñat Arzadunek egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
Kulturaten, 10:00etan.

ESKORIATZA Udaberriko ekintzak: izen-ematea, gaurtik

Hilaren 21era arte eman dezakete izena apirilaren 14ko, 15eko eta 16ko ekintzetan parte hartu gura duten 6-12 urte artekoek.
Ludotekan, 16:45ean.

OÑATI Haurren Irakurketa Kluba

Peru Magdalenak gidatuta, aurrez izena emanda duten LHko gaztetxoekin.
Liburutegian, 17:00etan.

BERGARA Joskintza tailerra

Jabekuntza Eskolaren baitan, gaurtik maiatzaren 5era, Michaela Fortovak gidatuta.
Irizar jauregian, 18:00etan.

MARTITZENA 11**BERGARA Autozaintzaren erotika tailerra**

Jabekuntza Eskolaren baitan, gaurtik maiatzaren 27ra arte, Clara Wolframek gidatuta.
Agorrosinen, 10:30etan.

ESKORIATZA Jolas kooperatiboak

16:45ean, 3 eta 5 urte artekoak; eta 18:00etan, 6-12 urte artekoak. *Ludotekan.*

ARRASATE '24 emakume-Mujeres-Femmes' erakusketa

Emakumeek zientzian, artean eta letretan egiten duten lana ikusarazteko bilduma. *Kulturaten, 18:00etan.*

ELGETA Sukaldaritza ikastaroa

Gaurtik, Loli Ibañezek gidatuta. *Ozkarbi elkartean, 17:00etan.*

BERGARA Udaberriko sendabelar ikastaroa

Jabekuntza Eskolaren baitan, Aiora Urbietak gidatuta. *Goiauzoan, 18:00etan.*

BERGARA 'Ecos del bosque' liburuaren aurkezpena

Aitor Ventureira egileak aurkeztuko du, Kukubasok eta Olaso Dorrea Fundazioak gonbidatuta. *Olaso dorrean, 19:00etan.*

EGUAZTENA 12**BERGARA 'Arizmendiarieta: pentsamendua eta herrigintza' hitzaldia**

Filosofian doktore Jon Mentxakatorrek egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta. *Seminarixoan, 10:00etan.*

BERGARA Kafe Konpon

Etxeke tresna txikiak konpontzen ikasteko. *San Joxepe elkartean, 16:00etan.*

BERGARA Odol-ateratzeak

Hitzordua hartzeko: *Gotatanta.eus.* *San Joxepe elkartean, 16:30ean.*

ARRASATE Bizipen tailerra

Itziar Rosadoren eskutik, 2-6 urte arteko seme-alabak dituztenendako. *Herri Eskolaren Erguin gunean, 17:00etan.*

ARRASATE Komiki kluba

Persepolis komikiaren gainekoa saioa, Igor Leturiarekin. *Kulturaten, 18:00etan.*



LA FURIA

BERGARA La Furiaren kontzertua

Ultra izeneko diskoa, haren ibilbideko bosgarren lana, aurkeztuko du Arrasaten bizi den musikariak. Emakumeen Nazioarteko Egunaren baitan antolatutako kontzertua da. Sarrerak, zortzi euro. *Gaur, egubakoitza, Seminarixoan, 21:30ean.*

BERGARA Eguaztenetako azoka

Baserritarren azoka eta sukaldaritza zuzenean, Elikaeneak gidatuta. *Oxirondon, 18:00etan.*

BERGARA Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa

Jabekuntza Eskolaren baitan, Saioa Baenarekin. *Osintxun, 18:00etan.*

BERGARA 'Elikadura menopausian: goseak buztana labor' ikastaroa

Jabekuntza Eskolaren baita, Mireia Alberdirekin. *Irizar jauregian, 18:00etan.*

ARRASATE 'Mundu psikotikora bidaia. Nola ikusten da mundua psikositik?' hitzaldia

Enrique Saracho psikiatruk egingo du berba. *Kulturaten, 18:00etan.*

ARETXABALETA 'Hetero' liburuaren aurkezpena

Uxue Alberdi egileak egingo du, Oihana Aranarekin batera. *Zaraia aretoan, 18:00etan.*

ARRASATE Ahoz Aho jaialdia

Kolonbiako Nicolas Lubok eta Euskal Herriko Amaia Elizagoienek kontatutako dituzte ipuinak. *Santa Marinako auzo bibliotekan, 18:00etan.*

OÑATI Ahoz Aho jaialdia

Quico Cadaval ipuin kontalari galziarraren saioa, helduendako. *Liburutegian, 19:00etan.*

BERGARA 'Salve María' pelikula

Zineklubean, jatorrizko bertsoian. Sarrerak, hiru euro. *Seminarixoan, 20:00etan.*

EGUENA 13**BERGARA 'Bergaran Emakumeen Txokoa. Zergatik?' mahai-ingurua**

Euskal Herriko hainbat emakume-txokotan esperientzia duten emakumeek hartuko dute parte. *Seminarixoan, 18:00etan.*

ARETXABALETA Euskaraldia: herri batzordearen sorrera

Irekia, interesa duen edonorendako. *Udaletxe zaharrea, 18:00etan.*

ARAMAIO 'Emakumeak eta gerra' hitzaldia

Emakumeak Gerraren Aurka elkartearen eskutik. *Kultura etxean, 18:00etan.*

ANTZUOLA Irakurle taldea

Lehendakariaren alaba liburuaren gaineko saioa, Alaine Agirrek gidatuta. *Antzuola, Antzuola 18:00etan*

ESKORIATZA 'Euskara eta kulturartekotasuna. Nolako Eskoriatza nahi dugu?' hitzaldia

Amelia Barquinek eta Karmele Perezek egingo dute berba. *Huhezin, 18:00etan.*

ARRASATE 'Que te apetece comer hoy?' hitzaldia

Nora Alonsok egingo du berba, gazteleraz. *Kulturaten, 18:00etan.*

ARETXABALETA Literatura solasaldia

Marlene Haushoferren *Horma* liburuaren gaineko saioa, Mikel Antzak gidatuta. *Liburutegian, 18:30ean.*

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA****Vermiglio**

Domeka eta astelehena: 19:30.

Guardianes en la opera

Zapatua: 17:00.

BERGARA**SEMINARIXOA****La mitad de Ana**

Domeka eta astelehena: 19:30.

Flow, un mundo que salvar

Domeka: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA****Bridget Jones: loca por el**

Egubakoitza: 22:00.

Zapatua: 19:30, 22:00.

Domeka eta astelehena: 19:30.

Flow, un mundo que salvar

Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA**ARKUPE****El profesor de esgrima**

Egubakoitza: 22:00.

Zapatua eta domeka: 19:30.

Astelehena: 16:00.

Deep sea. Sakontasunera bidaia bat

Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ**FLORIDA****A complete unknown**

Egubakoitza eta zapatua: 16.30,

19.15, 22.00.

Domeka: 16.45, 19.30.

Astelehena, eguaztena eta eguena:

17:00, 20:00.

Martitzena: 17:00.

Aún estoy aquí

Egubakoitza eta zapatua: 19.15, 22:00.

Domeka: 19:15.

Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:30.

El secreto del orfebre

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30,

22:00.

Domeka: 12:00, 17:00, 19:30.

Astelehena, eguaztena eta eguena:

17:00, 19:30.

Martitzena: 17:00, 19:45.

Lee Miller

Egubakoitza eta zapatua: 17:00,

19:30, 22:00.

Domeka: 12:00, 17:30, 20:00.

Astelehena, eguaztena eta eguena:

17:00, 19:30.

Martitzena: 17:00, 19:45.

Mickey 17

Egubakoitza eta zapatua: 16.45,

19.30, 22.15.

Domeka: 16.45, 19.45.

Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:45.

Nosotros

Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:30.

Domeka: 12:00, 16:30.

Astelehenetik eguenera: 16:45.

Paddington in Perú

Egubakoitza eta zapatua: 17:00.

Domeka: 12:00, 17:00.

The brutalist

Egubakoitza eta zapatua: 20:30.

Domeka: 18:30.

Astelehenetik eguenera: 18:45.

Vaiana 2

Domeka: 12:00.

Vaiana 2

Domeka: 12:00.

KRIKA**Tardes de soledad**

Zuz.: Albert Serra. Herr.:

Espainia (2024). Mota:

Dokumentala.

★★★★★

Xehetasun osoz

Antonio Zabala

Tardes de soledad-ek film onenaren Urrezko Maskorra eskuratu zuen 2024ko Donostia Zinemaldian. Albert Serra zezenen mundura hurbildu da film dokumentala egiteko. Andres Roca Rey Peruko toreroa izango da, zezenekin batera, dokumentalaren protagonista. Serra, batez ere, zezen-plazan, toreroaren eta zezenaren artean gertatzen den norgehiagoka islatzeaz arduratuko da. Badira beste eszena batzuk ere: toreroa janzen, plazara joan baino lehenago, eta toreroak eta kuadrillak, zezen-plazatik hotelera bueltan doazenean, duten elkarrizketak. Baina garrantzitsuenak plazan gertatzen dena da; eta hori xehetasun osoz azaltzen du.

Soinuaren eta irudien bitartez zezenketetan gertatzen dena helduko zaigu. Soinuak eta irudiak benetan indartsuak dira. Zezenaren sufrimendua inoiz ikusi ez dugun bezala heltzen zaigu, baita hondarrean sortzen den tentsio ikaragarria. Alde horretatik, zuzendariak eginiko lana benetan harrigarria da. Albert Serrak ez ditu inoiz plazan dauden ikusleak enfokatzeko. Protagonismoa toreroari eta zezenari ematen die.

Bestalde, filmean ez da zehazten non diren zezenketak, edota ikusten ditugun irudiak egun berekoak diren edo ez. Ez dago istorio bat. Bi ordu pasatotan zezenketen irudiak ikusten ditugu. Agian, filmari ordu erdi moztuz gero, lortutako efektua antzekoa izango litzatekeela iruditzen zait.



AZKEN BERBA

MIKEL BIAIN

Herritartasun kritikoa

Gutariko gehienon bizi proiektuak, salbuespenak salbuespen, norabide bertsuan joan ohi dira, gure inguruak guran dauzkan espektatibak betez: ikasi, lan finko bat lortu, ezkondu... Modu horretan erreproduzitzen da indarrean den gizarte eredua, zeinak, bestalde, bere baitan, inplizituki, gordetzen dituen gure munduaren egiturazko zenbait arazo; esaterako, gehiegizko ekoizpen eta kontsumoa, kutsadura, ekonomiaren mesedetan pertsonen zaintza gutxiatea...

Kontuan izanik gure bizitzetan "itsu-itsuan" hartu ohi ditugun zenbait erabakik zein neurritan baldintzatzen gaituzten, ez al genieke zenbait jakintzagairi propio tarte bat egin behar gure eskoletan?

Adibidez, familia bat eratu nahi denerako dauden erregimen ekonomikoen arteko ezberdintasunak, banaketa egoeren kasuistika, laneko kotizazioak eta balizko pentsioak, ekonomia etxetiarra, zergak, finantzei loturiko erabakiak... Kulturak pertsona askeago egiten duela esan ohi da. Ba, horixe; finean, bizitzarako ibilbidea argitzen lagunduko liguketen finantza, ekonomia nahiz zuzenbide zibilaren inguruko zertzelada batzuk, herritartasun kritikoa eta askeago baten mesedetan.

GAZTE GARA GAZTE

"Asiako janaria, aisia eta ordena igartzen ditut faltan"

IZAR HAN XUE IRAZABAL GILLEGI
DISEINUAN GRADUATUA

Julen Murua Mesonero ELGETA

Txinan jaiotako eta zortzi hilabete zituela iritsi zen Izar Han Xue Irazabal Gillegi (Elgeta, 2002) Euskal Herrira. Sorkuntza eta Diseinuko Gradua ikasi zuen, eta haren gaur egungo zaletasunak horretan oinarritzen dira. **Sortzaile sena txikitatik datorkizu?** Bai; beti esan didate txikitatik hasi nintzela sortzen. Marrazkien bitartez, hain zuzen. Esan daiteke nire amari esker hasi nintzela; izan ere, hark erakutsi zidan margoak nola erabiltzen ziren.

Youtuben ere ibiltzen zara; zer nahiago duzu, vlog-ak [pertsona baten bizitzako esperientziak erakusten dituzten bideoak] egitea ala diseinuak sortzea?

Biak. Youtubeko vlog-ak beste mota bateko diseinu bide bezala hartzen ditut. Grafiko asko erabiltzen ditut eta bideoen azalera ere nik diseinatzen ditut.

Zergatik Isaack-en egunerokoa [Izarren Youtubeko kanala]?

DBHn sare sozialen erabileraren gaineko hitzaldi bat izan genuen, eta esan ziguten gure informazio pertsonala ez emateko. Hortaz, Instagram lehenengo aldiz deskargatu nuenean, Isaack Roosevelt izena aukeratu nuen,

gustuko nuelako eta nire benetako izena ez erabiltzeko. Orduetik hona, sare sozial gehienetan erabiltzen dut izen hori.

Hainbat hizkuntzatan aritzen zara, gainera; trebea zara?

Euskaraz eta gaztelaniaz egunerokotasunean ibiltzen naiz; gainera, ingelesez ere nahiko trebea naizela esango nuke, eduki horretako edukia kontsumitzen dudalako. Txinerazko eta koreerazko edukiak ere ikusten ditut, eta hizkuntza horiek ere lantzen ari naiz.

Euskara ikastea txinera ikastea baino zailagoa dela diote askok.

Ados nago esate horrekin. Txinerazko gramatika oso erraza da euskarazkoarekin alderatuta. Hizkuntza bakoitzak bere erraztasunak eta zailtasunak ditu. Txineraz zailtasun handienetakoak idazkera eta ahoskatzea dira, nire ustez. Euskaraz ahoskatzea ere ez da erraza askorentzat, baina, idazkera hizkuntza askok partekatzen duten alfabetoarekin denez, errazagoa da. **Hego Korean izan zinen ikasturte batez; hango kulturako ezer igartzen duzu faltan?**

Jana, aisia eta ordena. Ez naiz edari alkoholodun zalea eta kafetegiak asko gustatzen zaizkit;



Izar Han Xue Irazabal Gillegi elgetarra hark sortutako diseinuekin. 116

MOTZEAN

Youtuber bat.

Dianxi Xiaoge.

Bidaiatzeko toki bat.

Asia.

Janari gustukoena.

Arroza, edozerekin.

Abesti bat.

One Ok Rock-en *We are*.

Kafea nola?

Kafesnea.

Pelikula bat ikusteak ala liburu bat irakurtzea?

Biak gustatzen zaizkit.

han asko daude eta hemen baino edari-mota gehiago dute. Jana ere asko gustatzen zait, eta hango platerak kozinatzen saiatzen naiz. Ordenari dago-kionez, garraio publikoetan, adibidez, ilaran itxaroten dute, ezer esan gabe; hemen, berriz, askotan, kaotikoa izaten da.

Txina bisitatuko duzu?

Aurtengo udan joateko nintzen, baina, azkenean, Australiara joango naiz, *working holiday* egitera [herrialde batera bidaiatu, han lan egiteko]. Hala ere, etorkizunean joateko asmoa dut.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

OXEL ARRIARAN

ABESLARIA

'GALDEGAZTE' SAIOAREN DENBORALDI BERRIA
MARTXOAREN 11N, MARTITZENA,
20:00ETAN ETA 22:00ETAN
AURKEZLEAK: IMANOL BELOKI ETA
MAIDER ARANGUREN, OÑATIKO INSTITUTUKO
IKASLEEKIN BATERA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.

